

"Gipuzkoako enpresak txikiegiak dira"

Jon Peli Uriguen

Berrikuntza diputatua | 7



Eibar Taldea astelehenean Bergaran

Denboraldi historikoa
Agorrosinen hasiko
dira prestatzen | 30

HEMEN DIRA ANTZUOLAKO JAIK!

Jaietako egitaraua, oso-osorik | 17



Herritarrendako zabalduko dute

Olasoko lorategia | 12



Eguaztenean zabalduko dute

txokolatearen interpretazio zentroa | 14



Ander Lipus.



Miriam Luki.



Concetta Probanza.



Xabi Paya.



Juan Jose Ibarretxe.



Donets Iradi.



Edorta Jimenez.



Eider Rodriguez.



Eneko Balerdi.



Gexan Sors.



Dabid Egizabal.



Miren Amuriza.



Irati Jimenez.



Erika Lagoma.



Jesus Eiguren.



Aire ahizpak.



Onintza Enbeita.



Ixiar Rozas.



Andoni Eizagirre.



Igor Elortza.



Lorea Agirre.



Fredy Paya.



Nekane Goikoetxea.



Maider Oartzabal.



Mariluz Esteban.



Joseba Zulaika.



Josu Zabala.



Julen Arexolaleiba.



Joseba Gabilondo.



Jose Mari Agirretxe.



Iratxe Ibarra.



Joseba Sarrionandia.

JOSEBA SARRIONANDIA MU-KO HIZLARI IZANGO DA

Euskal Kulturgintzaren Transmisio ikasketetan bi saio eskainiko ditu; beste hizlari ezagun batzuen artean jardungo du | 2



Iratxe Retozala.



Kike Amonariz.



Josu Larrinaga.



Patxi Urizarren.




Kalakan.




Beñat Gaztelumendi.



Iñaki Urruzola.



Unai Ibarbia.



Martin Ibarbia.



Mixel Etxekopar.



Jon Sarasua.



Jose Angel Irigarai.



Jose Mari Sors.



Pilare Baraiazarra.



Paulo Iztueta.



Xabier Zubizarreta.



Ibon Aranberri.



Larraitx Ariznabarreta.

Diputazioaren isunak ez ditu sindikatu guztiak asebate

Lan-istripu batengatik sekula jarri den zigorrik handiena ezarri dute | 5

SINADURAK

Hassan | 8
ANARTZ AGIRRE

Dementzia | 25
MIKEL BARGIELA

Deskargako isuna | 40
AINTZANE OIARBIDE

943 71 48 45

Hemen
GARBIKETAK

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

Euskal kulturaren transmisioa, izen handien eskutik

- Joseba Sarrionandiak bi hitzaldi egingo ditu aurtengo edizioan
- Huheziren "gogo eta itxaropena" da Sarrionandia Eskoriatzan egotea
- 40 hizlari baino gehiago izango dira, politika, kultura eta euskalgintzakoak

LEIRE KORTABARRIA | ESKORIATZA

Zabalik dago, urriaren 10era arte, Mondragon Unibertsitatearen Huhezi fakultateak emango duen Euskal Kulturgintza Transmisio ikasketetan izena emateko epea. Aditu titulua lortuko du ikasketak egiten dituenak.

Aurten, azken lau aldietan ohiko bihurtu diren gaiak aztertuko dituzte, baina berezitasun batekin, Julen Arexolaleiba koordinatzaileak dioen moduan: "Euskal nazio kulturalaren aurre-

rabideaz egin nahi dugu gogoeta; hurrengo hamarkadetarako ze ikusten dugun, eta gai horri ertz askotatik heldu nahi diogu". Ertz horietako bati eusten laguntzeko, Joseba Sarrionandiak bi hitzaldi egingo ditu aurten: "Kantopotik gure herria nola ikusi izan duen eta aurrera begira nola ikusten duen, batetik; eta bestetik, euskal literatura azken hamarkadetan, ze eman duen eta ze erronka dituen". Lerro hauek idazteko unean, oraindik

ez zegoen zehaztuta Sarrionandia bera egongo den Eskoriatzan edo beste modu baten egingo dituen hitzaldiak, baina honako hau zioen Arexolaleibak: "Tramite batzuk egin beharra dugu, baina bera hemen izatea da gure gogoeta eta esperantza".

Gai-ardatz horri eutsiko diote beste alde hauetatik: batetik, XIX. bukaeratik gaur egunera arteko nazio kulturalen eta estatu politikoen arteko harremanaren gainbegiratu egingo du

Paul Iztuetak; Kike Amonarrizek –"euskaldunon herria inor gutxik bezala ezagutzen duenak", Arexolaleibaren esanetan– bere ekarpena egingo du; eta politikatik, Juan Jose Ibarretxe, Xabier Zubizarreta eta Jesus Egiguren izango dira hizlariak: "Instituzionalizazioa gertatu zenetik, azken hamarkadetan eta aurrera begira" Euskal Herriaren etorkizuna politikaren eremutik nola irudikatzen duten egingo dute gogoeta, *Eta datozen 30 urteetan zer?* izeneko saioekin.

Aurtengo beste gai berri bat hauxe izango da, koordinatzailearen hitzetan: "Egoera gatazkatsuetatik irtenda bizikidetasunera iristeko gainditu beharreko erronkak". Hori landuko dute Jose Angel Irigaraik, Mari Luz Estebanek eta Joseba Zulakak, *Bizikidetasunaren erronka emozionalak* izenburuarekin.

Etxeko transmisioa

Aurten, garrantzi berezia eman-go diote belaunaldiz belaunaldiko transmisioari. Horretarako, guraso eta seme edo alaba bikoak gonbidatu dituzte: Jose Mari eta Gexan Sorsek kulturaren industriaren ikuspegia landuko dute; Martin eta Unai Ibarbiak, ikus-entzunezkoena; eta Edorta eta Irati Jimenezek, literatura-rena. Batzorde pedagogikoko Nekane Goikoetxeak honela azaltzen du gai horren zergatia: "Belaunaldiz belaunaldiko transmisioa zeharka landu izan dugu aurreko urteetan, baina beste

trinkotasun bat eman nahi izan diogu. Aurtengo gonbidatuak kulturgintzaren bizipen eta zale-tasuna baina baita ofizioa ere nola transmititzen den azalduko dute". Bere esanetan, etxeko transmisioa garrantzitsua izan da baita enpresa ikuspuntu batetik ere, gonbidatuek argi utziko duten moduan.

Beste edukiak hauek izango dira: *Egungo euskal kulturgintzaren aitzindariak* (Patxi Uribarren, Pilare Baraiazarra eta Mixel Etxekopar), *Sortzaileak: mamia eta atsegina* (Iratxe Retolaza, Ibon Aranberri, Joseba Sarrionandia, Joseba Gabilondo, Eider Rodriguez, Ixiar Rozas, Ander Lipus, Eneko Balerdi,

ESANAK

"Tituluak bost urte ditu eta bere eragina igartzen da"

JULEN AREXOLALEIBA
KOORDINATZAILEA

"Aukera eman nahi izan diogu ikasle gehiagori"

NEKANE GOIKOETXEA
BATZORDEKIDEA

MATRIKULA ZAITEZ!

Uztailaren 9tik 16ra

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP

Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

Robota diseinatzen dute

Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa

Robotaren atalak eta piezak fabrikatzen dituzte

Mekatronika Industrial

Robotaren muntaiaz eta mantenketaz arduratzen dira

Sareko Informatika Sistemen Administrazioa


Robotaren hari gabeko komunikazioaz, ordenagailu muntaiaz eta sistema eragileen instalazioaz arduratzen dira

Automatizazioa eta Robotika Industrial

Robotari autonomia ematen dioten elementuak instalatu eta programatzen dituzte

Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak

Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoaz eta energiaren hornizioaz arduratzen dira



Lanerako Gertu!



www.mondragon.edu/gmh

Kalakan, Aire ahizpak, Josu Zabala, Josu Larrinaga, Miriam Luki, Concetta Probanza, Kuku-ka) eta, gai horren barruan, bertsolaritzak protagonismo berezia izango du eta aurreko urteetan ikasle izan diren bertsolariek –Miren Amurizak, Igor Elortzak, Fredy eta Xabi Payak, Iratxe Ibarak, Onintza Enbeitak, Erika Lagomak eta Beñat Gaztelumendik– bertso-kronikak egingo dituzte; eta Sorguneak ikertegiaren eskutik, formazio teorikoa eta aurreko edizioetako sozializazioa. Batzorde pedagogikoko kideek osatuko dute ikertegi hori, eta "ikasgelan bertan zein nork bere bidetik sakontzen jarraitzeko bideak" zabaltzeko asmoarekin lan egingo dute: "Elkar aberasten joango den" gorpila sortu nahi dute: "ezagutza biltzea, sortzea eta transmititzea... izaten eta ekiten jarraitu ahal izateko".

Bertso-kroniken ideia nondik datorren honela azaltzen du Nekane Goikoetxeak: "Euskal kultur ikasketei ekarpena egin nahi diegu eta, formazio eskaintza izateaz gain, uste dugu badi-rela eragiteko modu bat ere. Horregatik, titulua mediatizatzea eta jendeari gela barruan zer egosten dabilen azaldu nahi diegu. Horretarako, bertso-kronikak formatu interesgarria dela uste dugu, eta oso gurea. Joan den hamarkadetan, berritzeko grina erakutsi du bertsolaritzak, eta oso jarduera inportantea da kulturagintzaren transmisioan".

Zapatu eta domeketan

Berrikuntza gehiago ere badaude: tartean, eskolak zapatu eta domeketan izango dira. Zergatia azaltzen du Goikoetxeak: "Jende asko hurbildu izan zaigu sarri, titulua oso interesgarria iruditzen zitzaizela eta gustura apuntatuko lirakeela baina ordutegia traba zela esanez. Bada, bosgarren aldi honetan aukera hori eskaini beharko geniekeela pentsatu genuen eta, horregatik, hemendik aurrera hilean behin aste bukaera baten elkartuko gara. Huhez in izango dira eskolak eta lo egiteko lekua hemendik gertu edukiko dugu".

Beraz, zapatuetan 09:00etan hasiko dira jardunaldiak, eta domekan 17:00etan bukatuko dira. Honako aste bukaeretan izango dira jardunaldiak: urriaren 18 eta 19an, azaroaren 15 eta 16an,



Euskal Kulturagintza Transmisioa batzorde pedagogikoko lau lagun. | L.K.

Proiektua egin beharko dute ikasleek

Ikasleek proiektua egin beharko dute ikasketak aurrera doazen neurrian. Bakarka edo taldeka egin dezakete hori. Proiektu hori aurrera ateratzeko, ikasleak berak aukeratutako tutorearen laguntza izango du. Bestalde, tutore-mintegiak ere izango dira: ikasketei etekina ateratzeko, ikasitakoa norberaren interesera egokitze eta gogoetak eta esperientziak trukatzeko.

abenduaren 13 eta 14an, urtarrilaren 17 eta 18an, otsailaren 14 eta 15ean, martxoaren 14 eta 15ean, apirilaren 18 eta 19an, maiatzaren 16 eta 17an eta ekainaren 13 eta 14an.

Hori guztia ikasi eta, bukaran, Euskal Kulturagintzaren Transmisioan aditu titulua jaso nahi duenak matrikula egiteko bi modu ditu: Huhezira joan

(08:30-12:00 eta 14:30-17:30 da ordutegia) edo www.mondragon.edu/eu/ekt webgunean dagoen orria bete eta gutun zertifikatuz bidali. Matrikula 2.500 euro kostatzen da; MUko ikasle ohienak, %10 merkeago. Otorduetarako eta lotarako tokia Huheziren bidez lortu nahi dituenak beste 300 euro ordaindu beharko ditu.

Curriculumetan, pisua

Julen Arexolaleibak dioenez, orain arte "askotariko" ikasleak izan dituzte Euskal Kulturagintzaren Transmisio tituluko ikasketak egiten; denetara, 150 bat. "Denetariko jendea dago: euskal filologian lizentziadunak, filoso-fiakoak ere bai, kimikakoak eta bestelakoetakoak. Oso profil bariatua da, bai formazioari dagokionez bai lanbideari dagokionez: irakaskuntzan diharduten hainbat izan dira, baina beste mordo bat enpresetatik, euren formazio planetan interesgarri jo izan delako langileek ikasketa horiek egitea; euskalgintzatik, herri elkartetatik... eta gero, interes pertsonala izan duen jendea". Denek honako antzekotasuna zuten: "Euskal kulturarekiko atxikimendua, horren partaide sentitzea eta formazio minimo bat unibertsitate ikasketak aurrera eramateko".

Bestalde, tituluaren ikasketak ematen diren bosgarren aldia da, eta eraginik izan den igartzeko nahikoa edizio dira horiek. Ikasketen koordinatzaileak balorazio hau egiten du: "Nik esango nuke igartzen dela eragina, bai ikasle aldetik eta baita irakasle aldetik ere. Jende hori guztia honen bueltan ipini izana, hori bera ere aurrerabidea bada. Bestalde, curriculumak egiteko, badakigu Euskal Kulturagintzaren Transmisioa ikasketek pisua badutela".

Sakabanatua dagoena batu

Aurtengo helburu zehatzez gain, 2007/08 ikasturtean sortu zireneko helburu orokor berberak dituzte Euskal Kulturagintzaren Transmisio ikasketek aurtengoa: euskal kulturagintzari buruzko ezagutza sakabanatua biltzea, eta hori transmititzea; euskal kulturagintzak dituen helburuen eta erronken aurrean ikuspuntu askotariko formazio praktikoa ematea; kulturagintzaren transmisioan izandako estrategia eta esperientziak beste alor batzuetako eskura jartzea; eta hori dena egitea bi multzo harremanetan jarritz: batetik, aritu eta adituen multzoa, eta bestetik, gai horretan jantzi nahi duten gaurko eta etorkizuneko eragileen multzoa.

Informazio gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Sarrionandia. | GOIENA

Etortzeko gogo eta itxaropena

Joseba Sarrionandia Eskoriatzan izango ote da? Galdera hori egin dio batek baino gehiagok Julen Arexolaleibari, eta honakoa erantzuten du: "Etortzeko eta saioak bertatik bertara emateko gogoa eta esperantza badauzkala ziurtatzeko moduan gaude".

Hori argitzen den bitartean, modu batera edo bestera Sarrionandia Euskal Kulturagintzaren Transmisioa hizlari gisa izatea "poza" da arduradunendako: "Parte hartzeko eskaintza egin genion eta baietz esan zigun, gertutasuna erabatekoa izan zen, eta onartu duelako pozik gaude. Badakigu literaturan eta pentsalari aldetik ze nolako gaitasuna eta duntasuna daukan".

Sarrionandiak bi hitzaldi egingo ditu: *Nazio kultural euskaldunaren aurrerabideaz* atalean, kanpotik barrurako ikuspuntua emango du; eta bestetik, euskal literaturaz jardungo du, Arestiren *Harri eta Herri*-k 50 urte dituela aitzakia hartuta.

Ihes eginda

Joseba Sarrionandiak (Iurreta, 1958) ETako kide izateagatik kartzelan zegoela, 1985ean ihes egin zuen eta ihes eginda jarraitzen du, nahiz eta egozten zitzaizkion delituak preskribatuta egon. Etengabe argitaratu izan ditu nobelak, poesia, saiakera, itzulpenak... eta hainbat sari irabazi ditu, tartean Kritikaren Saria euskarazko narratiba kategorian eta saiakerako Euskadi literatura saria.

	Oñati gestio heziketa MGEP MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK Matrikula uztailaren 9tik 16ra	Eskaintza akademikoa Oñati Gestio Heziketa • Administrazioa eta Finantzak • Zuzendaritza Idazkaritza • Salmenta Kudeaketa MGEP • Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak • Automatizazioa eta Robotika Industrialak • Sareko Informatika Sistemen Administrazioa • Fabrikazio Mekanikoko Diseinua • Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa • Mekatronika Industrialak www.mondragon.edu/ogh info.enpresagintza@mondragon.edu 943 71 80 09 www.mondragon.edu/gmh gmh.mgpe@mondragon.edu 943 73 97 65
--	---	---

Ikus itzazu argazkiak, inon baino lehenago Asteleheneko Goienan!

UDAKO ARGAZKIEN X. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!



Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak



XABIER ATXA ZUGASTI. 2013ko Sari Nagusiaren irabazlea.



ARKAITZ LASKURAIN. 2013ko bigarren sariaren irabazlea.

Har ezazu parte!



MIKEL ZAMORA. 2013ko hirugarren sariaren irabazlea.

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 11tik irailaren 21era arte (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.

- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otarora Lizentziaduna 31, Arrasate

- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 13an jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.

- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta goiena.eus-n sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan, Facebook-en (www.facebook.com/udakoargazkiak) eta Twitter-en (www.twitter.com/udakoargazkiak) ere erakutsiko dira argazkiak.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilaria profesionalak osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela:
 - **Twitter bidez**, [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidaltuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
 - **Facebook bidez**, [facebook.com/udakoargazkiak](https://www.facebook.com/udakoargazkiak) orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookeez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitaterik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

Sariak

1. saria

Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.

- 14,2 megapixel.
- Full HD bideo-grabazioa.
- 3 hazbeteko pantaila.
- Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa.
- ISO 100-3200 sentsibilitatea.
- Integratutako edizio funtzio ugari.



2. saria: Orioko Aisia hotolean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaia-en eskutik.



3. saria: bi pertsonarentako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



Herritarren saria: SPC 5604S liburu elektronikoa irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.



Boto emaleentzat saria: Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu munduko zaporeak karibumundukosaporeak.com

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

KB
photoestudio
www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin
karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com

Askotariko erreakzioak eragin ditu Diputazioaren isunak

- 1,6 milioi euroko zigorra ezarri dio Diputazioak Lapatza enpresa elkarteari
- Lan-istripu bategatik halako tamainako zigor bat jartzen den lehen aldia da

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Gipuzkoako Diputazioak 1,6 milioi euroko zigorra ezarri dio Lapatza enpresa elkarteari, 2013ko irailaren 18an Deskargako obretan izandako lan-istripuan gertatutako heriotza dela-eta. Lanean zebilen kamioi bat irauli, eta 33 urteko langile bat hil egin zen. Larraitz Ugarte Diputazioko bozeramaileak zera azaldu du: "Obra hau egiteko pleguetan jartzen duena aplikatu dugu, zigor handia da eta espero dugu horrelakorik berriro egin beharrik ez izatea; izan ere, horrek adieraziko luke lan eta segurtasun baldintzak betetzen ari direla obra honetan eta, beraz, langileak segurtasunez ari direla. Espero dugu enpresa guztiek dagokion garrantzia ematea segurtasunaren gaiari eta era horretan lan istripuak gutxitu ahal izatea. Aldundiarentzat hasieratik oso garrantzitsua izan da lan arloko segurtasuna, herritarren ongizaterako ezinbestekoa baita arlo horretan erakundeek zorrotz jokatzeari".

Zigor aitzindaria

Gaurdaino ezezaguna da erakunde batek enpresa bat horren gogor zigortu izana lan-istripu baten erantzule izategatik. Aitzindaria da Diputazioaren erabakia.

Baina aitzindaria izanagatik justua edo ereduagarria ere baden galdetuta, sindikatuak ez dute modu berean baloratzen ebazpena: LAB eta CCOO sindikatuak modu positiboan baloratu dute zigorra; ELA eta UGT, berriz, kritikoago azaltzen dira. Eta Lapatza enpresa elkarteak ez du baloraziorik egin gura izan.

JOSE RAMON KORTABARRIA
LAB SINDIKATUA

"Administrazio publikoak obren jarraipena egin du"

LABeko Debagoieneko ordezkariak modu "positiboan" baloratu du zigorra. "Pentsatzen dugu administrazio publikoak isuna sartzeak esan nahi duela jarraipena egin duela. Normalean ez da hori gertatzen. Izan daiteke lehen kasua", dio Jose Ramon Kortabarría *Moztu*-k.

Puntualizazio bat ere egin du sindikatu abertzaleko ordezkariak: "Indarra prebentzioan jarri" beharra dagoela. "Lanak hasi aurretik gauzak behar den moduan egiteko segurtasuna behar da. Batez ere lanera doan jendeak istripu-



Deskargako obretan, polizia eta suhiltzaileak. | GOIENA

rik ez izateko, eta hildakorik ez izateko" (...) Ikusten dugu kasu gehienetan dokumentazio aldetik betetzen direla gauzak, baina eguneroko kontuetan ez. Gaur egungo egoerak ekartzen du prekaritatearen bitartez prebentzio falta eta hor dirurik ez jartzea, eta halako kasuak. Adibide garbi bat dago: AHTko obretan zortzi bat langile badirela hildakoak, eta hor ez dirudi ezer gertatu denik, ez inongo neurririk hartzen den ere, ez neurri prebentiborik egon denik eta ezta isunik ere. Beraz, ondo ikusten dugu, baina kontuan hartuta aurreko lan hori ere egin egin behar dela, eta administrazioak jarraipena egitea ondo ikusten dugu".

ALFONSO RIOS
CCOO SINDIKATUA

"Halako isunak orokortu egin beharko lirateke"

"Positibo" berba erabili du, baita ere, CCOO sindikatuko Euskadiko Lan Osasun arduradunak. "Gehiegizko kopurua dela eman dezake, baina heriotza eragin duen lan-istripu bati buruz dihardugu. Horrelakoei buruz berba egiten dugunean lerro gorriak gaintitu egiten dira, eta uste dugu Diputazioak aktuatu duela aktuatu behar zuen moduan, azken batean Diputazioaren menpeko den obra batean diharduen enpresa dela kontuan hartuta. Ulertzen dugu halako isunak orokortu egin beharko liratekeela, batez ere kontuan hartuta eraikuntzari buruz berbetan gabiltzala, eta hainbat abusu gertatzen diren

esparrua dela: jendea ordu luze lan egitera behartuta dago, behartzen da baldintza ez egokietan lan egitera askotan, eta egoera horiek dira halakoak gertatzearen arrazoiak", adierazi du Riosek.

IGOR SAN JOSE
ELA SINDIKATUA

"Gipuzkoan dagoen eraikuntzarik okerrrena da Deskargakoa"

ELA sindikatua, berriz, oso kritikotik azaldu da. Bai kopuru aldetik eta baita ere erakundearen jardun aldetik ere. ELAko Eraikuntza Arloko Igor San Jose arduradunak onartu du "isunaren zenbatekoa ikusita, asko" izan daitekeela. "Behin ere ez da halako isunik jarri. Egia da", dio. "Baina ez da bete hitzartutakoa", gehitu du.

Batetik, zenbatekoari begira, dio "inkongruentea" dela. "Foru Araura bagoaz, isun hori falta arin bati dagokiona da (adjudikatutakoaren %4, 40 milioi euroren arabera). Aldiz, isunari larritasun maila ezarri izan balitz, kopurua %7koa litzateke. Eta oso larria izango balitz, berriz, %10ekoa".

Hala, sindikatu abertzaleak "etorkizunera begirako" zigorrak egokiago ikusten ditu. "Hau da, zigorrak eragina izan dezala etorkizuneko adjudikazio posibleetan", esplikatu du San Josek.

Horrez gain, ELA ez dago ados Diputazioaren jarduteko moduarekin. "Hutsetik hasi eta berriro ere esleitu beharko zukeen obra hori. Bertako lan baldintzak oso txarrak dira, eta gaur egun ere ez dira segurtasun neurriak betetzen. Gipuzkoan dagoen eraikun-

tzarik okerrrena da Deskargakoa. Adjudikazioa hasieratik egin da gaizki. Diputazioa da promotorea eta haren interesa da merke eta bizkor egitea. Horren erakusle da obraren prezioa 70 milioi euro zela eta, aldiz, 40 milioitan adjudikatu zela (%37 gutxiago). Eta eskatzen duguna da eraikuntza publikoan erabiltzen den diru publikoa egoki erabiltzea".

ANGEL RAMOS
UGT SINDIKATUA

"Kamioiak ez zuen segurtasun uhalik, jarlekurik, balaztarik..."

Eta ELAren bide beretik jo du UGTko Gipuzkoako Metal, Eraikuntza eta Antzekoen arloko arduradunak. Angel Ramosek dio kopuru "garrantzitsua" izan eta "enpresendako ereduagarria izan daitekeela" eman arren, ez dutela "horrela" ikusten. "Ikuspuntuaren arabera. Azkenean itxi egin behar izan duen Aballa enpresarendako asko izan daiteke, baina hildakoaren familiarendako ez (...) Osalan eta lan ikuskaritzaren txostenen arabera, jakinekoea zen kamioi horrek istripu horren aurretik beste batzuk ere izan zituela; langile batzuk ez zuten nahi kamioi horrekin lanik egin, ez zuen segurtasun uhalik, ez zuen jarlekurik, balaztek ez omen zuten funtzionatzen... Eta enpresei ikustarazi behar zaie arauak betetzea oso garrantzitsua dela, bai euren zuzeneko langileenak eta baita azpikontratenak ere. Azken horiek ere enpresa nagusiaren ardura dira, kasu honetan enpresa elkar-tearena".

Fagor erosteko eskaintzak hobetu egingo dituzte

U.M. | DEBAGOIENA

Cata enpresa katalunak eta Cevital aljeriarrek Fagor Etxetresnengatik egindako eskaintzak hobetu egingo dituzte. Atzo, eguna, zenbait komunikabidetan esandakoaren arabera, uztailearen 16a litzateke eskaintza berriak aurkezteko epea. Edozelan ere, Donostiako Merkataritza Epaitegitik aditzera emandakoaren arabera, epailearen erabaki bat ateratzearen zain daude informazioa konfirmatzeko.

"Errekorra", Automazionek

Bestalde, eta Fagorrekin lotuta, albiste esanguratsu bat jakinarazi du Fagor Automazionek: esportazioetan "markak apurtzen" dabilela.

Fagor Automazionek gogora ekarri du 30 urteko eskarmentua duela eta teknologia dela gaur egun, "inoiz baino gehiago, Fagor Automationen giltzarri nagusia". Teknologia-ri esker lortu du, bere esanetan, esportazio maila handitzea eta produkzioaren %90era ailegatzeari. Kooperatibaren esanetan, zifrek "bide onetik doala erakusten dute".



Boluntarioak, Arrasaten. | ADEMG

Domekan Oñati "bustiko" da ADEMGren alde

U.M. | DEBAGOIENA

Joan den asteburuan Arrasaten izan ondoren, etzi, domeka, Oñatin egin dute hitzordua esklerosi anizkoitzaren kontrako bidean laguntzeko Busti Zaitetz ekimeneko kideek. Foruen plazan jarriko dute ADEMG elkartearen informazioa eta material salmentarekin stand-a. Boluntarioen laguntzarekin egingo dute hori, urtero moduan.

Arrasaten, esaterako, 1.709 euro lortu ziren fundazioarendako joan den asteburuan, nagusiki esklerosi anizkoitzaren dutenendako errehabilitazio zerbitzua finantzatzeko erabiliko dute diru hori.

Arantxa Gonzalez de Heredia | Diseinu Estrategiko Masterreko irakaslea MU

"Pertsona estandarra ez da existitzen; ez dira existitzen 2,7 ume dituzten pertsonak"

- MUren masterreko ikasleak saritu dituzte Kordoban
- 'Edonorentzako moduko diseinuek' jaso dute saria

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Design for all ikasgaiarako egin-dako lanak aurkeztu, eta Surge-
niak (Andaluziako Diseinu Tek-
nologia Zentroa) antolatutako
hirugarren adinekoentzat egoki-
tutako elikagai-ontzien diseinu
lehiaketan hiru sariak irabazi
dituzte MUko ikasleek.

**Ohikoa da, ezta, zuen ikasleek horre-
lako lehiaketetan parte hartzea.**

Bai, saiatzen gara, batez ere hiru-
garren maila aldera, lehiaketak
topatzen, ikasleak motibatze-
ko eta, gero, ikasleen lanak hedabi-
deetan ager daitezen, hemen
egiten ditugun gauzak, sarri oso
politak, kanpoan erakusteko.

**Eta ohikoa da oraingoa bezain emai-
tza ona?**

Lehenengo hiru sariak, denak,
irabaztea ez da oso ohikoa gure-

tzat ere. Baina azken urteetan
lehiaketa batzuk irabazi ditugu,
sarietakoren bat. Denak irabaztea
sorpresa izan da guretzat ere.

**Esan beharrik ez, oso pozik emai-
tzarekin, ezta?**

Bai; gainera, ez genuen espero.
Design for all ikasgaiaren barruan,
produktu inklusibo bat diseinatzeko
dugu beti. Jakin genuen lehiaketa
hau bazela, eta ikasleei propo-
satu nien aurkeztea lehiaketara
klasean egin behar genuen ari-
keta hori. Ariketako formatua horre-
tara egokitu genuen, beraz. Baina
ez geneukan esperantza handirik,
estatu mailako lehiaketa da-eta;
pentsatu genuen jende asko aur-
keztuko zela eta maila handiko
lanak egongo zirela. Azkenean,
bai aurkeztu dira proiektu asko,
24, lau eskolatatik –hau ez da

agian kopuru handia–, eta geurek
irabazi dute. Egia esan, produktuak
nahikoa sinpleak ziren, eta nahi-
ko errealistak. Gure ikasgaiaren
helburua da eguneroko produktuak
inklusioboak izatea, inor ez baz-
tertzea produktu bat diseinatzeko
dugun orduan; diseinatzerakoan
kontuan hartzea behar desberdi-



Arantxa Gonzalez de Heredia. | MU

nak izan ditzaketan pertsonak.
Normalean produktu bat diseina-
tzen dugunean pertsona estanda-
rra hartzen dugu kontuan, eta
berarentzat diseinatzeko dugu;
baina pertsona estandarra ez da
existitzen: ez da existitzen pertso-
na bat 2,7 ume dituen, adibidez.
Ikasgaiaren helburua da, beraz,
askotariko pertsonen profila eta
haien beharrak kontuan hartzea,
eta gure diseinuetan horiek ez

baztertzea; eta, betiere, soluzio
sinpleak proposatzea, eta bide-
ragarriak, teknikoki ere fabrika-
tzea posible direnak. Eta gure
produktuek bazuten balio hori.
Baziren berritzaileak, baina,
gehienbat, egiteko aukera ematen
dutenak eta erabilgarriak.

**Merkatuan ikusiko ditugu haueta-
ko produktuen batzuk?**

Ba, ez dakit, ikusi egin behar.
Bilatu beharko litzateke enpresa
bat interesatua. Lehiaketa anto-
latu duten Surgeniakoek uste dut
badutela kontaktua enpresa horie-
kin, Andaluzian nekazaritzako
elikagaien industriak garrantzi
handia dauka-eta, enpresa asko
eta garrantzitsuak daude. Ikusi-
ko dugu haiek dituzten kontaktu
horiek in aukeraren bat sortzen
den. Saria jaso eta gero bildu
ginen Surgeniako zentro tekno-
logikokoekin eta ONCE Funda-
zioko jendearekin, ikusteko nola
jarrai dezakegun elkarlanean,
proiektu berriak egiteko edo hauei
jarraipena emateko. Baina bai,
hori litzateke politena, hauek
merkatura ateratzea.

Urdaiazpikoa gordetzeko ontzia

MUren Diseinu Estrategiko
Masterreko hamalau ikasleek,
bikoteka, aurkeztu zituzten
lanak –zazpi denera–
Andaluziako lehiaketan, eta
saria lortu zutenak izan ziren
eskuetan minusbaliotasuna
duten pertsonentzako moduko
urdaiazpikoa gordetzeko ontzia
–lehenengoa– eta lata
berritzaile batzuen proiektua
–latentzako bi proposamen
desberdin; bigarren eta
hirugarren sariak.



Sarituak izandako ikasleak, eurek diseinatutako produktuekin. | MU

**"Lehenengo hiru
sariak, denak,
irabaztea ez da oso
ohikoa guretzat ere"**

**"Gure produktuak
ziren egiteko aukera
ematen dutenak eta
erabilgarriak"**



Iazko bigarren saritua; bi lagun bizikletan, eta arropak eskegita. | ARKAITZ LASKURAIN

Martxan da Udako Argazkien X. Goiena Lehiaketa, gaurtik

Kamera jasoko du irabazleak, herritarren saria ere
egongo da, baita beste bat boto emaleentzat ere

J.I. | ARRASATE

Udako Argazkien X. Goiena
Lehiaketa martxan da; irailaren
21era bitartean dago aurkezte-
ko aukera. Parte-hartzaile bakoit-
zak aurkeztu ahal izango ditu,
gehienez, bost argazki, udakoak,
aurtengoak edo beste urte bate-

koak. Aurkeztu ahal izango
dira paperean edo digitalizatu-
ta, eta argazkia aurkeztearekin
batera adierazi beharko dira
egilearen izen-abizenak eta
herria, telefonoa, noiz eta non
ateratakoa den eta zer eta nor-
tzuk agertzen diren.

Argazkiak izan behar dira
inon argitaragabeak, eta ahal
izango dira Goienaren Arrasate-
ko egoitzara eramane edo *argaz-
kiak@goiena.com* helbidera bidali.
Sare sozial bitartez ere parte
hartu ahal izango da lehiaketan,
Twitter bidez *@udakoargazkiak*
helbideari aipamena eginda argaz-
kia bidalita eta *facebook.com/
UdakoArgazkiak* orriaren horman
argazkia partekatuta –argazkia-
ren deskribapena egin–. Sare
sozialetan eta Goienaren heda-
bideetan argitaratuko dira argaz-
kiak, asteleheneko paperekoan
eta *Goiena.eus*-eko foto-blogean
–*blogak.goiena.eus/argazkiak*.

Sariei dagokienez, lehena
izango da Bergarako KB Photoes-
tudiok emandako Nikon kamera;
bigarrena, Orioko Aisia hotelean
zirkuitu termala eta otordua,
Arrasate Bidaen eskutik; hiru-
garrena, otordua Leintz Gatzaga-
ko Gure Ametsan. Herritarren
saria izango da Arrasateko Eros-
kik emandako liburu irakurgai-
lu bat (*e-book-a*); blogean botoa
ematen dutenen artean zozketa-
tuko da munduko askotariko kafe
otarrea, Arrasateko Karibu den-
daren eskutik.

Segurtasuna hobetzeko lanak bailarako bideetan

AP-1ean, GI-627an, Bergaran eta Antzuolan
egingo ditu hobekuntzak Foru Aldundiak

J.I. | ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak
iragarri du 9,3 milioi euroko
inbertsioa egingo duela, urte
bukaera bitartean, gidarien,
txirrindularien eta oinezkoen
segurtasuna handitzeko. Hobe-
kuntzetako bat izango da bide-
gurutzetan; bidegurutzea ken-
du eta biribilguneak egingo
dituzte hainbat lekutan; tartean,
Antzuolan eta Bergaran.

Antzuolan, GI-632 errepi-
dean, Zupide baserri inguruan
dira biribilgunea egitekoak:
Ima Beristain alkatearen ara-
bera, trazatu proiektua ezagu-
tzeko zain daude Udalean, jaki-
teko ze lur eremu beharko den
lanak egiteko.

Bergarako Udaletik adiera-
zi dutenez, berriz, oraingoz ez
dute Aldundiaren asmoen berri-

rik –erredakzioa ixterako, Foru
Aldunditik ere ez dute zehaz-
tasun gehiago eman–. Bergaran,
gainera, beste neurri batzuk
ere badira hartzekoak, Aldun-
diak iragarri du-eta "zirkulazioa
lasaitzeko" gauzatuko dituzten
proiektuen artean Bergarako
bat ere badagoela.

Istripu ugariko gunetan,
bestalde, arreta berezia jarriko
du Diputazioak, eta horietan
egingo dutena izango da: lur-
zorua hobetzea; zutikako nahiz
margotutako seinaleak egokitzea
eta berritzea; eta euste sistemak
berritzea eta berriak jartzea.
AP-1ean daude istripu ugariko
tarte horietako batzuk. Radar
berriak jartzeko ere eskatu
diote Jaurlaritzari. Azkenik,
motorzaleentzako hesiak jarri-
ko dituzte GI-627an.

Jon Peli Uriguen | Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo diputatua

"Gipuzkoako enpresak berritzaileak dira, baina haien ahulezietako bat da txikiegiak direla"

- Adegirekin eta baserritar batzuekin dituen ezberdintasunak leundu nahi ditu diputatuak
- "Turismoa oso jarduera ekonomiko inportantea da Gipuzkoan, BPGren %7,5"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Berrikuntza, ekintzailetasunaz, turismoaz eta landa garapenaz dihardu alorreko diputatuak. Gipuzkoa lurralde ekintzaile eta berritzailea dela dio, "berritzaileagoa" izan beharko litzatekeen arren. Pozik azaldu da, bestalde, Gipuzkoara geroago eta turista gehiago datorrelako.

Sanferminetan bete-betean gaude eta horrek zuzenean eragiten dio Gipuzkoako turismoari ere. Zelako uztaila da aurtengoa turismoari dagokionez?

Donostia eta inguruan, Zarauzko kanpinean-eta, jende asko ikusten da zuri jantzita. Eragina dauka, bai, halako festa ospetsu batek. **Orain arte eguraldiak ez du askorik lagundu. Eraginik izan du horrek turismoan?**

Eguraldiak beti dauka eragina, baita hemen ere. Nahiz eta saiatzen garen eguraldiak ez baldintzatzen gure turismo eskaintza, urte sasoi guztietan saiatzen gara turismoa erakartzen eta azkenaldian lortzen ari garela esan genezake. Beste leku batzuetan baino eragin txikiagoa dauka eguraldiak hemen, turismoaren aldetik. Hala ere, ostalariek eta sektorea, oro har, eguraldiari begira egotea normala da.

Oro har, zein da aurreikuspena udarako turismoari dagokionez?

Ona. Azkeneko urteak eta hilabeteak onak izan dira. 2013an errekorra hautsi genuen, milioi bat bisitari baino gehiagorekin. Eta 2014a hobeto hasi dugu. Udako daturik ez daukagu, baina jende asko dabil kalean eta okupazio maila ere handia da. Kontsumoa ere hazten doa, gainera.

Aste Santukoak datu historikoak izan ziren?

Bai, bai. Gainera, baserri turismoari dagokionez, bereziki onak izan ziren eta hori nabarmentzea merezi du.

Azkeneko hilabeteotan Gipuzkoak erakartzen ditu turista gehienak Euskal Autonomia Erkidegoan. Zergatik da hori?

Diputaziotik, Frantziako merkata zaindu dugu bereziki. Marketin eta sustapen kanpainen bidez-eta. Eta horrek izan du erantzuna, turista frantziarrak hazi egin direlako lurraldean; oro har, uste dut gipuzkoarrok konturatu garela turismoak geroago eta garrantzi handiagoa daukala. Eta hauek geroago eta hobeto zaintzen ditugu dendetan, ostalaritzan, herrietan... Horrek herri abegikor irudia ematen digu, ondo tratatzen dugula turista, eta horrek baditu ondorio



Jon Peli Uriguen Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

positiboak. Eskualdeko turismo agentziekin ere badihardugu lanean, esperientzia-pakete bereziak sortuta.

Ze pisu dauka turismoak Gipuzkoako ekonomian?

Jarduera ekonomiko oso garrantzitsua da, Barne Produktu Gordinaren %7,5.

Non jartzen duzue indarra estrategiak diseinatzerakoan?

Gastronomia da gure indargune garrantzitsua eta hainbat eskualdetan ere gastronomia ardatz duten politikak diseinatzen ari dira. Industria edo lan turismoa ere garrantzitsua da eta horretarako ditugu Kursaal eta Ficoba, eta hor ere indarra egin nahi dugu. Bestetik, kultura eta kirol turismoan ere bai.

Gipuzkoako Turismo Gida berria argitaratu duzue berriki. Zein da berritasuna?

"Eskualdeko turismo agentziekin dihardugu lanean, pakete bereziekin"

"Lan, kirol edota kultura turismoari garrantzia handia ematen diegu"

Eskaintza guztia bateratu eta esperientziak modu erakargarri eta bisualean aurkeztea izan da helburua. Eskaintzak errazago topa ditzan Gipuzkoa ezagutu nahi duenak.

Berrikuntza da zure ardurapeko beste departamentu bat. Berritzaileak izaten jarraitzen du Gipuzkoak?

Bai, datuek hori erakusten dute. Gipuzkoan, Berrikuntza eta Ikerketari eskaintzen zaio Barne Produktu Gordinaren %2,71. Erkidegoaren eta Europako batez bestekoaren gainetik. Egia esan, berritzaileago izan behar dugu, ez bakarrik teknologikoki, baizik eta lan egiteko moduetan, kudeaketan, eta abar. Munduko onenekin lehiatzen ari gara eta hauek %5 eta %7 inbertitzen dute alor horretan. Foru Aldundian ere geroago eta gehiago inbertitzen dugu horretan. Berrikuntza teknologikoa, zientzia eta teknologia sarea, ikerketa zentroak... Horiek izan dira gure apustuak.

Zertan gauzatzen da hori?

3 milioi euro bideratu ditugu unibertsitateetarako... Bestalde, berrikuntza ez teknologikoari edo kudeaketari dagokionez, garrantzitsutzat jo dugu.

Gipuzkoako enpresak berritzaileak dira?

Orokorrean bai. Baina lehiatzen ari dira dimentsioz askoz ere handiagoak diren enpresekin. Gipuzkoako enpresen ahulezia bada txikiegiak direla, eta inbertsioetarako, esaterako, baliabide

txikiagoak dituztela. Nahiz eta horrek badaukan alde ona ere: malguagoak dira. Enpresen nazioartekotze prozesuan ere inbertitu dugu. Proiektu dezente lagundu dira, betiere, deslokalizazioa helburu ez bada. Bestetik, kanpora doazen hemengo enpresak bertako beste enpresen traktore izan daitezen bultzatzeko laguntza lerroak ere badira.

Bidelaguna plana bultzatzen diharduzue. Ze aurrekontu dauka eta zein da helburua?

25 milioi euroko diru-partida bideratuko dugu enpresei laguntzeko. Bereziki enpresa txikiei zuzendutako edo horiengana heltzeko programa da.

Udalekin batera, enplegua bultzatzeko plana ere abian jarri duzue.

Eskualdeetako garapen agentziak edo agenteak ezinbestekoak dira lurraldea garatzeko. Eta horiei

"Adegik ere jarrera aldatu beharko luke, harremanak hobetzeko"

"Industria berritu behar bada, lehen sektorea ere berritu beharra dago"

inportantzia eta protagonismoa eman nahi diegu. Milioi bat euro pasako lerro bat onartu berri dugu oraingo astean enplegu politikak sustatzeko eta bultzatzeko eskualdeetan. Nitxo berriak identifikatzen laguntzeko, eta abar.

Langileek enpresetan duten parte hartzea bultzatzea bada zuen beste erronka bat. Ze alorretan bultzatu nahi duzue, jabetzan ere bai?

Bai, hori da helburua. Aurreko agintaldian hasi ziren asmo horiekin eta geuk indartu egin dugu egitasmoa. Izan ere, Europa mailan garatzen ari den egitasmo baten barruan gaude. Bai Jaurilaritza eta baita beste eragile batzuk ere badabilta horrelako mezuak eta politikak bultzatzen.

Zergetan onurak izango dituzte parte hartzea bultzatzen duten enpresek?

Bai, hobari batzuk aurreikusten genituen, langileendako ez ezik, akzioak saltzen zituzten enpresendako ere bai. Hori zen gure proposamen fiskala. Baina ondoren etorri zen EAJk, PSE-EEK eta PPK bultzatu zuten erreforma fiskala eta desagertu egin ziren hobari horiek.

Hobera egin dute Adegiren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko harremanek?

Hobetu beharko lirateke, baina horretarako Adegik ere jarrera aldatu beharko luke. Haien batzar orokorrean mezu katastrofistak botatzea helburu politikoeikin ez zaigu zilegi iruditzen. Harremanak badiugu, normalak dira, baina hedabideetan zabaltzen diren mezuak saihesten saiatu beharko genuke.

Landa Garapenari dagokionez, harremanak gaizto dira Diputazioaren eta baserritarren artean?

Uste dut erabili dituztela hedabideak haserre adierazteko. Baina funtsik bako haserre, nire ustez. Ezberdintasunak badaude, baina adostasunetara heltzen ari gara. Egurraren ustiapena garrantzitsua da, sektore ekonomiko bat dago hor. Baina pinuaren ordeztu beste espezie batzuk bultzatu nahi ditugu. Industria berritu behar bada, beste sektore batzuk ere, lehen sektorea, esaterako, berritu beharra dago. Hori da plan teamendua.

Elkarriketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



ZABALIK

ANARTZ
AGIRRE
goiena.net/
komunitatea/



Hassan

Hassan Ait Chaou berberea da. Marokoko Todrako zintzurren inguruan jaio zen. Bertan hazi zen eta bertan egiten zuen lan gurasoek zeukaten souvenirren dendan. Bizimodu lasaia zeraman, "prisa mata amigo" lelo ezagunaren tankeran.

Todrako zintzurretara euskaldun mordoa joaten da turismoa egitera. Bertako pareta bertikalak ezagunak dira eskalatzailleen artean. Villabona aldetik ere lagun kuadrilla batek ohi-koa zuen Marokora eta Todrara bisita. Hassanek gustuko zituen euskaldunak, bazegoen bi herrien arteko nolabaiteko lotura (badira euskara berbereratik datorren teoria edo usteak; *ama* edo *izarra*, esaterako, horrelaxe esaten dira berbereraz ere).

Uda batean Ainhoak Villabonako kuadrillarekin Marokora oporretara joateko plana egin zuen eta Hassanekin egin zuen topo. Elkarren artean magia berezia sortu zen eta maitemindu egin ziren. Ezkontzea pentsatu zuten, baina Hassanek ezin zuen Euskal Herrira etorri paper kontuak tarteko. Ondorioz, ahalorde bidezko ezkontza egin behar izan zuten. Hassanek bere lagun bati eman zion Ainhoarekin ezkontzeko boterea eta halaxe ezkondu ziren Ainhoa Euskal Herrian zela eta Hassan, berriz, Marokon.

Paper kontuak lotuta 2000. urtean iritsi zen gure artera Hassan. Gaur egun Villabonan bizi da Ainhoa bere emaztearekin eta Alaia alabarekin batera. Euskaraz bizi da, iturgina da ogibidez eta mendi korrikalaria afizioz. Korrika tabakoa uzteko aitzakian hasi zen Euskal Herrira iristean. Orduetik lasterketa mordoa irabazi ditu eta euskal selekzioko partaide ere bada.

Ipuina dirudi, baina egia berdade-roa da. Atzeritik etorri eta gure artean bertakotu daitekeen erakusgarri. Azkenaldian atzerritarrak gaitz guztien iturri diren uste zabalduaren kontrako istorioa. Izan ere, Hassanek dioen bezala: "Pertsona on eta txarrak herrialde guztietan daude".

"Euskaraz bizi da, iturgina da ogibidez eta mendi korrikalaria afizioz"

Itzul iezazkiguzue gure aurrezkiak! Fagorren eta Edesaren zati garrantzitsu bat zen eta da bideragarria

Mikel Olabe eta Asun Gonzalez
Debagoiena

FEDen likidazio prozeduran, zenbait enpresak –Cevital, CNA, Ecomac...– Frantzian, Eskoriatzan, Bergaran, Garagartzan, San Andresen, Basaurin eta, beharbada, Polonian kooperatibak dauzkan aktiboengatik aurkeztutako interesak eta eskaintzek, industri jarduerarekin jarraitzeko asmoz, erakusten dute denok genekiena: Fagorren eta Edesaren zati garrantzitsu bat zela eta dela bideragarria.

FED eta Edesa salbatzeko plana mahai gainean jarri zenean, FEDen zuzendaritzak, MCCren Kontseilu Orokorrak eta Batzorde Iraunkorrak eztabaidatu eta hasiera batean onartu zuten.

Bat egiten dugu Gipuzkoako ahaldu nagusiak esandakoarekin: kanpoko enpresentzat gure faktoriak bideragarriak badira, zergatik ez MCCrentzat?

Hala ere, hilabete batzuk igaro ondoren, goikoek, FEDen eta MCCoen zuzendaritzakoek, inolako azalpenik eman gabe, azterlanik egin gabe eta kideei kontsultatu gabe, kontrako ebazpena hartu zuten: FED jausten utzi eta Donostiako Merkataritza Epaitegian FEDen likidazio-konkursoaren bideari hasiera eman izana.

Zer gertatu zen hain epe laburrean hau bezalako aldaketa izateko?

Gaur, ez kooperatibako kideei ezta gizarteari ere ez zaizkie ebazpen honen arrazoiak eman.

Argi gera dadila: zorigaiztoko ebatzi hau FEDeko eta Mondragon Korporazioko goikoek bakarrik hartu zuten, kooperatibako kideok baztertuz.

Orain, konkursoaren bidez eskubide eta aurrezki horiek ukatzen zaizkigu FED jausten uzteagatik, bere aktiboen balioa gutxitu egin delako. Beren balioa %66 jaitsi da: 800 milioi eurotik 272 milioi eurora.

Bien bitartean, Mondragon Korporazioa ibili da propaganda gezurtia eta maltzurra erabiltzen esanez FEDen langabeak birkokatzen ari dela.

GUTUNAK

Mondragon Korporazioari argi eta garbi esan nahi diogu: FEDen eta Edesaren likidazioarekin ez da arazo hau amaituko; haiek duten erantzukizuna ez da konkursoaren bidez zurituko eta irtenbide bat eman behar diote egoerari. Behin eta berriro exijituko diogu Mondragon Korporazioari guk kooperatibari utzitako dirua itzultzeko. Kontuan izan dezatela.

Elkarlana... ostikoka?

Euge Arrizabalaga Olaiola
(Antzuolako EAJko zinegotzia)
Antzuola

Uztailaren lean osoko bilkura izan genuen Antzuolan, eta, ohikoa izaten denez, mozioak izan ziren eztabaidagai ugariena, nahiz eta *eztabaidagai* izateak ez duen berekin inolako eztabaidarik ekartzen, Bilduko alkate eta zinegotziek oso gutxitan hartzen baitute hitza ezer esateko. Total, zertarako: bozkatu eta kitteda.

Mozioetako batek, bere zioan, espetxe politika ezohiko eta mendekutzailea salatzen zuen, baina ebazpenean "herritarren mobilizaziorako deia" besterik egiten ez zuenez, abstenitu egin ginen. Gauza bat da Españaren jarrera bidegabea salatzea eta bestea, manifestara deitzea. Aurrenekoarekin ados, bigarregorako... ez al da ba nahikoa ezker abertzaleak egindako deialdiekin? Baietz dirudi, joan den urtarrilean Bilbon egindako manifestaziorako deia guk egin izana egokitze dugin bezala.

Azkenean, plenoko gairik garrantzizkoena Kutxa izan zen. Herritar bat azaldu zen eta galdetu zuen: "Ama, hitza hartu nahi badet, ze formatutan har dezaket?". Eta alkateak erantzun: "Eskari-galderetan". Hartu zuen hitza, luze, eta bazter guztietan entzuten ditugun salaketa, gehiegikeria eta purrustadak entzun behar izan genituen, eta, hala moduzko formatuan, erantzuten saiatu.

Beraz, Antzuolako udalbatzan, herri borondatearen ordezkariak mutu egonda ere, lasai, badago Permachen edo Barrenaren tesia defendatuko duenik eta.

EAJren kontra egiteko dena zaie baliagarri, eta, kasu honetan, baita Kutxari eta Kutxabanki (non gipuzkoarren aurrezkien %40 gordetzen den) eraso egitea.

Baina horrela, nola demontre lortuko dugu inoiz, besteak beste, Españako legeen menpekotasunetik ihes egiten duen euskal finantza sistema bat moldatzea ahalbideratuko digun marko juridiko propio bat sortzeko indarra?

Ze balio du Arraizen "elkarlanerako deiak", ezker abertzalearen estrategia osoa EAJri ostikoka jardutean oinarritzen bada?

San Martzial eguna

Ane Barruso
(Aranzadi ikastolaren izenean)
Bergara

Honen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu San Martzial eguneko kantina ustiatzen lagundu ziguten guztiei.

Eguraldi txarra baino txarragoa iragarrita egon arren, azpiegitura guztia antolatu beharra zegoen: sukaldea muntatu; salda, txorizoa eta kafea egin; erosketak: edariak, jatekoak, menajea; izotza lortu... inork ezer ez lapurtzeko gaua pasatu; tabernan nahiz sukaldean lan egin; iluntzean dena jaso; hurrengo egunean garbitu. Ez da lan makala San Martzialeko kantina antolatzea eta oso zaila jendearen inplikaziorik gabe. Horregatik eskerrak eman dizkiegu hau posible egin duten guraso, langile eta ikastola-zale guztioi hor egon direlako, beti bezala, lanerako prest, egunaren aurretik, egunean bertan eta baita ondoren ere, bakoitzak bere aletxoa jartzen. Mila esker.

Badira, baina, aletxoa baino gehiago jarri dutenak antolakuntza honetan eta bereziki eskertu nahi ditugunak:

- Bolintxori, eskainitako azpiegitura eta laguntza izotzen kontuan.
- Toldos Leteri.
- Goituko Mondoni.
- Deporreko Txus eta Ariznoako Juan eta Jose Mariri, larrialditik ateratzen laguntzearen.
- Betiko kuadrilla ezin hobeari (beraiek badakite zeintzuk diren), lanik zailenak eta astunenak hartzearen, sukaldea muntatu, salda, txorizo eta kafe goxo-goxoa prestatzearen.
- Udalari, azpiegitura uztearen eta kantina ustiatzeko aukera ematearen.
- Egun horretan kantinara zerbait hartzera gerturatu zineten herritar guztiei.
- Euria euri, bertan abesten eta kantina alaitzen aritu zinetenoi.
- Denoi mila-mila esker eta hurrengo arte.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otolara Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Eredaktore burua Uliane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otolara Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otolara Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otolara Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK

LEINTZ GATZAGA

Dorletako Amaren Arlabango aldare oparoa, Artium museoan

- ▶ Leintz Gatzagako amarekin lotutako erritualaren gaineko bi bideo daude erakusketa kolektibo baten
- ▶ Irailaren 21era bitartean egongo dira Gasteizen ikusgai, etengabeko buklean proiektatuta

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

La carretera eta *El bosque*. Izenburu horiekin bataiatu ditu Nerea de Diego artistak (Iruñea, 1974) Dorletako Ama Birjinaren gainean landu dituen zortzi minutuko bi bideoak.

Joan den astea ezker Artiumen daude biak ikusgai, *First Thought Best eremuak* (*Asmo Lehen Onena*) izenburua duen erakusketa kolektiboaren baitan. Museoaren ordutegian (beheko taulan) uneoro ikus daitezke Leintz Gatzagako Ama Birjinaren gaineko ikus-entzunezkook, etengabe dabilta-eta proiektatzen, bukle eran. Hain justu, beste hamabost artistaren lanek osatzen dute erakusketa kolektiboa. Eta irailaren 21era arte egongo da ikusgai, Gasteizko museoko Ekialde Beheko aretoan.

Elkarren osagarri

Arlaban mendatean egin ditu grabazioak artista iruindarrak. "Dorletako aldare horren inguruko irudiak agertzen dira. Ez dago narrazio linealik, ez da agertzen pertsonarik berba egiten. Da nik izandako esperientziaren ondorio bisuala edo plastikoa (...) Bi bideo dira. Batak besteari elkar laguntzen diote. Banaka, modu autonomoan funtzionatzen dute, baina kasu honetan bezala, bata bestearen ondoan jarrita daude, eta osagarri dira", esplikatu du.

la urtebete muntatzen

Grabazioak egiteko astebetean egon da Arlabanen De Diego. Goizero ibili da, joan-etorrian: "Goiza errepidean pasatzen nuen, pasatzen zen jendearekin berba



Nerea de Diego artista, berak landutako bideoen proiektzioaren ondoan, Artium museoan. | NEREA DE DIEGO

egiten, grabatzen, ikusten, zonatik paseatzen... (...) Jendearekin dudan harremana, nahiz eta ez grabatu, gero bideoan nonbait badago jasota. Ez nuen grabatzen guztia, baizik eta lekua ezagutu, jendea ezagutu, haiekin hitz egin, haiek kontatzen zizkidaten gauzak entzun... eta nik material horrekin guztiarekin egin dut nire lana", zehaztu du.



La carretera bideoaren irudi bat. | NEREA DE DIEGO

ESANAK

"Ofrenda pilaketa interesatzen zait niri"

NEREA DE DIEGO | ARTISTA

Erakusketa kolektiboa

First Thought Best eremuak programak ekoiztutako erakusketa kolektiboa da. 2014ko deialdian aukeratutako egileak biltzen ditu, *hemen* eta *orain* kontzeptuak nabarmentzeko asmoz. Erakusketa euskal arte-esparruari lotuta dago, eta erakusketa-formatuan aurkeztea eskatzen duten lan eta proiektuak agerraraztea du helburu, horrela harrera publikoko eremu bat aktibatzeko. Artistak hainbat belaunalditakoak dira, eta orotariko interesen arabera garatu dituzte euren prestakuntza-ibilbideak.

Bada, material guztia jaso ostean, ia urtebete eman du muntatzen, eta horren emaitza da Artiumen jarri dutena.

Ama Birjina oso deigarria

Artelan hori egiteko Dorletako Ama Birjina aukeratzeko arrazoia, berriz, Arlabango mendatean dagoen Ama Birjinaren aldea da. Edo zehatzago esanda, aldare horrek duen erakargarritasuna pertsona askorendako.

"Herri erlijiositatearekin egiten dut lan; batez ere interesatzen zaizkit Ama Birjinaren aldare herrikoiak. Asko daude. Nonahi. Baina Dorletako hau nahiko ikusgarria da. Batez ere, interesatzen zaizkidalako jendeak uzten dituen objektuak, ofrendak... horien pilaketak. Zentzu horretan, Dorletako Ama Birjina oso deigarria da. Zenbait garaitan dago gauzak gainezka. Ez zait horrenbeste Ama Birjina berez interesatzen, baizik eta jende askoren artean sortzen den instalazio anonimo hori. Errituala. Badago horra joan eta gauzak uzteko errituala. Txirrindulariek, adibidez, ur-botilatxoak uzten dizkiote. Bakoitzak jakingo du zergatik, ze interesengatik edo ze arrazoiengatik uzten dituen objektuak. Niri interesatzen zait pertsonen leku edo aldare horrekin duten erlazioa". Hori horrela, Dorletako Santutegiko irudia edo Dorletako Santutegia bera ez ditu bideoetan jaso artista iruindarrak.

Edozelan ere, hiru hilabetez, Leintz Gatzagako Amarekiko debozioa artelan bilakatu eta museoan izango da ikusgai.

ARTIUM: PREZIOA ETA ORDUTEGIA

Martitzenetik egubakoitzera:

11:00-14:00 eta
17:00-20:00.

Zapatuetan eta domeketan:

11:00-20:00 (etengabe).
Prezioa: 6 euro
(ikasle, langabe, erretiratu eta umek, borondatea).

Uztailean erakusketak
berrituko ditugu

FORD FOCUS
EcoBoost Motorra
Erakusketan dauden 1.500
auto prezio berezian

7.100€
-rainoko
deskontua



MUGARRI AUTOAK

Arrasate
Araba etorbidea z/s
tel.: 943795664

Ford Focus gama; batez besteko kontsumo konbinatua 4,2-7,2 l/100 km. CO2 emisioa 109-169 g/km.
Deskontua da erakusketan dauden auto batzuentzat bakarrik. Eskaintzaren barne daude BEZA, matrakulazio zerga, gamaioa, promozio-deskontua, kontzesio-ekarpena eta deskontua.
FCE Bank PLC SEnkin finantzatzearren Vente a Ford Credit kanpainaren bidez (24 hilabeteko gutxieneko iraupen-konpromisoa). Gobernuaren Pive planaren ekarpenaren mende.
Deskontu maximoa ezberdina izan daiteke modeloaren arabera. Penintsulian eta Balear uharteetan baliagarria hilabetea bukatu arte. Ez da bateragarria beste deskontu batzuekin.
Ikusten den modeloak ez dauka zertan eskaintzako izan. Ford.es

Udalaren apustua herriko enpleguaren alde egiteko

Interes publikoko lanak egiteko hamabi arrasatear kontratatuko dituzte, irailean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udalak hamabi kontratazio egingo ditu datozen hilabeteetan, enplegua sustatzeko planaren barruan. Herriko langabeak kontratatuko ditu interes publikoko lanak egiteko eta izen-emate epea izango da uztailaren 16tik 23ra. Lanbideko bulegoan edo webgunean eman beharko da izena.

Aldi baterako kontratazioak izango dira, sei hilabeterako, eta horien finantzazio eta kudeaketa guztia, %100ean, Udalak hartuko du bere gain. Kontratatutak irailean hasiko dira lanean.

Sei hilabeterako lanpostuak

Lan eskaintzan aurkezteko baldintzak dira Lanbiden izena emanda egotea eta Arrasaten errolatuta egotea gutxienez sei hilabetez. Lan bakoitzaren arabera ezaugarri jakin batzuk bete beharko dira, baina aurreratu dute batxilergoko titulua izatea gutxienezko izango dela.

Interes publikoko lanak burutzeko lan eskaintzak dira; besteak beste, digitalizaziorako teknikaria, neguko aterperako hezitzailea eta

DATUA

229.290

EURO

Horixe da hamabi kontratazioendako programaren aurrekontua; kostuaren %100 hartuko du Udalak bere gain.


hondakinen bilketa sistema berriarendako informatzailea. Lanpostu bakoitzaren gaineko informazioa Udalaren webgunean dago: www.arrasate-mondragon.org.

Programak, beste hiru lan-ildo

Kontratazioez gain, beste hiru lerrok osatzen dute enplegua sustatzeko plana. Lehena da herriko enpresetan herriko langabeak kontratatze laguntzak ematea. Udalak 100.000 euro bideratu ditu eta diru laguntza 2.250 eurokoa izango da kontratatutako pertsonako; 375 euro hileko, gehienez sei hilabetez pertsona beragatik.

Inazio Azkarragaurizar alkatearen arabera, "hainbat" enpresa zuzendu dira Udalera programa horren gainean galdetu eta eskaerak egiteko: "Diru laguntza eska dezake kontratatzen dituzten langabeak Arrasaten errolatuta badaude; garaiz dabilta, animatu aurkeztera". Beste lan ildo bat izan da Mondragon Unibertsitatearekin batera ekainaren 19an egin zen Lanbai azoka; 700 pertsona erakarri zituen eta alkatea pozik dago azokak eman zuenarekin: "Argi ikusi da erreminta oso eraginkorra dela".

Azkenik, programa barruan dagoen beste lerro bat da uda ostean martxan jartzea gura duten beka programa: "Titulatu berriei lehen lan esperientzia kualifikatua erraztu gura diegu eta enpresei titulatu berri horien gaitasun profesionala ezagutzeko aukera eman", adierazi du alkateak. Eki horretarako 50.000 euro bideratu ditu Udalak; irailerako erabat zehaztuta egongo da beka horien funtzionamendua eta orduan emango dute xehetasun guztien berri.



Udaleko bi langile igerilekua garbitzen, astelehenean. | JOKIN BEREZIARTUA

Igerileku txikia konpontzen ibili dira, "segurtasuna bermatzeko"

J.B. | ARRASATE

Hasi berri den udako kanpaina, Musakolako igerileku txikia buruhauste iturria ari da izaten Udaleko Kirol Zerbitzuarendako. Ekainaren 30ean hainbat umek ebakiak izan ostean igerilekua itxi egin zuten eta astelehenean eta martitzenean berriz ixtea erabaki zuten, "segurtasuna bermatzeko".

Zoruko baldosa txikiek eta txirrista berriaren amaierako pitzadurek eragin dituzte zauriak, eta horregatik erabaki dute txirrista kendu eta zoruko baldosa txikiak ondo lotzea: "Ez da normala horrenbeste zauri eta ebaki gertatzea; horregatik, igerilekua itxi eta segurtasuna bermatzeko erabaki dugu". Egu-

raldi eskasa aprobetxatu dute lanok egiteko, erabiltzaileen artean ahalik eta eragozpen gutxien eragiteko. Txirrista dela-eta erreklamazioa jarri dute: "Oraindik erantzunaren zain gaude. Betikoa da; bitartekariak daude eta horrek dena atzeratzen du", adierazi dute kiroldegiko arduradunek.

Eguraldiaren menpe

Egin duen eguraldi eskasaren eraginez, oso jende gutxi egon da igerilekuetan. Hala ere, arduradunek asmoa dute jende gutxi dagoen egunetan ere aurtengo nobedade nagusia den animazioarekin jarraitzeko. Txatxilipurdiren Freskura ekimenak ere aurrera segitzen du.

Iturbide egoitzako kaleratzea "neurrigabea" dela dio CCOOk

J.B. | ARRASATE

CCOO sindikatuak salatu du Iturbide egoitzan Eulen enpresako langile baten kontra gatzatu den kaleratzea "neurrigabea" dela. Sindikatuaren arabera, Eulenek eta Udaleko kudeatzailerak "zigor handiena" jarri diote langileen artean "ohikoa" den praktika batengatik: "Familia batek Iturbiden oso zabaldua dagoen praktika baten berri izan eta erreklamazioa jarri zuten, eta Eulenek praktika horri amaiera emateko diziplina-kaleratzea ezarri zion. Zigorra guztiz neurrigabea da langilea errudun egiten duelako zentroan

oso zabaldua dagoen jokaera bategatik. Langile guztiekin egoera hori berriro ez errepikatzeke jarraitu beharreko protokolo zuzena zein den azaldu beharrean, zigor handiena ezartzearen alde egin dute".

Udalak, bestalde, CCOOren bertsioa gezurtatu egin du: "Langile horren praxia onartezina da eta funtzionatzeko modua ez da, inolaz ere, ohikoa Iturbideko zein Euleneko langileen artean. Gainera, kexak ez ziren senitartekoen aldetik etorri, solairuko arduradunak eta lan-kideek eman zuten gertaera larri horren berri".


Aurten ere entzierro jendetsua udalekuetan

Udaleku irekietako entzierroak ez du hutsik egin aurten ere. Txatxilipurdiko hezitzaileek gidatutako zezenen aurrean egin zuten korrika 3 eta 12 urte arteko umeek. Entzierroa hasi aurretik San Fermi kantatu zioten eta Udaleko balkoitik suzuria jaurti ostean hasi ziren korrika, adinaren arabera bi taldetan banatuta.



ANE ELORDI

PUB HAIZEA



Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Bedoñako Loramendi elkartaren 50 urteak ospatzeko eguna etzi

Bedoñako Loramendi elkartaren 50. urteurreneko ospakizunen barruan, domekakoa izango da egun handia. Egitarau polita antolatu dute: Galarriarako ibilbidea 09:00etan elkartetik irten eta bertan amaituta –amaieran salda eta mokadutxo–, haur zein helduendako jolasak (10:15), meza (12:00), dantzak eta luntxa (13:00).

Gesalibarko Santa Ageda eliza berritua irekiko dute domekan

Elizako batzarrak aditzera eman duenez, Gesalibar auzoko Santa Ageda eliza berrituaren inaugurazioa domekan egingo da, hilak 13. Iaz hasi zituzten zaharberritze lanak, "behar-beharrezkoak" zirelako, eta, hainbat hilabetez itxita egon ostean, etzi irekiko dute. Meza berezia egingo da, 12:00etan, abesbatzak girotuta.

AZE: "Oso pozik gaude, jende asko etorri da, eta askotarikoa"

'Mondragoe beirazko plaketan' erakusketak, 6.500 bisita baino gehiago

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hilabetez Kulturateko klaustroan egon ostean, uztailaren 6an itxi zuten *Mondragoe beirazko plaketan* erakusketa. Arrasatek orain arte eman dituen argazki zaharrenak erakutsi dira, 108 erretratu. Argazkiok denoi erakusteko lan mardula egin duen Arrasate Zientzia Elkarteko kideek diote balorazioa egitea "oso zaila" dela: "Altxor bat baloratzea benetan da zaila. Hori esanda, neurketa egin dezakegu eta neurketarekin oso pozik gaude, milaka pertsonak bisitatu dutelako era-

kusketa. Jende asko etorri da, eta askotarikoa: jende nagusia eta gaztea, kirolariak, politikariak, elizgizonak...", dio AZEko bazkide Xabier Bengoak. Erakusketa irekita egon den egunetan, batez beste, egunero 300 lagunek bisitatu dute klaustroa: "Eta seguruenik, motz geratzen gara", dio Bengoak. Beraz, 6.500 lagundik gora erakarri ditu erakusketak hilabete baten.

Liburua "oso ondo" saldu da

Era berean, erakusketa irekitzearekin batera kaleratu zuten libu-

rua "oso ondo" saldu da: "Ale gutxi batzuk gordeta ditugu gure konpromisoetarako; sekulako esfortzua egin dugu eta erantzuna bikaina izan da. Erantzun horri esker elkarteak aurrera egingo du". Azken erakusketa horrek "pozez gainezka" utzi du herriko ondarea mantendu eta ezagutarazteko lan egiten duen elkarteak: "Milaka zorion-mezu jaso ditugu eta bitxikeriaren bat gertatu zaigu zoriondu gaituene-tako baten eskutik. Baina horren gainean irailean egingo dugu berba, elkarteko kideok batera



AZEkoak azalpenak ematen, hainbat herritarren aurrean. | IMANOL SORIANO

egingo dugun balorazioaren ostean", aurreratu du Bengoak.

Hurrengoa, gerraostekoa

Etorkizunari begira esku artean dituzten proiektuen artean dago 36ko gerraren ostean Arrasateko

industriaren eta komertzioaren egoera ikertu eta ezagutzera ematea: "Planoak, produktuak, argazkiak eta beste informazio gehigarri bat lortzen baditugu, oso proiektu berezia izango da gure historiarako".

'Funes Van', zirkua baino gehiago etzi Seber Altuben

J.B. | ARRASATE

Udazabal ekimenaren barruan, The Funes Troup taldearen *Funes Van* ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da domekan Seber Altube plazan (20:00). Taldearen lehen ikuskizuna da, baina espektakuluaren munduan eskarmen-

tu handia duten hiru lagunek osatzen dute. Ikuskizun "ausarta eta dibertigarria" izango da: "Ondo pasatzeko asmoz elkartu ginen, eta ederto pasatzen dugu. Horregatik uste dugu ikusleak ere ondo pasako duela", dio taldeko kide Mikel Larreak. Zirku teknikak



The Funes Troup-en *Funes Van* ikuskizunaren promoziorako argazkia. | MAHATU

erabiltzen dituzte: salto akrobatikoak, gogoratzeko dantzak eta ezohiko koreografiak, betiere umore dosi handiarekin. Karabana baten barruan iritsiko dira Seber Altube plazara: "Gure karabanatik irtengo dira istorio eta gorabehera guztiak, oso markatuta dauden pertsonaiekin".

Adin guztiendako ikuskizuna da, familia giroan ikusteko aproposa: "Ez dugu berba larregi egiten, ikusiz gozatzeko emanaldia da; edonorendako aproposa".



GAUR EGUNGO GALDERA GUZTIEN ERANTZUNA AUTO HONETAN



www.citroen.es



Citroenek nahiago du Total

Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 emisioa (g/km): Citroen C4 Cactus: 3,1-4,6 / 82-107

CITROEN C4 CACTUS BERRIA



Zergatik kontsumitzen dute horrenbeste motorrek? Zergatik ez dute zerbait asmatzen autoen ateak babesteko? Zergatik izan behar du hain konplikatu gida-panelak? Zergatik eseri behar dugu elkarrengandik urrun, elkarrekin bagoaz bidaian? Ondo pentsatuta, erantzun erraz batera garamatzate galdera horiek guztiak: Citroen C4 Cactus berria. Gaur egungo galdera guztiei erantzuten dien autoa. Gidatzeko modua irauli egin du eta erraz egiten du dena. Igo zaitez autora eta detaile bakoitzean igarriko duzu teknologia eta autoaren beraren diseinu intuitiboa; auto honek erantzun guztiak ditu.

BABES TERMIKO HANDIKO SABAI PANORAMIKOA KRISTALAREKIN 7"-KO UKIPEN-PANTAILA SOFA-ESPIRITUA DUEN ESERLEKUA
AIRBUMP AIRBAG ROOF TEKNOLOGIA MAGICWASH

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

TALLERES CHAPIME

San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Udalak eta Olaso Dorrea Fundazioak hitzarmena sinatu dute dorrearen lorategia zabaltzeko eta herritarrek zein kanpotik datozen turistek bisitatu ahal izateko. Hau da, herriko gainerako parkeak bezala, zabalik egongo da egunez, herriko ondarea herritarrei gerturatzeko, era berean, turismoa erakartzeko helburuarekin.

Hitzarmenaren arabera, zabaltzeaz gain, lorategia inguratzen duen hesi begetala –burdinazko itxituraren kontra dagoena– kentzea eta ikusmena galarazten duten landareak aldatzea ere adostu dute. Aldundiak udaberrian magnolia ikuskatzera egindako bisitan egindako proposamena aintzat hartuta, eta era berean, lorategiak jatorrian zuen itxura emanez. Eta Udaleko lorezain zerbitzuko langileek dagoeneko kendu dute hesi begetala, eta lorategia oztopo barik ikusi daiteke orain kanpotik.

Horrekin batera, Udalak herriko lorategi publikoetan egiten dituen diseinu, garbiketa eta mantentze-lanak ere egingo ditu dorrearen lorategian, Aparteko Zuhaitz izendapena duen magnolian izan ezik. Era berean, lorategia ireki aurretik, bertan dauden pieza apaingarriak –loreontziak eta beste zenbait elementu dekoratibo– babesteko neurriak ere hartuko dituzte; dagoeneko zehaztuta dago elementu mugigarri horiek nola finkatu –horrek atzeratu egin du apur bat hitzarmenaren sinadura– eta udal brigadako langileek egingo dute hori. Bada, lan horiek amaitu ondoren irekiko dute lorategia: "Irailerako ireki nahiko genuke", esan du Jaione Isazelaia alkatea.

Hitzarmena, esan bezala, dagoeneko sinatu dute. Aurreko asteko egunean sinatu zuten Jaione Isazelaia alkatea eta Jose Luis Elkorok, Olaso Dorrea Fundazioako lehendakariak. Horren aurretik, astelehenean, ohiko osoko bilkuran onartu zen hitzarmena, Udal Gobernu taldearen aldeko eta EAJren eta PSE-EEren kontrako botoekin. Hain zuzen ere, EAJ alderdiak "hitzarmenean irregulartasunak" salatu ditu: "Alkateak dagokion



Jaione Isazelaia –alkatea– eta Ramon Mendibil –Olaso Dorrea Fundazioako ordezkaria– lorategiaren sarreran. | T.M.

Olaso dorreko lorategia zabaltzeko egingo dute herritarrek erabiltzeko

- Hitzarmena sinatu dute Udalak eta Olaso Dorrea fundazioak horretarako
- EAJ alderdiko Udal taldeak irregulartasunak salatu ditu hitzarmenean

batzordeari informaziorik eman gabe, eta aurretik udalbatzan proposamenik aurkeztu gabe, udal langileei erakunde pribatu baten lorategiak zaintzeko agindua eman die", esan dute EAJko ordezkariak prentsa oharrean.

Akordio positiboa

Isazelaia alkatea pozik dago hitzarmenarekin. "Uste genuen lorategia oso interesgarria zela bai ondare zein turismo aldetik, eta baita aisialdirako herritarren eskura jartzea ere. Hala, trami-te batzuen ondoren, adostasuna iritsi ginen Fundazioarekin". Horrekin guztiarekin, "herriarendako oso albiste ona" dela uste du Isazelaia.

Olaso Dorrea Fundaziotik ere oso irakurketa ona egin dute. Olaso Dorrea Fundazioako lehendakari Jose Luis Elkorok azaldu duenez, "alde biko iniziatiba" izan da eta emaitzaren "oso balorazio positiboa" egin du. Eta gehitu du: "Fundazioaren helburuetan dago bere ondarea –dorrea bera eta bere edukia– herriaren zerbitzura ipintzea, eta hau aukera polita izan da horretarako. Fundazioaren helburuak betetzeko bidean jarri gaitu honek. Oso lorategia ederra da eta herritarrek zein herriaren irudiak irabazi egingo dute berau zabaltuta".

XIX. mende erdikoa

XIX. mende erdialderaino egin behar da denboran atzera lorategi horren sorrerara iristeko. Olaso etxeak, bere inguruko lursailaz aparte, sail batzuk zituen goiko plazaren beste aldean, Errekalde jauregiaren eta Magdalenako ospitalearen –gaur egun epaitegia– lurrekin muga egiten

zutenak. Bada, goiko plazaren ostean zeuden lursail haietako batean zeukan Olaso etxeak lorategia, XVII. mendean.

Baina XIX. mendean aldatu egin zen egoera. 1855 eta 1863. urteen artean, aurretik existitzen ez zen Komenio kalea zabaltzeko zuten eta epaitegia eraiki zuten. Orduan sortu zen Olaso dorrearen lorategiak gaur egun betetzen duen espazioa. Lekuak baratze izateari laga zion eta lorategi txiki bat sortu zen bertan, dorreak orduan zeukan hiru solairuko

etxe-egutera edo galeriaren sarbide zena.

Duela hiruzpalau hamarkada, esandako hiru solairuko etxe-egutera erautsi zen eta gaur egun haren lehen solairuko harrizko arku bat eta lorategitik etxe-eguterarainoko harrizko eskailerak baino ez dira gelditzen.

Balio handiko lorategia

Olaso dorreak, gaur egun Jakiumde Zientzia, Arte eta Letren Akademiaren egoitza denak, monu-

mentu izendapena du 2003a ezker. Baina eraikinak ez ezik, lorategiak ere badu babes berezia. Alde batetik, 2009ko Udaleko Plan Orokorrean lorategiari osotasunean aitortzen zaiona; hau da, udal mailako babesa duten ondasun higiezin zerrendan jasota dago, bere balioagatik. Bestetik, lorategian dagoen ehun urtetik gorako magnolia ere babestuta dago; hain zuzen ere, Aparteko Zuhaitz izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak 1995ean.

Udaleko museologo Xabier Aranburuk egindako txostenak ere agerian lagatzen du Olaso dorreko lorategiaren balioa; "dudarik ez dago balio handi eta ugari dituen lorategia dela", jasotzen du txostenean. Bertan azpimarratzen duenez, "lorategia herriko txokorik erakargarrien, ebokatzailenen eta deigarrien artean dago. Kasko historikoaren erdian kokatuta, ondare aldetik balio handia duten elementu bakunak ere gordetzen ditu".

Eta honela deskribatzen du lorategia: "Lantza itxura daukaten burdinazko balaustada doto-rez dago inguratua. Lorategirako sarbidea burdin sare eder batek babesten du, hori ere lantza forma duen balaustadez osatua. Burdin sare horren alboetako pilareen gainean burdinazko loreontzi ederrak eta landaredunak daude, XIX. mendean ohikoa zen moduan".

Espazioak duen "kutsu erromantikoa" ere aipatzen du Aranburuk bere txostenean: "Lorategiaren barruan berehala nabaritzen da landaretza ugariak ematen duen freskotasun lasaigarria eta usain goxo askoren aberastasuna. Espazio horrek kutsu erromantikoa dauka, landaretza burdinarekin eta harriarekin nola nahasten den ikusita. Burdinazko loreontzi bilduma ederra dago bertan, guztiak landaretzarekin, eta horietatik gehienek lehengo etxe-eguterara

Magnolia, Aparteko Zuhaitz izendatuta

Eguaztenean Gipuzkoako Foru Aldundiko adituak izan ziren gurean, Olasoko lorategiko magnolia ederra ikuskatzen. Lorategiak duen elementu aipagarrienetako bat da. Eusko Jaurlaritzak maiatzaren 16ko 265/1995 dekretuaren bitartez, EAEko 15 zuhaitz Aparteko Zuhaitz izendatu eta babestu egin zituen eta Olasoko magnolia horietako bat da.

Juan Pagola Aldunditik etorritako biologoak esandakoaren arabera, Diputazioak Aparteko Zuhaitz izendatutako 10i egiten die jarraipena, gaur egun. Urtean behin egiten diete errebisioa eta horretara etorri ziren eguaztenean.

Pagolaren esanetan Olasoko magnoliak 150 bat urte ditu, "zoragarria" da eta herrigunean egoteak garrantzia berezia ematen dio. Jatorriz AEBetako delatza gehitu zuen, baina "bere espeziean, hemen dagoen



Adituak magnolioari azterketa egiten. | AMAIA TXINTXURRETA

handiena". Gainera, Aldundiaren ardurapeko Aparteko Zuhaitzen artean magnolia bakarra dela gehitu zuen.

Egoera onean dago

Zuhaitzean goraino igo eta adarrak aztertu zizkieten eguaztenean egindako errebisioan, loturak ikusi, egurra zartatuta dagoen ala ez begiratu... Azterketa osoa egin

zioten Olasoko lorategiko magnoliari.

Neurtu ere egin zuten eta 24 metroko altuera dauka: "Arbola harrigarria da, espezie honetan harrigarria", berretsi zuen Pagolak. Eta garrantzitsuenak, osasun egoera onean dagoela ondorioztatu zuen eta gehitu zuen: "Beste 150 urte egiteko, lasai bizi izaten laga behar zaio".

ESANAK

"Bergarako herriarendako oso albiste ona da lorategia zabaltzea"

JAIONE ISAZELAIA | ALKATEA

"Herritarrek zein herriaren irudiak irabazi egingo du lorategia irekita"

OLASO DORREA FUNDAZIOA

edo solanara ematen duten har-mailak apaintzen dituzte".

Balio handiko hiru elementu
Baina guztien artean, balio handiko hiru elementu azpimarratzen ditu Xabier Aranburuk: alde batetik, Jesusen Lagundiaren armarría, Seminarioa jesuiten eskola zen garaikoa eta jesuitak 1767an kanporatuak izan zirenean jesuiten eskolako fatxadatik kendu zena –Seminarioaren jatorrizko fatxadatik, gaur egungoa 1867koa da-eta.

Hain zuzen ere, Seminarioko eliza eta eliza horren jatorrizko

fatxadan zegoen eta orain Olaso dorrean dagoen armarri hori dira XVII. eta XVIII. mendeetako Jesusen Lagundiaren ikastetxetik gelditzen diren arrastorik aberatsenak.

Azpimarratzeko bigarren elementua jesuiten armariaren gainean dagoen armarri heraldikoa da, ondo landua eta barroko garaikoa; seguru asko, XVII. mende bukaerakoa.

Hirugarrena, berriz, 1995 urtean Eusko Jaurlaritzak Aparteko Zuhaitz izendatutako magnolia da –beheko koadroan jasota.

"Akordioan irregulartasunak"

EAJk "irregulartasunak" salatu ditu Udalak eta Olaso Dorrea Fundazioak sinatutako akordioan. Bidalitako prentsa oharrean diotenez, EAJko udal taldea, "beste behin ere, kezkatuta dago legealdi honetan ohiko bilakatu diren Udal gobernuaeren jardunaren irregulartasunengatik, kasu batzuetan legez kanpoko jarduna ere izan dena". Eta gehitzen dute: "Alkateak maiatzean Udal lorezainei agindu zien Jose Luis Elkorok zuzentzen duen Olaso fundazio pribatuko lorategiak konpontzeko eta zuhaitzak mozteko. Hori aurretik dagokion, eta duela hiru hilabete deitu ez den, batzordean informaziorik eman gabe eta oposizioko zinegotziei informaziorik helarazi gabe. Bilduk udaletxea bere lanabes gisa erabiltzen du, inor kontutan hartu gabe gobernatuz eta oposizioko alderdiei informazioa ezkutatzuz". Eta gehitzen dute: "Udal langileak erakunde pribatu honen lorategietan lanean ari zirela jakin genuen herritarrek ikusi eta esan izanagatik".

Horrekin batera azaltzen dute ekainaren 30eko osoko bilkuran "daturik ez ezkutatzeko eta erabat garden izateko" eskatu ziotela Gobernu taldeari; "baita euren proposamenak alderdi guztiak ordezkatuta dauden informazio batzordean aurkezteko ere".

Halaber, gehitzen dute alkateari eskatu diotela "herritarrei azaltzeko zer egiten duen bergararren poltsikotik bildutakoarekin, bereziki udaletxeko baliabide eta langileak udalgintzakoak ez diren ekimen pribatuetarako erabiltzen dituenean".

Azkenik diote, osoko bilkuran beharrezko txosten teknikoak aurkezteko eskatu ziotela Gobernu taldeari, "nonbait txosten horietan oinarritu baita aipatu erabakia hartzeko". Halaber, herriko beste lorategien azterketa egiteko ere eskatu zutela azaltzen dute, "horrela Olaso fundazioko lorategietan aurrera eramandako ekimen bera herriko lorategietan ere martxan jarri ahal izateko".

Alkatearen erantzuna
Udal langileek lorategian egindako lanei dagokienez, honela azaldu ditu Isazelaia alkateak: "Ahozko akordioa bagenuen Fundazioarekin eta hesi begetala ahalik eta azkarren kendu nahi genuen turistak egunero datozelako eta lorategia ikusteko moduan jartzeko. Aktuazio oso sinplea izan da; egun baten kendu zuten gehiena eta geratzen zen zatitxoa orain kendu dute". Eta zehaztu du: "Hori egin zen ahoz adostuta zegoenean hartzarena sinatzea. Gertatu dena da, konturatu ginenean bazirela balioa zuten elementuak lorategian, hartu beharreko babes neurriak definitzeak atzeratu egin duela sinadura".

Bestalde, hori guztia "batzordean aditzera" eman zela esan du Isazelaia alkateak, eta Iñaki Irizar Ondare eta Turismo teknikariak berretsi egin du hori: "Batzordean azaldu zen bazirela, dagoeneko, lanak Olasoko lorategia publikora zabaltzeko. Nola arloko teknikoak txosten bat egin zuen haren balioa azaltzen, baina gero, lanean hastean, ikusi zela bazirela elementu batzuk babestu beharrekoak. Eta bigarren txosten horrek atzeratu du guztia, bestela azkarrago joango zen".

Agorrosingo kirolguneko ur kontsumoa txikitu egin dute, instalazioak berrituta

Erabiltzaile kopurua hazi egin den arren, orain ur gutxiago kontsumitzen da

MAIALEN TORRES | BERGARA
Ur eta energia kontsumoa murrizteko lanak iazko martxoan hasi baziren ere, irailean hasi ziren aurrezte neurriak aplikatzen. Orain, hilabete batzuk igarota, pozik agertu dira kirol ardura-dun eta teknikariak, pixkanaka neurria hartu baitiote aurrezte sistemari. Dena den, kontsumoa murriztea denon esku dagoela azpimarratu zuten martitzenean egindako prentsaurrekoan.

143.000 euroko aurrekontua izan duen proiektuaren oinarrietako bat uraren deklorazioa izan da. Horretarako, lehen zegoen deposituaz gain, beste bat jarri dute, eta horien bidez, erabiltzen den ur guztiari kloroa kentzeko gai dira orain.

Besteak beste, komunetako zisternetan, ureztatzean eta Agorrosin kanpoan dagoen bizikletak garbitzeko gunean berrera-biltzen dute igerilekuetako ura.



Lauri Askargorta. | MAIALEN TORRES

Aurrezte neurrien aurretik uraren %30 berrera-biltzen zuten, baina emaitzak asko hobetu dituzte. Aurten, neurri berriei esker, %50 inguru berrera-bili ahal izan dute (512 m3).

Era berean, berrera-biltzen ez den ura erre-kara isurtzen

dute, Ur Kalitate Agentziak finkatutako baldintzak errespetatuta, eta inongo klororik gabe. Orain arte, ur berriztatze gehien spa-gunean eta igerileku txikian egiten zuten. Aurrerantzean, UVA izpidun filtro berri bat jarrita: gune horietako ura lanpara batzuetatik pasatzen da, eta horiek igortzen dituzten UVA izpiek uretan dauden bakteriak hiltzen dituzte, eta ur zikina garbi bihurtu.

Energia ere bai

Uraz gain, energia ere aurrezten dute; esaterako, igerilekuan erabilitako ur zaharra sartuko duten ur berriaren tenperatura igotzeko erabiltzen dute, berotzen energia txikiagoa gastatzeko.

Udaleko Kirol teknikari Iñaki Ugartebururen esanetan, datuek frogatzen dute "instalazioen eraginkortasuna hobetzen" ari direla.

Domekan borobilduko dituzte sankristobalak Aldai-Egia auzoan

I.G. | BERGARA
Joan den egubakoitzean festei hasiera eman eta gero, atzo ospatu zuten San Kristobal jaien egun handia.

Hala, lehenengo bi egun hauetako ekitntzen eta parranden ostean, auzotarrek etzi amaituko dituzte festak.

Angiozartarren kontrako pikea
Jaiak berritzeko asmoarekin, Aldai-Egiako auzotarrek angiozartarren kontrako lehen herri kirol saioa egingo dute zapatuan, 19:00etan. Antolakuntzatik azaldu dute apustuak egin daitezkeela, betiere, auzoaren alde egiten badira.

Egitarruan zehazten den moduan, "jaietan egindako bekatutxoak barkatzeko esperantzaz" meza izango dute, 11:00etan. Ondoren, auzoko erretiratuen-tzako luntxa egongo da eta nahi duen guztiak autoa bedeinkatzeko aukera izango du.

Domeka eguerdia girotzeko, gainera, *Bihurri*-k herri kirol erakustaldia egingo du, eta Bergarako Trikiti Eskolako musikariek doinua jarriko diote San Kristobal jaien amaierari.

Gure Esku Dago taldeak bilera informatiboa egingo du astelehenean

Arratsaldeko sei eta erdietan bilera informatiboa eta batzarra egingo ditu herriko Gure Esku Dago taldeak Irizar jauregian. Bada, bertan, giza katearen balorazioa egiteaz gain, herriko kilometroan grabatutako bideoa aurkeztu, eta hurrengo pausoak zehaztu nahi dituzte bertaratzen direnen artean.

Xabalote gaztelekuko uztailleko irteeren izen-ematea zabalik

Uztailaren 20an Arcachongo uretako parkera joango dira gaztelekuko kideak eta hila-ren 26a eta 27a Urbasako kanpinean igaroko dituzte. Hurrenez hurren, izen-emate epea 17an eta 23an amaituko da. Gaztelekuan edo Jarduneko bulegoan eman daiteke izena.

Gertuko antzerkiaz gozatzeko aukera bikoitza izan da

Zirko Atrezzok mugimenduz betetako gorputzak, zirku garaikidea eta antzerkia nahasten dituen *Tira y afloja* ikuskizuna erakutsi zuen eguaztenean. Egun bat geroago, berriz, Mikel Laskurain aktoreak sindikatu baten tripak erakutsi zituen *Konga* antzerki komikoan.



Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

Eguaztenean zabalduko dute txokolatearen interpretazio zentroa

Orbea etxea zegoen eraikinean egongo da aurrerantzean Txokolateixia

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Orain arteko Txokolateixia den-datxoaren parean, lehen Orbea txokolatea egiten zuten tokian zabalduko dute Txokolateixia berria. Denda bakarrik izan barik, baina, interpretazio zentroa eta museo txiki bat ere izango da.

Juanito Zahor

Datorren eguaztenean, hilak 16, inauguratuko dute lokala. Anton Azpiatzuk gertutik jarraitu ditu lanak eta zabalteko ilusioz dago: "Txokolatea usaindu ere egin ahal izango da gero. Txokolatea egiteko behar diren osagaiak eta prozesu ezberdinen ostean osagai horiek hartzen duten forma, kolorea eta usaina ere ikusi eta usaindu ahal izango da hemendik

aurrera. Izan ere, usain diferentia du kakaoak, esaterako, tostatu aurretik eta ostean. Gainera, hotzean edo berotan ere aldatu egiten da usaina eta hori guztia erakusteko moduan egongo gara orain. Pozik nago".

Txokolateixa berriaren erakusketa gelak 75 metro karratu inguru ditu eta era guztietako informazioa jasotzen du. Txokolateari lotua dena, noski. Esaterako, Oñatin garai batean egon ziren zazpi txokolate etxeen inguruko informazioa dago, argazki zahar eta guzti. "Ikusten da, adibidez, lehen denek egiten zutela txokolatea armadarendako. Kurio-soa da", dio Anton Azpiatzuk. Txokolateak kirolean izan duen islaren adibideak ere badaude,

esaterako, futbolearen, txirrindularitzan, mendian eta saskibaloian. Produktu hori zinemarekin eta margoekin lotutako adibideak ere ikusgai daude eta baita lehengo kromo bildumak ere; Juanito Zahor ilargira joan zeneko bilduma, esaterako.

Turismo Bulegoarekin

Hemendik aurrera, baina, Turismo Bulegoarekin elkarlanean jardungo dute, kanpotik datozen bisitei txokolatearen berri emateko. Oinatur kooperatibarekin berba egin dute dagoeneko. Ikas-tetxeekin ere hitz egingo dute, umeen bisitak antolatzeke. "Erakusleho txiki bat ere badugu eta lehengo bidetik jarraituko dugu", gaineratu du Azpiatzuk.



Anton Azpiatzuk, Txokolateixia berria erakusten, eguaztenean. | O.E.

EAJk alegazioa jarri dio San Martingo plan partzialaren aldatetari

Bilduren asmoak araudia ez duela betetzen dio

Jeltzaleek azpimarratu dute bat datozela Udal Gobernuaren plan partziala aldatzeko arrazoiarekin, baina Bilduk egindako proposamenak araudia ez duela betetzen berretsi dute, eta horregatik jarri diotela alegazioa aldaketa horri. EAJko udal taldeak Udal Gobernuari eskatu dio plan partzialaren behin betiko aldaketa ez onartzeke eta aurreikusitako 49 etxebizitza berrietatik 32 babes ofizialekoak izateko. "Arrazoi dute, adibidez, aurreikusitako etxebizitza libreak handiegiak direla eta egungo eskariei erantzuten ez dietela esaten duenean, baina argi

utzi nahi dugu arrazoiekin ados egon arren, Bilduren gobernuak egindako proposamenak ez duela legedia betetzen, ez kasu honetan aplikatu behar zaion 1994ko lur-zoru legedia, ezta egungoa ere", adierazi du Lourdes Idoiak.

Hala, "oñatiarren interesak eta bereziki San Martingo etxebizitza erostera doazen familien interesak defendatzeko", EAJk Udal Gobernuari eskatu dio plan partzialaren behin betiko aldaketa ez onartzeko. EAJk dio aurkeztu duen alegazioa "legezkotasunaren eta oñatiar guztien interesen defentsan" egin dutela.

Bizikleta nola konpondu ikasteko tailerra

O.E. | OÑATI

Bizikleta konpontzeko tailerra antolatu du Txirrinka elkarteak. Hamar ordukoa izango da, lau egunean banatuta.

Saio bakoitzean teoria eta praktika irakatsiko dira eta Zubillagako Olaburu zentroan izango dira, 18:00etatik 20:30era, egun hauetan: uztailaren 14an, 16an, 21ean eta 23an. Zortzi lagunendako tokia bakarrik dago ikastaroan, eta ize-na emandakoen ordena kontuan hartuko da. Prezioa: 10 euro bazkideek eta 15 euro ez direnek. Izena emateko helbidea: txirrinka@gmail.com.



Duela bi urte ere jarri zuten mahaia eta materiala. | GOIENA

Busti Zaitetz eguna domekan, esklerosia zer den azaltzeko

O.E. | OÑATI

Esklerosi anizkoitza zer den azaltzeko eta horri aurre egiteko dirua batzeko eguna egingo dute domeka goizean Oñatin. Bigarren urtez antolatu dute, eta Gipuzkoako elkarteak kideez gain, oñatiarrak ere egongo dira Foruen plazan jarriko duten informazio mahaian.

Laguntza

Informazioaz gain, Kukuxumuxu etxeak propio diseinatutako kamisetak ere izango dituzte salgai. "Ademgi elkartearendako izango da domekan batuko dugun dirua. Esklerosi anizkoitza dugun gipuzkoarren elkartea da Ademgi eta zerbitzu asko eskaintzen ditu. Logopedak

eta psikoterapeutak ditu elkar-teak, adibidez, eta gaixotasuna dugunondako oso beharrezkoak dira, gure egunerokotasuna hobetzen laguntzen digutelako. Gainera, hilean behin, Donostiako kiroldegi batera ere joaten gara, hango igerilekuan arietak egitera. Hori guztia ordaindu egin behar da, eta horretarako izango da kamisetak salduta lortuko digun dirua. Krisi garai honetan diru laguntzak ere gutxitu egin dira, eta diru sarrera hau ere ongi etorria izango da", dio Jose Luis Calvo oñatiarrak.

Ademgi elkar-teak emandako datuen arabera, egun 600 lagunek dute esklerosi anizkoitza Gipuzkoan.

Saint Laryn eta Hautacamen bukatuko diren Tourreko etapak ikusteko irteera antolatu dute

Uztailaren 23an Saint Laryn eta 24an Hautacamen bukatuko diren Tourreko etapak ikusteko irteera antolatu dute Markel Irizarren, Aitor Garmendiaren eta Jon Odriozolaren lagunartek. Izen-ematea zabalik dago eguaztenean arte, hilak 16. Aurten, 17 urtez beherakoek 75 euro ordainduko dituzte eta gorakoek, 150 euro. Lizarralde Kirolak dendan eman behar da izena.

Ondarroako eta Getaria-Zarautz itsas zeharkaldietan ere egongo dira oñatiarrak

Lekeitik itsas zeharkaldiarekin, ekainaren 28an, hasi zuten aurtengo denboraldia Txantxiku Igeriketa Taldeko kideek. Joan den astean Deban izan ziren eta bihar, zapatua, Ondarroako zeharkaldian ere parte hartuko dute. Baita datorren asteburuan egingo den Getaria-Zarautz proban ere. Gainera, Xabier Gordoak hirugarren egin zuen Bilbon eta bosgarren Deban.

Gaur iluntzean jaitsiko da Astotrasto Trianara, eta jaiek domeka gauera arte iraungo dute

19:00etan jaitsiko da Astotrasto Trianara Trikitxarangak lagun-duta eta domeka gauera arte jaiak ospatuko dituzte auzo horretan. Adibidez, Luhartz, Trikimailu eta TrikiDantz taldeek giro-tuko dituzte gauak. Jolasak ere egongo dira, ume zein nagusien-dako. Baita ardo eta moxal-okela dastatzea ere. Bihar, tirolina, rappela eta *slacine*-a dituen abentura parkea muntatuko dute.

Josu Zubia eta Aitor Regueiro abeslariak kontzertua egingo dute bihar Iturri pubean

Josu Zubia eta Aitor Regueiro abeslariak kontzertua egingo dute bihar, zapatua, Iturri pubean. Josu Zubiak aurreratu duen moduan, eurek sortutako kantua abestuko dituzte, batik bat, baina beste bakar-lari batzuen bertsioak ere kantatuko dituzte. Josu Zubiak Argitzal taldearekin batera joko du. 19:00etan hasi-ko da emanaldia.

Izaro Sanchezek egin du Andramaixak iragartzeko kartela


Egitaraua lotuta dago; Anje Duhalde eta Hesian izango dira, besteak beste

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aukeratu dute Andramaixetako egitaraua osatuko duen kartela. Izaro Sanchezek (Aretxabaleta, 1987) egin du, eta 300 euroko saria jaso. Dantzaria, zezena, kanpandorrea eta suzko errubarak irudikatu ditu jaiak iragartzeko.

Anje Duhalde eta Hesian

Egitarauko azala bakarrik ez, egitaraua bera ere dagoeneko zehaztuta dauka Kultura Sailak. Jai batzordea apiril inguruan hasi zen bilerak egiten urrira bitarteko jai guztiak antolatzeke asmoarekin. Hamar bat lagun elkartu dira bilera horietan, horien artean Gazte Ekimeneko eta musika eskolako ordezkariak, eta gertu dituzte Andramaixak. Berrikuntza askorik ez da egongo; izan ere, urtero arrakasta duten ekintzak mantenduko dituzte, hala nola sokamuturra,



Kartel irabazlea. | IZARO SANCHEZ

txirrindulari lasterketa, herri bazkaria eta kuadrillen arteko jolasak.

Berrikuntzarik handienak kontzertuei dagokie. Anje Duhal-

de eta Hesian izango dira Herriko Plazako oholtzako protagonistak eta Arkada Social, The Potes, eta Niña Coyote eta Chico Tornado, txosnagunekoak. Horiekin batera, afrikar perkusioa, mariatxien doinuak, txaranga eta Milagroko banda izango dira jaiak girotzen.

Jaiak girotzeko esaldirik ez

Bestalde, Andramaixak girotzeko esaldi lehiaketara ez da inor aurkeztu. Antolatzaileen esanetan, "metodologia" aldaketa izan daiteke horren arrazoiak: informazioa kartel bidez bakarrik eman izana; saria dirutan eman beharrean Aretxabaletako establezimenduetan gastatzeko txartela izatea, eta kopuru txikiagoa, hau da, 100 euro; eta esaldiarekin eranskailuak egin beharrean pankarta egingo dela iragartzea. Kontuak kontu, ez da esaldirik erabiliko.

tan, ontzi arinak; eta domeketan, organikoa. Pixoihalak, konpresak eta antzekoak egunerok ateratzen dira.

Hondakin organikoen ontziari poltsa konpostagarria jarri ahal izango dio gura duenak. Poltsa horiek eros daitezke Jon harategian eta Mari Merke bazarran. Errefusaren ontzian, ostera, edozein poltsa jar daiteke.

Edukiontzia kendu

Astelehenean kendu egingo dituzte kalean dauden hainbat edukiontzi: organikoaren marroia, zaborraren berdea, paperaren urdina eta ontzi arinen horia. Hiru geratuko dira: beirarena; ehunkiena; eta olioarena.

Argibideak informazio gunean

Atez atekoaren funtzionamenduari gainera argibideak emateko aldizkaria banatuko du Udalak, astelehenean. Dena den, edozein zalantza izanez gero, Durana kalean dagoen Hondakin Informazio Gunean jo dezake herritarrek: *hondakinak.aretxabaleta@debagoiena.com* edo 943 25 06 82.

Atez ateko hondakin bilketa astelehenean hasita

Zapatuetako ordutegia aldatu egin dute eta ontziak ateratzen behar dira 19:00etatik 23:00etara

M.A. | ARETXABALETA

Atez ate hasiko dira jasotzen hondakinak astelehenean aurrera. Aldaketa izango da aretxabaletarrendako, baina lasai hartzeke esan du Lore Martinez Axpek, Ingurumen zinegotziak: "Bosgarren edukiontzia erabili dutenek ez dute inolako arazorik izango. Eta hori egin ez dutenak ere lasai egon, oso samurra da-eta".

Atez atekoa abian jartzeko Iñaki Errazkin Ingurumen eta Lurralde Antolamendu diputatua eta Ainhoa Iraola Aldundiko Ingurumen zuzendaria etorriko dira, astelehenean. Txarapean dagoen auzo-konpost gunearen alboko esekitokietan elkartuko dira, 18:00etan, eta Udalak herritar guztiak gonbidatu gura ditu atez atekoaren ongietorri ekitaldi horretara.

Gune guztietan abian

Gune guztietan jarriko da abian atez atekoa. Industrian lehenengo; izan ere, 08:00etarako ateratzen beharko dituzte ontziak haiek; eta komertzioetan gero, 10:00etarako aterata. Hona bi gune horien dako egutegia: astelehenean, papera; martitzenetan, organikoa eta kartoia; eguaztenetan, ontzi arinak; eguenetan, organikoa eta kartoia; egubakoitzetan, errefusa; eta zapatuetan, organikoa eta kartoia.

Herritarrek, ostera, 19:00etatik 06:00etara aterako dituzte ontziak, zapatuetan izan ezik; orduan, 19:00etatik 23:00etara. Hona egutegia: astelehenean, papera eta kartoia; martitzenetan, organikoa; eguaztenetan, ontzi arinak; eguenetan, errefusa; egubakoitzetan, organikoa; zapatue-



GAZTELEKUA

Mendira eta kostaldera egun-pasa

Gaztelekuko kideek astean jarri dute abian Udaero (Eskoriatzako eta Arrasateko gazteekin batera), eta, eguraldia lagun ez izan arren, geratu barik dabilta hara eta hona. Astelehenean, esaterako, Kurtzebarri izan ziren eta martitzenean, kostaldean: Zarautzen Donejakue bidea hartu eta Zumaiaraino ibilaldia. Ez dira gazte asko elkartu lehen egunotan, baina giro polita sortu dela jakinarazi dute.

OHARRAK

VILLABUENARA IRTEERA

Euskararen Eguna ospatuko dute Villabuenan (Eskuernaga, Arabako Errioxa) uztailearen 19an. Ume eta helduendako ibilaldiak eta tailerrak izango dira, zantzarrekin eta trikitilariarekin kalejira eta herri bazkaria. Autobuserako eta herri bazkarirako txartelak dituzte salgai Loramendin (*loramendielkartea@gmail.com*; 943

77 09 70 edo 685 75 67 29); umeek 15 euro eta helduek 20 euro.

MEZEN ORDUTEGIAN ALDAKETAK

Uztail eta abuzturako aldatu egin dute mezen ordutegia parrokan: zapatuetako meza 20:00etan da orain eta domeketakoa, 11:00etan. Agustindarren monasterioko domeketako meza 09:00etan da, betiko legez.

PSE-EEko ordezkariak bosgarren edukiontzia alderakoak babestu ditu

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaletako PSE-EEko zinegotzi Jorge de Castrok babes osoa agertu die bosgarren edukiontzia aldekoei, plataforma horretako ordezkari Nerea Etxabarekin elkartu ondoren.

Era berean, Bilduk duen jarrera kritikatu du: "Inposaketa erabiliz eta jasotako 1.700 sinadurei kasurik egin barik herritarrek kaltetuak izango diren hondakin bilketa sistema jarriko du abian Bilduk. Atez atekoa zikinagoa da, deserosoagoa eta edukiontzi bidezko bilketa baino %20 garestiagoa". Eta hauxe gaineratu du: "Bosgarren edukiontzia alderakoak babestu ditu".

atez atekoarekin antzeko emailtzak lortzen dira, baina merkeago, garbiago eta erosago.

Esan du "atez atekoa jartzeko asmoa" agintaldi hasieratik zuela Bilduren gidaritzan duen Udal Gobernuak, "herritarrek gura edo ez", eta horren adibide dela 2011ko abenduaren 6an Ana Bolinaga alkateak eskutitza bidali izana Gipuzkoako Hondakin Kontsultazioari "atez atekoa eskatuz".

Hala, PSE-EEko ordezkariak dei egin die herritarrei bosgarren edukiontzia alderako platformak egingo dituen ekintzetan parte hartzeko.

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

Jou Díaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Axtrokitan ordainduko dituzte esandako laguntzak. | GOIENA

Hainbat diru laguntza eska daitezke hil amaierara arte

M.B. | ESKORIATZA

Garapen jasagarria eta gizarte garapena sustatzeko diru laguntzen bigarren deialdiarako eskaerak aurkez daitezke uztailaren 30era arte. Gizarte garapena sustatzeko honako hauek dira laguntza gai: Ondasun Higiezin Zerga (OHZ), kiroldegiko abonua eta azken hamazortzi hilabeteotan urtebete langabezia egon diren pertsonak. Eta garapen jasan-

garria bultzatzekoetan honako egoera hauek lagun daitezke: energia berriztagarri sistemak ezarri diren ondasun higiezinakiko subjektu pasiboa izatea OHZn, eta hondakin solidoak batzeagatik ordaintzen den tasan subjektu pasiboa izatea eta auto-konpostatzea egitea.

Eskaerak udal erregistro orokorrean aurkeztuko dira 09:00etatik 14:30era. Laguntzak axtrokitan ordainduko dira.

Olazarrek martitzenean zabalduko du Asturiasera joan ahal izateko izen-ematea

M.B. | ESKORIATZA

Bidaia berria gertatu du Olazar erretiratuen elkarteak urrirako. Hain justu, urriaren 1etik 7ra bitartean Asturias aldera joateko aukera izango dute herriko erretiratuek, eta martitzenean, uztailak 15, zabalduko da horretan izena emateko epea. Olazartik gogorarazi dute bidaia horren prezioa 330 euro dela eta interesa duten bazkideak irailaren 4ra arteko martitze-

netan eta eguenetan joan daitezkeela elkartearen bulegora, 11:00etatik 12:30era.

Bazkide ez direnak

Irailaren 4an, berriz, elkarte bazkide ez direnek eman ahaliko dute izena, 350 euroren truke. Astebetean askotariko herriak bisitatuko dituzte, hala nola Cangas de Onis, Llanes, Villaviciosa, Covadonga, Luarca eta Oviedo.

Bi ibilaldi gogor izango dituen 'Esko Xtrem' mendi bizikleta martxa abiatuko da bihar goizean, plazatik

Urrian beharrean, biharko, zapatua, gertatu dute Zikloturistak eta Areka BTT taldeek eta Udalak elkarlanean *Esko Xtrem* mendi bizikleta martxa; 09:00etan irtengo dira txirrindulariak, plazatik. Bi ibilaldi gogor izango dituzte aukeran, bat 21 kilometrokoa eta bestea 37 kilometrokoa. Izen-ematea 08:15ean zabalduko dute plazan bertan, eta prezioa hamabost euro da. Asegurua, anoa, aldagelak, dutsak eta bizikleta garbitzeko tokia dago sartuta horren barruan. Bestalde, kaskoa erotea derrigorrezkoa izango da.



Astelehenetik, 19:00etatik 23:00etara atera behar dira hiri hondakinak

Tren geltoki zaharrean dagoen larrialdi-guneko giltza eskatzeko ordutegi berezia izango da abuztuan

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Zaborra ateratzeko ordutegi berria izango dute astelehenetik aurrera eskoriatzarrek (uztailak 14). Orain arte, zapatuetan izan ezik, gainerako egunetan 19:00etatik 06:00etara atera ahal izan dira; bada, aurrerantzean, 19:00etatik 23:00etara bitartean utzi beharko dira hondakinak esetokietan. Behin betiko erabakia da hori.

Hondakinen bulegoko teknikari Ane Otegi nabarmendu du aldaketa horrek hainbat onura ekarriko dituela; besteak beste, hondakinak denbora laburragoan egongo direla zintzilikatuta esetokietan; ontzi hutsak goizean, lanera joan aurretik, jaso ahal izango direla; eta herri barruko zirkulazioa arindu egingo dela.

Larrialdi-guneko giltza

Bestalde, Otegi jakinarazi du abuztuan larrialdi-guneko giltza hartzeko ordutegia ere aldatuko dela. Gune hori erabiltzeko giltza Manuel Muñoz kiroldegian edo udaletxean eskatu behar da, eta bi udal eraikin horiek ordutegi berezia izango dute abuztuan. Kiroldegian, astelehenetik egubakoitzera bitartean eskatu ahal izango da 10:00etatik 14:00etara;



Esetokietan denbora gutxiago emango du zaborrak. | MIRIAN BITERI

eta udaletxean, 10:00etatik 13:00etara. Asteburuan ez da zerbitzurik eskainiko batean zein bestean.

Uztailaren eta irailean, ostera, honako ordutegi hau izango du larrialdi-guneak: astegunetan, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; eta zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara; eta udaletxean, ohiko ordutegian, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 14:30era.

Egoera berezietan erabiltzeko gunea da tren geltoki zaharraren aldamenean dagoena, ohikoa den

baino hondakin gehiago sortzen denean edo behar den egunean dagokion frakzioa atera ezin denean.

Hondakinen Bulegoa goizez

Larrialdi-guneak ez ezik, Ibarraundi museoan dagoen Hondakinen Bulegoan ere ordutegi berezia dute uda partean. Otegi azaldu du uztailaren eta abuztuan, astelehenetik egubakoitzera, goizean bakarrik egongo dela zabalik bulegoa; hain justu ere, 10:00etatik 15:00etara bitartean.



MIRIAN BITERI

Uztailaren 24ra arte badute zer egin umee

Herriko umeek astelehenean eman zioten ongietorria aurtengo udaleku irekiei. Aurten, 255 haur inguru parte hartzen dabilta hilaren 24ra arte Eskoriatzan bertan zein kanpoan egingo diren ekintzetan. Kulturartekotasunarekin egongo dira lotuta horietako asko. Esaterako, astelehenean bertan munduko jolasak egin zituzten. Nagusienek bost kontinenteetako jolasak aukeratu eta ikasi zituzten goiz partean, eta arratsaldean, gainerako parte-hartzaileei erakutsi zizkieten.

ANTZUOLAKO JAIK 2014

JAIETAKO EGITARAUA
HONTZAREN HISTORIA
ALARDEKO BETERANOAK
MENDIZABAL-REZUSTA PILOTA PARTIDA
IÑAKI LETEREN OMENEZKO TXIRRINDULARI PROBA
MARIATXIAK ETA ERROMERIA
LARRAIN DANTZA
JOLASAK ETA LASTERKETA, LEHENENGOZ
LORE APAINKETA LEHIAKETA



Larrain- dantza, 2013ko jaietan.

JOSETXO ARANTZABAL



ELAY Taldea

BIKINTASUNARI BEGIRA EGINDAKO LANA

Lizarragako Hiribidea z/g
 20577 Antzuola
 Gipuzkoa
 Tel.: 943 76 61 00
 Faxe: 943 76 62 62
www.elay.com

AGURRA

IMA BERISTAIN
Antzuolako
alkatea



Alkatearen agurra

Lehenik eta behin, beste behin ere gune hau aprobetxatu nahi nuke erbesteturik daukaten Eltzikortari eta bere familiari elkartasuna adierazteko. Bereziki animo, bizi dituzuen une zail hauetan!

Hori esanik, ez da erraza urteroko jai programaren txoko honetan ezer berririk esatea, eta ezin ukatu, gainera, hainbat sentipen kontrajarri sortzen zaizkidalda mezu hau idaztean.

Alde batetik, eguneroko arazoak tarte batez alde batera utzi eta jaieguna gogoz gozatzeko dei egin nahi nuke. Baina zer gertatzen da gure artean, arazo ekonomikoak tarteko, jaiak gozatzeari ere uko egin behar dioten horiekin? Kolektibo gisa hainbat pertsonaren oinarritzko beharrak asetzeko gai ez baldin bagara, ba al dauka zentzurik jaiak ospatzeak?

Aprobetxa ditzagun jaieguna hauek elkartasuna adierazi eta ingurukoak pozteko. Nola ukatu jaietan sortzen diren esperientzia berriek, ezusteko laguntasunek eta euforia uneek duten garrantzia?

Igaro ditzagun gure herriko jaiak bakoitzak ahalik eta modu atseginenean, eta har ditzagun indarrak aurrean ditugun erronka handiei behar bezala erantzuteko!

EGUBAKOITZA

11

18:00 Tartalo eta Mari Sorgina, bi buruhandi berrien KALEJIRA.

DOMEKA

13

09:30 Txirrindulari LASTERKETA.

14:00 Erretiratuen BAZKARIA ikastetxean. Jarraian, dantzaldia.

EGUENA

17

12:30 Jaien HASIERA. Ikuskizuna.

13:30 Umeen herri BAZKARIA.

18:00 Musikarien KALEJIRA.

19:00 Meza eta SALBEA.

19:00 Txosnen IREKITZEA. Luntxa.

19:45 Ikurrin DANTZA. Antzuolako bandera eta ikurrina jasotzea. Udaltzatzen aureskua.

22:00 Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldearekin KALE AFARIA, plazan.

22:30 Imanol Ituño MAGOA txosnetan.

00:00 HONTZAREN JAITSIERA. Jarraian, kalejira Bentazaharrekoekin.

03:00 Txosnak itxi aurretik, LASTERKETA gaztetxera.

EGUBAKOITZA

18

10:00 Txistulariekin GOIZERESIA.

ANTZUOLAKO JAIEN EGITARAUUA



IMANOL SORIANO

BERGARAKO BANDAREN KONTZERTUA | ZAPATUA | 12:30
Kontzertua egin aurretik, kalejira egingo dute bandakoek.

10:30 Patata-tortilla LEHIAKETA.

11:30 Umeen JOLASPARKEA.

12:00 MEZA nagusia.

13:00 Lore eta tortilla lehiaketako SARI BANAKETA.

13:15 Patata-tortilla DASTATZEA.

14:30 Herri BAZKARIA Kalebarrenen.

16:30 Umeen JOLASPARKEA.

18:30 Poneyak eta ZESENTXOAK.

18:30 Baralde TXARANGA.

22:00 PILOTA partidua.

► Lasa-Urruzola vs Jaka-Tolosa

► Titin-Rezusta vs Mendizabal-Zabaleta

► Sarrerak: behean, 25 euro; goian, 20 euro.

23:00 MARIATXIAK. Esencia de Jalisco de Guadalajara musika taldea.

23:00 Txosnetan: Joxpa eta Zurraia taldeen KONTZERTUA.

ZAPATUA

19

07:00 OGITARTEKOAK txosnetan.

09:55 Kanoiak SUTZEA.

10:00 Txistulariekin GOIZERESIA.

11:30 BERGARAKO BANDAREN kalejira.

12:30 Bandaren KONTZERTUA.

19:00 Mairuaren ALARDEA.

20:30 ELEKTROTARANGA

22:30 JOSELU ANAIK, plazan.

23:00 Minority Of One, Mc Onak eta Los Zopilotes Txirriaos taldeen KONTZERTUAK txosnetan.

00:00 ZESENSUZKOA, plazan.

00:15 DANTZALDIA.

DOMEKA

20

07:00 OGITARTEKOAK txosnetan.

12:00 PINTXOAK eta SAGARDOA.

12:30 Eriz MAGOA, plazan.

14:30 HERRI BAZKARIA.

16:00 ZOZKETA eta Fermin Valenciaren KANTALDIA.

17:30 UR JOLASAK, txosnetan.

18:30 ZIRKUA. *Tira y Afloja*, Zirko Atrezzoren eskutik.

20:00 LARRAIN-DANTZA.

20:15 Pintxo DASTATZEA.

20:45 Ezten Giro taldearekin DANTZALDIA, plazan.

00:00 HONTZAREN IGOERA

00:15 Ezten Giro taldearekin DANTZALDIA, plazan.

00:00 ZESENSUZKOA plazan.

ZAPATUA

26

ERREKA GARBITZEA eta bazkaria.

TXOMIN GARAJEA

Aprobetxatu
gure
eskaintzak!

ZORIONAK,
GUZTIOI!



Mekanika orokorra

Tailer profesionala

IAT/ITVrako prestaketa

Lizarraga auzoa. ANTZUOLA. Tel.: 943 78 70 77

MUJIKAT

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434

HARATEGIA

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorak



Jai Zoriontsuak!

23 urte dira hontza lehen aldiz kanpandorretik jaitsi zenetik

Aurten, lehengo eran egingo da hontzaren jaitsiera; alegia, suz, pirotekniaz eta musikaz lagunduta

MIREN ARREGI | ANTZUOLA

2006an hasi ziren Antzuolan hontzaren jaitsiera gaur ezagutzen dugun eran egiten. Ordutik hona, Mikel Ibartzabal bergararrak sortutako hontza herriko jai guztien testigu izan da. Jaien lehenengo egunean jaisten da parrokiatik udaletxera eta azkenengo egunean egiten du bueltako bidea. Nolabait, jaien hasiera eta bukaera irudikatzen ditu horrela.

Lehenengoz, 1991n

Baina hontzaren jaitsieraren aurrekarietara egiteko, atzera egin behar dugu denboran: 1991-ra, hain zuzen. Urte hartan, jaien bezperatan lagun kuadrilla bat afaltzen zela, jaietan zerbait desberdina egiteko proposamena bota zuen batek. Eurretako batek hontzen bilduma bat egiten zuela, eta kanpandorretik udaletxera hontz bat jaisteko ideiak indarra hartu zuen afari hartan. Hurrengo egunean erosiko zuten Antzuolako jaietako lehenengo jaitsiera egingo zuen hontza, Donostian; zumezko hontza zen. Ondo apaindu zuten hura, herriaren aurrean txukun ager zedin; bonbillatxo bana ipini zioten begietan eta txapela ere jantzi zioten. Eta hala, 1991ko herriko jaiak hasi ziren egunean, plaza gainezka eta Korkoil musika



Jexux Etxeberria, Andoni Rodriguez eta Pello Mugurutz, 1991n jaitsi zuten hontzarekin eta oraingoarekin. | MIREN ARREGI

taldea plazan kontzertua eskaintzen ari zela, lagun taldeak musikariak isilarazi, plazako argiak itzali eta kanpandorretik hontza jaitsi zuen udaletxera. Sekulakoa izan zen; jendea asko gustatu zitzaion eta asko hunkitu ere

Lagun talde batek jaitsi zuen hontza kanpandorretik lehenengoz, 1991n

Herritarren nahiari erantzunez, beti egin den moduan egingo da aurten ere

egin ziren. "Garai hartan, gainera, plazak jendez gainezka egoten ziren. Sekulakoa izan zen. Oso polita, baina horretan gelditu zen", dio Jone Larrañagak, Kultura teknikariak.

Ofizialki 2006an

Hurrengo urteetan ez zen festetan hontzaren jaitsierarik egin, harik eta 2006an, lehenengo hontz hura jaitsi zutenean plazan jotzen ziharduen Korkoil musika taldeko kide batek, Patxi Olabarriak, berriz egitea proposatu zuen arte. Bada, Mikel Ibartzabal bergararrari enkargatu zioten hontza, eta ordutik hona, urtero izan da jaien testigu.

Aurten, betiko erara

2008an hasita iaz arte, Antzuolako piroteknia, su eta argi ikusizunak lagundu du beti hontza, haren jaitsieran. Iaz, horri guztiari buelta bat eman guran, ongietorri bertso batekin egitea bururatu zitzaion Jai Batzordeari. Helburua zen bertako balioak ematea eta herritarrek hontzaren ekitaldia bereganatzea. Ez zen, baina, begi onez ikusi: "Harrera txarra izan zuen iazkoak, teknikoki ere ez zen ondo irten eta ez zen batere gustatu. Herritarren eskaerari erantzunez, lehen egin zen moduan egingo dugu aurten", dio Jone Larrañagak, Kultura teknikariak.

Hala, beti bezala, gaueko hamabietan, hontzari piroteknia egitura ipini eta jaitsi egingo dute kanpandorrean behera. Musika nahasketa bat izango du lagun: "Mikel Laboaren *Txoria txori*, Donostiako Orfeoiaeren beste abesti bat, musika klasikoko obra ezagunak... Musika txundigarri eta zirraragarria, azken finean, momentuari behar duen indarra emango diona", dio Larrañagak.

amaia

Kalitatezko produktuak
Bertako produktuak
Produktu ekologikoak

*Ondo pasau
Antzuolako jaixetan!*

Aiherra kalea 2 - Antzuola - Tel.: 649 66 27 91



ILAIA

Ile apaindegia • Estetika

JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIOI!

Kalegoi 20 behea ANTZUOLA Tel.: 943 76 63 33



Izaskun Larrañaga, Iker Manso eta Imanol Garmendia | Herritarrak

"Indarberrituta atera da Alardea prozesutik"

Alardean urte askoan parte hartu duten hiru herritarrek izan gara



Iker Manso, Izaskun Larrañaga eta Imanol Garmendia. | MIREN ARREGI

MIREN ARREGI | ANTZUOLA

Izaskun Larrañaga, Imanol Garmendia eta Iker Manso Mairuaren Alardeko hiru beterano dira; urteak daramatzate jaietako hitzordu garrantzitsuenen parte hartzen. Haiekin izan gara, lehengo eta oraingo bizipenez.

Noiztik alardean? Zergatik?

Izaskun Larrañaga: Etxean beti bizi izan dugu Alardea. Osabak kapitainaren papera egiten zuen eta txikitatik bizi izan dut hori. Ni txistua jotzen hasi nintzen, 2009an emakumeak fusilari irte-ten hasi ginenean ere irten nintzen eta orain danborra jotzen irteten naiz.

Iker Manso: Txistulari eta dantzari moduan irteten naiz Alardean. Oso gaztetan hasi nintzen ni ere, 15 bat urte nituela. Sekulako biharamunarekin joaten ginen; goizean txistua jotzen irte-ten ginen, askotan gaupasa egin da. Arratsaldean Alardean dantza egitera, sekulako eguzkiarekin... Nola egiten genuen ere ez dakit...

Imanol Garmendia: Fusilero moduan atera izan naiz beti, 25 urte nituenetik, gutxi gorabehera. Antzuolako Kirol Elkartean nengoen orduan eta jende beha-

rra zegoela-eta galdezka etorri ziren. Ordutik, urtero irten naiz. Horren aurretik, 18 urterekin irten nintzen zaldiari eusten. Bergarara joan nintzen zaldiaren bila. Antzuolara ekarri eta gero bueltan eraman genuen. Sekulako agujetak izan nituen.

Zer da Alardea zuendako?

Iker Manso: Denok dugu inguruan norbait Alardean modu baten edo bestean parte hartzen duena. Gure etxean, esaterako, aita zen txistularia eta birraitaita danbor-jotzailea. Etxean jaso dugu tradizioa.

Izaskun Larrañaga: Herriko gauza bat da. Nik beti entzun izan dut historia bat Alardearen gainean; azken baten, gure arbasoek Antzuola Bergaratik bereiz-

tu zenean herri moduan nortasuna aldarrikatzeko hasi zuten Alardea eta guk horrekin jarraitzen dugu.

Imanol Garmendia: Aurkitu diren dokumentuen arabera, 1880an egin zen lehenengoz. Herri gehienetan egiten ziren alardeak lehen. Indar erakustaldi bat zen, azken baten.

Alardeak aldaketa handiak bizi izan ditu azken urteotan. Beharrezkoak ziren? Ondo hartuak izan dira?

Izaskun Larrañaga: Inolako asmo txar barik, seguru asko ezjakintasunagatik, baina lehen-go Alardean mairua ez zen, nolabait esateko, ongi tratatua. Globalizazioarekin beste kultura batzuk ezagutu ditugu eta kon- turatu gara gustu txarrekoak

zirela lehen egiten ziren gauza batzuk. Horiek aldatzea positiboa izan da.

Iker Manso: Orain dela ehun urtetik horrela egin da eta ez zaio bueltarik eman. Gero kon- turatzen zara kapitaina zaldi gainean eta mairua asto gainean eta, gainera, lotuta egoteak badi- tuela konnotazio desagokiak.

Imanol Garmendia: Aldaketak onerako izan dira. Ikuskizun moduan ez dauka zerikusirik. Askok hobetu da; parte-hartzaileak ongi ikusi ditugu, eta ikusleek ere bai.

Eta zuek zer nabarmenduko zenu- kete Alardeaz?

Iker Manso: Egin diren berri- kuntza guztiak. Askok izan dira, eta denak onerako. Nik ez dut

aldaketa prozesuan parte hartu, baina oinarritzkoa izan da.

Izaskun Larrañaga: Nik, mai- ruaren jaitziera eta bukaeran udaletxeko arkupeetatik kanpo- ra kapitaina eta mairua ateratzen diren unea. Oso hunkigarria egi- ten zait.

Imanol Garmendia: Moldaketa nabarmenduko nuke, batik bat, baina tiroa botatzeko unea ere asko gustatzen zait. Musika ere ikaragarria da. Hunkigarria, era- bat.

Jarraituko du Alardeak urte luzez?

Izaskun Larrañaga: Indarberri- tuta atera da Alardea biziberri- tzeko prozesutik. Nik uste dut onerako izan dela, eta bai, urte luzez jarraituko du.

Iker Manso: Inoiz baino jende gehiagok hartzen du parte orain eta uste dut denbora baten osa- suntsu jarraitzeko elementuak badituela.

Imanol Garmendia: Ados nago Ikerrek eta Izaskunek esanda- koekin. Hori bai, nik danbor-jo- tzaileak faltan igartzen ditut. Dabor-hots gehiago izatea polita izango litzateke. Hortaz, hemen- dik, deia, jendea danborra jotze- ra anima dadin.

ESANAK

"Etxean beti bizi izan dugu; askok parte hartzen dugu orain ere"

IZASKUN LARRAÑAGA | PARTE-HARTZAILEA

"Inoiz baino jende gehiagok hartzen du parte orain Alardean"

IKER MANSO | PARTE-HARTZAILEA

"Alardean egin diren aldaketa guztiak onerako izan dira"

IMANOL GARMENDIA | PARTE-HARTZAILEA



Zabalo Iturgintza S.L.U.

Ondo ibili jaietan!

- Gasa
- Berogailuak
- Aire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Antzuola. Tel.: 943 78 71 78 / Faxe: 943 76 64 73



Antzuolako jaietan ZATOZ GURERA!

Gorosti • Larrea • Arin • Mox
Gailur • Ongi Etorri • Surpe

Mendizabal eta Rezusta aurrez aurre partidu nagusian

Mendizabalek eta Zabaletak jokatu dute Titinen eta Rezustaren kontra hilaren 18ko pilota partiduan

MIREN ARREGI | ANTZUOLA

Azkenengo urteetan bezala, aurrez aurre profesional mailako pilota partidua izango dira Antzuolako jaietako erakargarrietako bat. Hilaren 18an, 22:00etan, Antzuolako frontoia puntako pilotarien jokoaren lekuko izango da. Lehenengo partiduan, Lasak eta Urruzolak batera neurtuko dituzte indarrak Jakaren eta Tolosaren kontra. Horren ostekoa izango da partidu nagusia; horretan, Titin eta Rezusta arituko dira Mendizabalen eta Zabaletaren kontra.

Maila handiko partidua

"Maila handiko partidua izango da bigarrena", dio Felix Agirre antolatzaileak. "Titin 22 urte profesional mailan aritu ondoren erretiroa hartzeko puntuan dago. Pentsa, horrenbeste urte profesional mailan aritu den pilotari batek zer-nolako maila izan behar duen. Bestetik, Zabaleta ere maila handiko jokalaria da", gaineratu du. Baina ez horiek bakarrik; izan ere, Debagoieneko ordezkariak ere sekulako maila erakutsi dute profesional mailan hasi zirenetik. Beñat Rezusta bergararrak bigarren mailako txapela jantzi du aurrez aurre horrek datorren urtean lehenengoan jokatzeko bidea eman dio. Aitor Mendizabal da par-



Aitor Mendizabal pilotari antzuolarra . | GOIENA

tiduko laugarren izarra. Haustura txiki baten ondorioz hilabete gelditu egon ondoren, hasia da partidua jokatzeko. "Momentu onean nago. Partidurako guztiz erreku-peratuta egotea espero dut, aurreikuspenak onak dira", dio Aitor Mendizabalek. Antzuolarrak hiru urte daramatza profesional mailan eta jaietako pilota partiduan jokatu duen hirugarren aldia izango da aurtengoa. Badaki partidu konplikatu izango dela, "aurkariak oso onak" direlako, baina ilusio berezia egiten dio aurtengoak: "Desatzen nago partidua jokatzeko. Titinen kontra egiteak erretiratzeko gutxi gelditzen zaio la kontuan hartuta... ilusio berezia egiten dit", dio.

Partidua ikusteko sarrerak aurrez har daitezke Internetez, eta, bestela, egunean bertan leihatilari. ETBk emango du partidua telebistaz.

Erretiroa hartuko duen urtean, Titin ikusteko aukera izango da Antzuolan

Ehundik gora txirrindulari herrian etzi

Etzi, domekan, izango da Antzuolako jaietako beste kirol hitzordu handia, horrenbeste eta horrenbeste urtean Antzuolako jaietan egin izan dena eta Euskal Herriko txirrindulari onenak batu izan dituen; Iñaki Leteren omenezko 69. txirrindulari lasterketa, hain zuzen. Hain zuzen ere, 23 urtez azpikoek lehia izango da eta afizionatu mailako ehundik gora txirrindulari hartuko dute parte 130 kilometroko proban. Goizeko bederatzi eta erdietan irteneko dira txirrindulariak herriko plazatik; Antzuolatik Oñatira bi buelta egin beharko dituzte, handik Deskargan gora egin beharko dute, eta Udantatik berriz ere Oñatira joango dira. Oñatitik Bergarara, handik Asentziora eta Kanpanzartik behera Antzuolara iritsiko dira berriz. Hasierako toki berean bukatuko da lasterketa, herriko plazan.



Txirrindulariak lasterketan. | GOIENA



Gabilondo - Arregi

harategia - urdaitegia

Bertan jaio eta hazitako txahal okela

KALEBARREN 5

943 76 62 90

ANTZUOLA



EUSKAL OKELA

Ondo pasau jaixak!!!

Aixa
frutategia

Buztinzuri 6 behea Antzuola
Tel.: 943 78 62 69



JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIO!!





Iazko jaietan egin zuten larrain-dantzaren une bat. | GOIENA

Bederatzigarrenez egingo dute aurten larrain-dantza

Entseguetan hogei bikote inguru elkartzen dira, eta egunean bertan bikoiztu egiten da kopurua

A. A. | ANTZUOLA

Herriko jaietan ondo errotuta-ko ekitaldia da domekan egiten duten larrain-dantza. Urtetik urtera jende gehiago animatzen dela dio Aitziber Goñik, Oinarin dantza taldeko kideak. Eta, hain zuzen ere, hori da helburua, dantza taldeko kideez gainera, herritarrek dantza emaldian parte hartzea. Ekitaldi herrikoia da; bada, askotariko adinetakoak elkarrekin dantzan egiteko aitzakia bikaina. Jaietan bakarrik dute ohitura, baina Oinarin taldekoek ez dute alboratzen beste egunen baten ere egitea hainbat herritarrek horrela proposatuta.

Oinarin dantza taldeak antolatzen eta gidatzen du saioa; betiere, Udalaren laguntzarekin. Ezagun da herritarrek dagoeneko ondo menperatzen dituztela dantzaren pausoak, aurten

entsegu gutxiago egiteko beharra ikusi dute-eta: "Bi entsegu besterik ez dugu egin aurten, uztailearen 8an; eta uztailearen 15ean egingo dugu azkena, betiko tokian, eskolako barruko patioan. Konturatu gara dagoeneko jendeak badakizkiela egin beharrekoak eta erreparasatu besterik ez duela behar. Hala ere, badira entseguetara etorri ez baina egunean bertan mul-tzora biltzen direnak. Dantza erraza da; beraz, gura duten guztiak ondo hartuak izango dira", dio Oinarinekoak.

Domekan, 19:00etan, plazan Ordu laurden inguruko dantza saioa izaten da. Dultzainen doinuekin lagunduta. Antzuolakoek parte hartu izan badute ere, aurreko bi urteetan moduan, aurten ere kanpoko dultzaine-roak gonbidatu dituzte.

Mariatxien eta etxekotutako erromerien doinuak jaietan

Esencia de Jalisco de Guadalajara mariatxi taldea da aurtengo berrikuntza

A. ARANBURUZABALA | ANTZUOLA

Aurtengo musika berrikuntza, jaietan, zortzi emakume mexikarrrek osatzen duten Esencia de Jalisco de Guadalajara mariatxi taldea da. Euskal musikaz gainera, beste estilo bat eskaintzeko asmoz gonbidatu dituzte egubakoitzean Antzuolara (23:30); iaz fadoak aukeratu zituzten.

Etxeko ezagunak, bestela

Gainontzeko egunetan, aurreko urteetan izan duten harrera ona dela-eta, herrian ezagunak diren taldeak izango dira.

Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldearekin afalduko dute egunean, plazan (22:00); eta hontzaren jaitsieran atsedenaldea hartuta, jotzen jarraituko dute 13:00ak bitartean. Kultura teknikari Jone Larrañagak dio orokorrean erromeriek ez dutela orain dela urte batzuk besteko harrera eta horregatik egin zutela proba orain urte batzuk, kale-afari musikatuarekin. Harrezkero, Bentazaharrekoak etxeko bihurtu dira.

Joselu Anaiak taldekoak ere aspaldiko lagunak dituzte Antzuolan. Iaz ez ziren etorri, dataz nahastu eta beste herri baten lotu zuten-eta aurrez erromeria. "Sekulako pena hartu zuten joselutarrek, eta aurtengoa lehenbailen lotzeko asmoaz, urtarrilean deitu ziguten. Gustura etortzen dira gureru, urte askoan izan dira herriko jaietan. Herritarrek



Esencia de Jalisco de Guadalajara taldea. | ANTZUOLAKO UDALA

oso ondo hartzen dituzte, adin guztietako publikoarekin ondo funtzionatzen dute", dio Kultura teknikariak. Zapatuan herriko plazan izango dira, 22:30ean hasita. "Amaitu ez dakigu zein ordutan amaituko duten, ordu txikiak arte jotzeko prest izaten dira", gaineratu dute Udaletik.

Eta erromeria giroan amaituko dituzte antzuolarrek herriko jaiak, iaz lehenengoz gonbidatu zituzten Oiartzungo Ezten Giro neska taldeak du hontzarekin batera aurten ere ohorea.

Bergarako Banda, kuttuna

Aipatutako musika hitzorduez gainera, ohi bezala, Bergarako Bandak kontzertua egingo du zapatuan. "Bandaren kontzertua ezin da jaietako egitarautik kendu. Beste aukera batzuk probatu ditugu: Leioatik eta Debatik etorri izan dira, besteak beste, baina herritar askok Bergarakoak ekartzeko eskatu izan digute".

Kalejiran hasten dira jotzen, Bergarako eta Antzuolako alka-teak gidari dituztela; eta 12:30ean egiten dute kontzertua.

ESANAK

"Ordezkaezina da Bergarako Bandaren kontzertua"

JONE LARRAÑAGA | TEKNIKARIA



Ondarre, 9 ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 45
Faxa: 943 78 71 16
garitanocb@euskalnet.net

**JAI
ZORIONTSUAK
ANTZUOLAR
GUZTIOI!**



**Ana
Etxeberria**
Ez da osasun zentroa - RPS 291/13

*Ondo pasau
jaixak!!!*

Osteopatia
Osteopatia pediatrikoa
Akupuntura
Kirol Masajeak

Errekalde auzoa 6, behea 943 76 60 13



Askotariko ekintzekin gozatzeko aukera izango da gaztetxean. | OIER PEÑAGARIKANO



Los Zopilotes Txirriaos taldeko kideak promozio argazkian. | ZOPILOTES-TXIRRIAOS.COM

Jolasak eta lasterketa, lehenengoz

Minority Of One talde andaluziarrak, McOnak eta Zopilotes taldeek girotuko dute zapatu gaua

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Herriko jaiei hasiera emateko, Antzuolako Gazte Asanbladak antolatuta, luntxa egingo dute egunean, hilaren 17an, txosnagunean. Txosnak, baina, 19:00etan irekiko dituzte. Ondoren, 19:45ean, ikurrin-dantza egiteko, itxi egin-

go dituzte. Eta Antzuolako bandera eta ikurrina jaso ostean, luntxa egingo da, gaztetxeak antolatuta, txosnagunean. Gaur, 22:30ean, Imanol Ituño magoaren magia saioaz gozatzeko aukera izango da. Euskal Autonomia Erkidegoko lehen magia eskola-

ko irakaslea da Ituño eta eskuekin duen abilezia eta trebetasuna erakutsiko du. Magiarekin zuzeneko kontaktua izateko aukera izango da, gainera.

Goizeko hiruretan txosnak itxiko dituzte, eta gaztetxea zabaldu. Eta lehen aldiz, gaztetxeko irekiera iragartzeko, lasterketa antolatu du AGAk. Goizaldean, animatzen diren denek har dezakete parte bertan.

Askotariko musika emanaldiak

Kontzertuen txanda egubakoitzean izango da. Oñatiko Zurralla taldeak Kuraia talde mitikoaren bertsioak egingo ditu. Ondoren, Joxpa taldearekin erromeria.

Zapatuan, hilaren 19an, Mai ruaren Alardearen ondoren, Skandalue elektrotxarangak giroa berotuko du herriko erdiguneko kaleetan barrena.

Gaur, musika gehiagorekin disfrutatzeko aukera izango da txosnetan. Minority Of One talde andaluziarrak, McOnak eta Los Zopilotes Txirriaos taldeek girotuko dute zapatu gaua eta domeka

'Erasorik ez erantzunik gabe!'

Aurten, Antzuolako gaztetxeko lagunek sexu erasoen aurrean erantzuteko dinamika bat aurkeztu dute. "Urte askoan erasoen aurkako kartelak jarri ditugu, baina ez geneukan tresnarik sexu zein bestelako erasoen aurrean herritarrek euren erantzuna eta konpromisoa eman zezaten". Hala, herrian zehar aholku zerrenda duen eskuorria eta telefonoa banatuko dute. "Herri guztiaren atxikimendua nahi da eta jendeari betaurreko koloretsuak jantzita argazkiak aterako dizkiogu asteburuan". Jaietan, txosnagunean mural bat jarriko dute, gainera.

goizaldean. Zapatu eta domeka goizetan, txorizo-ogitartekoak eta Nocilla banatuko ditu gaztetxeak.

Domekan, lehenengoz, ur jolasak ere egingo dituzte bazkalostean. Arropa zaharrekin joateko esan dute antolatzaileek.

Eta jaien ondorengo zapatuan, auzolanean, erreka garbitzera joateko deialdia ere egin dute.

Ogitartekoak egunero

Ez dot moztuko bizarra taldeak eskubide zibil eta politikoen alde egiteko taldea-ogitartekoak jarriko ditu, urtero egiten duen moduan. Herriko festek irauten duten egun guztietan jarriko dituzte ogitartekoak txosnan. Eguenean pasta-entsaladak dasatzeko aukera ere izango da.

Erreka garbituko dute jaiak amaitu osteko zapatuan, auzolanean

xinkona

Buztinzuri 11 • ANTZUOLA

- Eskulan Ikastaroak
- Arropak
- Osagaiak
- Gozokiak.

Ondo pasau jaixak!!!



ANTZUOLA
JAIXETAN.
ONDO PASA!



Antzuolako udala
www.antzuola.com



Arrate Aranguren | 2012ko lore apainketa lehiaketako irabazlea

"Loreek asko alaitzen dituzte balkoi eta etxeak"

Loreak ditu gustuko, eta, amaren ohiturari eutsiz, udaberrian balkoia lore koloretsuz apaintzen du

ANE ELORDI | ANTZUOLA

Arrate Arangurenen afizioetako bat dira loreak. Izan ere, gustuko du udaberrian eta udan loreak landatu eta zaintzea. Hori dela eta, bere etxeko balkoia lorez apainduta egoten da, itxura polita ematen diola esaten du Aranguren. Orain dela bi urte, 2012an, balkoien eta leihoen lore apainketa lehiaketako epaimahaiaren erabakiz, Arrate Aranguren izan zen irabazlea. Iaz ere egitasmoarekin bat egin zuen, eta herritarren boto zenbaketan jardun zuen boluntario.

Urte osoan balkoia apaintzeko ohi-tura daukazu?

Udaberrian soilik izaten ditut balkoian loreak; amak ere izaten ditu, eta nik harengandik jaso dudana ohi-tura da. Etxearen kanpoaldea zein barnealdea apaintzen dut loreekin; baditut batzuk due-

la hamabi urte ingurukoak direnak. Loreek asko alaitzen dituzte balkoi eta etxeak.

Txapelketari begira, kolore edo lore bereziak jartzen dituzu?

Ez. Izan ere, lore guztiak ez dira ondo irteten balkoietan, eta, horrenbestez, nik ondo ateratzen diren loreak landatzen ditut. Adibidez, geranio batzuk jarri nituen behin, eta ez ziren ondo irten. Gero, surfiniekin egin nuen proba, eta, ondo irten zirenez, urtero jartzen ditut. Kolore askotarikoak daudenez, horrekin jolasten dut; aurten, gorriak baino ez ditut jarri.

Txapelketak zeresana emango du herritarren artean, ezta?

Bai; kalean zoazela herriko balkoiei begiratzea ohikoa da, eta lagun artean komentatzen da zeinek daukan balkoi polita. Jende ezagunak esan izan dit balkoi



Arrate Aranguren etxeko balkoian, aurten landatu dituen loreekin. | ANE ELORDI

Herritarren esku irabazlea izendatzea

Tradizio bilakatu da Antzuolako jaietan balkoien eta leihoen lore apainketa lehiaketa egitea. Herritarren artean arrakasta duen egitasmoa da; gainera, aurten, bigarren, herritarrek erabakiko dute zein izango den irabazlea. Iaz, herritarren botoen bitartez erabaki zen txapelduna, eta, izandako arrakasta ikusita, aurten ere bide bera hartu dute.

Egubakoitzean, 18an, tortilla txapelketako epaimahaiak irabazleak zeintzuk diren erabaki bitartean, balkoien eta leihoen lore apainketa lehiaketako botoak emateko aukera izango da. Panel batean lore apainketan parte hartuko duten balkoien eta leihoen argazkiak izango dira ikusgai, botoa ematera doazenek erraztasunak izan ditzaten. Irabazleak 90 euroko saria jasoko du.


polita dudala. Jendartean komentatzen da, bai.

Iaz eta aurten, herritarren botoen bitartez erabakiko da irabazlea.

Bai, metodologia egokia dela iruditzen zait, eta herritar guztientzat garrantzitsua den gauza bat dela uste dut, guk erabakitzen dugulako zein balkoi edo leihok merezi duen irabaztea. Askok hurbildu ziren botoa ematera, ez delako loreez askorik jakin behar, politenari botoa ematea nahikoa da. Esperotakoa baino arrakasta handiagoa izan zuen berrikuntzak.

Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Goizper, 50 urte baino gehiago, handitzen, berritzen eta gizarte eta ingurumenarekin konprometituta.



www.goizper.com

Tel. 943 786 000

Arrandegira joaten direnen %70ek ontzia eramaten dute

'Ontziratu zaitez' ekimenarekin gustura daude herritarrek, eta "erosoa eta garbia" dela diote

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Dagoeneko sei hilabete betetzear da Udalak eta Ekogunek abiatutako *Ontziratu zaitez* kanpaina. Otsail hasieran 520 tuper banatu zituzten herriko familien artean. Bada, erabiltzaileen artean galdetuta, harrera ona daukala eta ekimenarekin bat egin dutenek "gustura eta pozik" daudela kontatu dute.

Antzuolan, oraingoz, herriko arrandegiak eta Amaia dendak egin dute bat *Ontziratu zaitez* egitasmoarekin.

Arrandegian galdetuta, dagoeneko ohitura bihurtu dela ontziarekin joatea kontatu du Abel Uribesalgok. "Ekimenak izandako erantzunarekin pozik nago. Izan ere, erabiltzaileen %70 ontziarekin etortzen dira arrandegira. Gainera, norbaiti ahazten bazaio ontzia etxean, geuk dauzkagun urdin koloreko ontziak uzten dizkiogu. Gero bueltan ekartzen dute eta listo", dio. Izan ere, familia bakoitzari ontzi berde bat banatu zitzaion, eta urdin bat dendetan dute etxean ahaztuz gero erabiltzeko.

Amaia dendako Amaia Lazkanori galdetuta, "erosoa eta garbia" dela kontatu du. "Ondo doa ekimena; hasieran zalantzak sortu zitzaizkien erabiltzaileei; baina behin zertarako erabili

behar zuten garbi izanda, ez da arazorik izan", azaldu du Lazkanok. "Plastikoaren erabilera arintzeko aukera ikusita, asko kontziente da orain ontziaren erabilera bultzatzeaz. Nire kasuan, sasoiko produktuak plastikoan sartu beharrean, tuperrean sartzten dituzte".

Udalak balorazio positiboa

Udalak balorazio baikorra egiten du. *Zero zabor* filosofiaren bidean beste pauso bat dela dio, hain justu, helburua ahalik eta zabor gutxien sortzea da-eta. "Kanpaina honekin helburua hirukoitza da: erosotasuna eroslearentzat, kostuak txikitzea dendarientzat eta, noski, onura orokorra, hondakinak murriztuko dira-eta", dio Udalak. "Ontziak poltsan sartu ahal izateko neurri egokia dute eta material birziklatuekin dago egina", dio Ekogunek.

Zozketa hilero

Antzuolan sustapen berezia egiten dute, eta ontzien erabilera saritu. Hala, ekimenean parte hartzen dutenen artean hoge euroko erosketa-txartela zozkatzen dute hilero-hilero. "Zozketa ideia ona da; jendeari gustatu zaio ekimena eta asko animatu dira bat egitera", kontatu du Abel Uribesalgok.

ASUNCION OLABARRIA
ANTZUOLA



"Niri ontzia ekartzea gustatzen zait; txukunagoa da, papel gabe. Gero garbitu eta hurrengorako prest. Oso ideia ona dela irudituzait hasiera-hasieratik".

ITZIAR MANTZIZIDOR
ANTZUOLA



"Arrandegian erabiltzeko ohitura daukat. Ahaztuz gero, tuper bat uzten didate etxera eraman eta gero bueltatzeko. Sistema erosoa da, zuzenean hozkailuan uzteko".

ABEL URIBESALGO
ANTZUOLA



"Hasieran jendeari kosta egin zitzaion, baina berehala ohitu dira. Ia denek ekartzen dute orain ontzia. Jendearentzako hobea da, poltsa eta paper gabe doaz".

AMAIA LAZKANOA
ANTZUOLA



"Plastikoaren erabilera arintzeko aukera ikusita, jendea animatu da etxetik tuperrarekin etortzera dendara. Askori, sasoiko produktua poltsan sartu beharrean, ontzian eramatea gustatzen zaie".

NIRE USTEZ

MIKEL BARGIELA



Dementzia

Gustuko dut adin luzeko pertsonak eta umeek osatzen duten binomioa. Edonon ikusten ditudanean, begira-begira gelditzen naiz instant batez, lelotuta, aurreko batean Anoetako pizinetan gertatu zitzaidan bezala.

Batak ilusio eta ikusmin handiarekin egiten du guztia, presaka, denbora agortzen ari balitzaio bezala, eta ez ditu gizarte arauak ezagutzen oraindik.

Besteak, berriz, motel, pazientziaz, denborak ez du beldurtzen eta jada hamaika buruhauste eman dizkioten konplexuak menperaturik dauka (gizarte arauak txakurraren salara bidali ditu). Bizitzaren bi punta hauek libertatearekin lotzen ditut eta inbidia pixka bat ematen didate. Askotan 80,

90 edo 100 urte izan nahi nituzke, kale izkin batean eseri eta eguna barrezka pasatzeko; lagun batek esaten duen moduan, "me van a tener que aguantar!".

Emantzipazioa behar bat bilakatu zaigun honetan, konturatzen ari naiz pertsona helduekin hazi eta bizi izatearekin izan dudana suertez.

Gazteagoa nintzenean barre edo behar bezala kasu egiten ez niela oroitzeko latsa sentitzen dut. "Ba, kaka-mutiko bat nintzen", esaten dut barreneantze, eta justifikatu dudalakoa lasaia go gelditzen naiz.

Bueno, niri ere San Martin eguna iritsi bitartean neure burua zaintzen saiatuko naiz, gorputzari astindu bat eman eta kirol pixka bat egingo dut. Ekarri dudana bainujantzi kutre hau ipini eta uretara noa bizkor, ahalik eta jende gutxienak ikus nagan piura honekin.

Gerturatu eta uretara salto egin dut buruz, *a lo pro*. Kloro usainean murgilduta eta biritaketa azkenengo oxigeno partikula xahutu bitarteko hiru segundoak nahikoa izan dira ohartarazteko, ostias, oraindik kaka-mutiko bat naizela.

Jaietako domekan egingo den herri bazkarirako txartelak salgai gaztetxean, Arinen eta Moxen

Lehenengoz, *Ez dot moztuko bizarra* taldeak antolatuko du herriko jaietako domekan egin ohi den herri bazkaria. Dena eurek egingo dutela azaldu dute: txartelak salgai jarri, mahaia eta aulkiak ipini, mahaia zerbitzatu eta ekintza aurrera eraman. Jaso, berriz, bazkaltzen duten guztien artean jaso beharko dute. Menua hauxe da: entsalada mistoa, oilasko-paella, postrea eta kafea. Prezioa 14 euro da. Txartelak gaztetxean, Arin eta Mox tabernetan eros daitezke, uztailearen 16ra arte.



943 05 70 95
670 68 58 07
Herriko plaza 12 • Antzuola
helburuakademia@hotmail.com

Ondo pasau jaixetan!

Elyan natur denda



Ondo ibili jaixetan!

Herriko plaza 6
ANTZUOLA

MARI KRUZ
IPARRA GIRON
HARATEGIA

Ondo pasau jaixetan!!!

Kalebarren 1, behea • 943 79 64 84 • ANTZUOLA

Nerea

Zorionak antzuolar guztioi!

659 57 50 97
Kalebarren 13 ANTZUOLA


Ile apaindegia



Edertze aretoa

Ondo pasatu Antzuolako jaixetan!

Germaine de Capuccini produktuak
Laser bidezko depilazioa
Informa zaitez!



Sagasti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

Auzoko ekimenaren lehenengo hiru hilabeteen balorazio positiboa

Uzarragara txangoa egin zuten eguaztenean, Joxe Mari Iturbe gidari zutela, hango kontuak ezagutzeko

JULEN IRIONDO | ANTZUOLA

Auzoko ekimenean parte hartzen duten lagunek Uzarraga auzora txangoa egin zuten eguaztenean, Joxe Mari Iturbe gidari zutela, bertako ingurune naturala, eliza, iturria eta historia ezagutzeko. Maiatzean hasita, eguaztenean pare bat orduz elkartzen dira kultura etxean auzotar eta auzokideak, euskaraz bizi diren herri-tarrak eta orain arte euskaratik aldentuta bizi izan direnak, jokoan bitartez oinarritzko hitz eta egiturak ikasten joateko. Tarteka, baina, bestelako ekintzak ere egiten dituzte, kultura etxetik kanpora.

"Egiten ari garena da Antzuolako talde eragileekin harremana sortzea, ekintza desberdinak egin ahal izateko, edo Joxe Marirekin egin dugun bezala, bere bitartez Uzarraga ezagutu ahal izateko, euskaraz, ahal den neurrian. Nahi duguna da Auzoko herri-ratzea, ez geratzeko beti gela itxi batean", zioen Maite Telleria dinamizatzaileak, eguaztenean ekintzaren nondik norakoak azal-tzerakoan.

Sei-zortzi auzokide

Bizpahiru euskaldun eta sei-zortzi auzokide, hamar bat lagun elkartzen dira astero Auzokon. Ekimenaren bultzatzaile den Euskaltzaleen Topaguneak eta Antzuolako Udalak egin dute aurreneko hiruhilabeteko balo-



Eguaztenean txangoan parte hartu zutenak, Uzarragako iturrian. | JULEN IRIONDO

razioa, eta oso positibo jo dute orain arte egindako bidea. Baina jarri dute opor osterako erronka, emakume auzokideak erakartzea:

"Emakume horiek etxeetan lan egiten dute edo, agian, ez dauka-te halako bizitza sozialik. Orduan, irailera begira, emakumeei dei

bat egin behar diegu, eurekin batu eta ikusi interesik baduten, eta hala bada ordutegiz posible den ikusi, gizona zuekin parte-katu nahi ote duten...", zioen Telleriak.

Eta antzuolar gehiago animatzea ere nahi lukete. Probatu dutenak oso gustura daude. Herrian dagoen aniztasuna ezagutzeko aukera da haien zati ekinena, eta elkarren arteko zubi guztientzat. Datorren astean ere kalean ibiliko dira, herriko jaie-tako lehen egunean, festak elkar-rekin bizi izaten.

Herritarrei deia, parte har dezaten

Opor garaiko etenaren ostean, irailean itzuliko da Auzoko, eta ekimenaren bultzatzaileek nahi dute antzuolar gehiago anima daitezen parte hartzea. Eguaztenean 18:00etan da hitzordua, kultura etxean, eta egin beharreko bakarra da auzokideekin egiten dituzten jokoetan-eta haiekin batera jardutea, euskara barneratzen joan daitezen poliki-poliki.

ISHOR
BUDHATMOKI
AUZOKIDEA



"Herri txikia da Antzuola, baina oso polita. Niri asko gustatzen zait Antzuola. Auzoko oso egokia da guretzat, kultura trukeko. Irailean jarraituko dut".

ARANTZAZU
ARBULU
AUZOTARRA



"Momentu politik pasatzen ditugu, hiztegia apur bat landu eta... Guk egiten dugu ekarpena, baina eurek ere bai: euren herriaren berri eman eta...".

YASIR
MAHNDI
AUZOKIDEA



"Duela hiru urte etorri nintzen. Beste pakistandar bat dago herrian; ibiltzen naiz Nepalgoekin, marokoarrek eta bertakoekin. Auzoko lagungarri da".

LURDES
ARENATZA
AUZOTARRA



"Saio gehienetara joan naiz, eta oso esperientzia ona izaten ari da. Pena daukat antzuolar gutxi joaten direla; nahi dugu euskaraz ikas dezaten, baina geuk ez dugu gure aldetik jartzen".



Errekalde 6 Antzuola • 943 76 60 19 • 637 55 14 46

HORTZ KLINIKA

Ana Sainz Malkorra
Mediku estomatologoa
Elkargokide zk.: 20000437

PADI • Odontologia orokorra
Periodontzia eta inplanteak

ZORIONAK, ANTZUOLAR GUZTIOI!

Herriko Plaza 4, behe 20577
Antzuola Tel.: 943 78 71 69

**Marilina
mertzeria**

*Jai zoriontsuak
antzuolar guztiei!!!*

Herriko plaza 4
ANTZUOLA
Tel.: 677 46 63 21



**DESKARGA
AUTOAK**

*Jai zoriontsuak
antzuolar guztioi!*

Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tel.: 943 76 62 75



Lantegia: Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35

*Jai zoriontsuak
antzuolar guztioi!*

Itzar

LIBURU DENDA
ESTANKOA

JAI ZORIONTSUAK!

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel. / Faxe: 943 76 60 62

Kuadrillen arteko pikea eta mozorro afaria, festak ezin hobeto amaitzeko

Astelehenean bukatu ziren sanmartinak; Udala "oso pozik" dago: "Jendea ibili da eta giro ona egon da"

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Lau egunez festa giroa nagusi izan ostean, astelehenean amaitu ziren ofizialki San Martin jaiak. Astelehena izan zen azken eguna, aramaioar askorendako egun kutunena. Goizeko umeendako jolasez gain, kuadrillen arteko pikea eta mozorro afaria izan ohi dira jaietako azken eguneko ekitaldi arrakastatsuenak.

Pikean lau kuadrillak hartu zuten parte, Aramaioko Bandera lortzeko borrokan. Aurten parte-hartzeak behera egin duen arren, proba guztietan lehia sana izan zen nagusi eta parkean elkartu ziren ikusleek barre sendo egiteko aukera izan zuten. Askotariko probak egin zituzten, guztiak taldean egitekoak: lasterketak egurrezko oholekin, zakuekin eta errubera irristakorrekin, urez betetako platerak bata besteari pasatzeko proba, elkarri lotuta sagarra lortzekoa... Eta jaiak urteroko umore onarekin amaitzeko, mozorroak kalera atera eta herri afaria egin zuten Bizente Goikoe-txea plazan. Afariaren ostean, Bixente Senarrek jaso zuen parrandazale onenari ematen zaion Urrezko Gibela sari preziatua.

Jai herrikoiak

Eguraldiak askorik lagundu ez duen arren, Udalak jaien balorazio positiboa egin du: "Orokorrean ondo joan dira jaiak, nahiz eta eguraldiagatik ekintza batzuk ez diren behar bezala irten. Jendea ibili da eta giro ona egon da. Urtero moduan, beti dago zer findu eta beste ekintza batzuei buelta bat eman beharko zaie, baina oso pozik gaude aurtengo jaiekin", adierazi du Kultura zinegotzi Lierni Altunak. Kontzertuek jende askotxo mugitu



Aurten kuadrilla gutxiago elkartu diren arren, giro ederra izan zen nagusi.



Herri afarian, askotariko mozorroak. | ARGAZKIAK: IMANOL GALLEGO

dute eta aurtengo itzal aipagarriena da kuadrillen arteko pikean parte-hartzeak behera egin duela: "Ondo egon zen arren, parte-hartzearen beherakadari buelta eman beharko zaio".

Bestalde, Udalak herriko talde zein norbanakoen inplikazioa txalotu gura du: "Pozgarria eta

aberasgarria da herriko taldeek eta norbanakoek horrenbeste lan egitea jai herrikoiak egiteko: txosnagunea kudeatzen duten bi taldeak, trikitixa eskola, txistulariak, Papargorri eta Bizente Goikoe-txea abesbatzak, Gazte Asanblada... Eskerrik eta zorionik beroenak denei!".

BIXENTE SENAR | URREZKO GIBELA 2014

"Lulu" nire txakurtxo leiala izan dut alboan; oso gustura ibili gara aurten, jo eta ke"

Herri afariaren ostean banatu zioten Bixente Senar aramaioarri Urrezko Gibela, aurtengo San Martin jaietan parrandazaleena izan delako. Gustura jaso zuen sari preziatua; Goienako kameraren aurrean igarri zitzaion ez zuela *kargu berria* espero...

Hasteko, zorionak sariagatik!

Eskerrik asko!

Parrandazaleena izan zara zu aurtengo sanmartinetan, ala?

Ba, ez dakit... Itxura denez bai, saria eman didate-eta.

Bakarrik ibili zara parrandan?

Ez. *Lulu* nire txakurtxo leiala izan dut alboan [argazkian, Urrezko Gibelarekin batera ageri da] eta, egia esan, bai egin dugula parranda apur bat aurtengo jaietan... Kar-kar. Gustura ibili gara, jo eta ke.

Gaur [astelehena], Urrezko Gibela jaso ondoren, noiz bukatuko da parranda zuretako?

Goiz, goizean goiz. Egun berriaren argiarekin batera joango gara etxera; bai ni eta baita *Lulu* ere.



I.G.

Muruko lanak egiteko lehiaketa ireki du Udalak

J.B. | ARAMAIO

Muru auzoko hondakin urak saneatzeko eta auzorako sarbidea egokitzeko proiektua lehiaketara aurkeztu du Udalak asteen, prozedura ireki bidez. Iragarkiak jasotzen duenez, enpresa interesatuak lau hilabete izango ditu egin behar diren lan guztiak bukatzeko.

Eskaerak, hilaren 21era arte

Obraren aurrekontua 309.878 eurokoa da (BEZik gabe) eta eskaera aurkezteko azken eguna uztailaren 21a da, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialak (ALHAO) aurreikusten duenez.

Aspaldi egin beharreko obra

Ez da albiste berria Muru auzoko obrak beharrezkoak direla. Batez ere saneamendu lanak –ur zikinen eta euri uren sarea berritzea– eta auzorako errepi-dea egokitzea dira egin beharreko lan nagusiak. Errepideari dagokionez, auzotarrek salatu izan dute larrialdi kasuetan auzorako sarbidea oso zaila dela: "Anbulantziek ez dute hona etorri nahi izaten, eta behin, sute bat gertatu zen eta suhiltzaileak ezin izan ziren hemendik pasatu, errepidea oso estua delako". Dena ondo bidean, urtea amaitu baino lehen konponduko dira arazo horiek guztiak.

Oletan urte luzez bizi izan zen Bittor Kapanaga otxandiarrari omenaldia bihar, haren jaioterrian

Bittor Kapanaga euskaltzale eta ikertzaile otxandiarrak hil zela hiru urte bete dira, eta omenaldia egingo diote bihar Otxandion bertan. Sortzez otxandiarrak izan arren, Oletako Apieta baserrian bizi izan zen urte luzez. Korostondo jatetxean bazkalduko dute eta ondoren ikertzailearen gaineko solasaldia egingo dute. 20:00etan jaialdia egingo dute Otxandiko elizan eta, besteak beste, Gontzal Mendibil, Niko Etxart, Xabier Amuritza, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Otxandioko Abesbatza arituko dira kantuan.

23 metroko egurrezko zubi bat jarriko dute Iturrizuri eta Matxain kaleak lotzeko

Zubi bat jarriko dute Aramaioko Iturrizuri eta Matxain kaleak lotzeko. Plan Orokorrean jasotzen zen bi kale horiek lotzea eta Udalak orain du aukera lan hori egiteko. Egurrezko zubia izango da, 23 metrokoa. Aurreikuspenen arabera, Nafarroako Madergia enpresak bi aste beharko ditu zubia muntatu eta dagokion lekuan jartzeko; beraz, abuztuko oporren aurretik zubia jarrita egongo da. Lanen aurrekontua 30.000 euro ingurukoa da eta obraren kostua Udalak hartuko du bere gain.



JOKIN BEREZIARTUA

Udalekuak uztailaren 22ra arte

Eguaztenean hasi ziren udalekuak. 3 eta 12 urte arteko 107 umek eman dute izena aurten eta lehen egunean taldetan banatu eta mural bat margotu zuten. Hilaren 22ra arte askotariko ekintzak egingo dituzte: Gantzagako ortu ekologiko batera bisita eta Otxandioko igerilekutara irteera, besteak beste. Gainera, Zuiako Koadrilako Euskararen Eguna Aramaion egingo da aurten, uztailaren 17an.

ELGETA

Lehen balorazioan herritarren parte-hartzea nabarmendu dute

Eneritz Larreak jasoko du Ferixa Nagusiko jaietako argazki lehiaketako saria

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Uztaileko Jai Batzordean egingo dute 2014ko Ferixa Nagusien balorazioa, baina Udaletik lehen balorazio positiboa egin dute asteen. "Jai Batzordetik eskerrak eman gura dizkiegu jaiak aurrera ateratzeko laguntza eman duten guztiei", adierazi dute ohar bidez. "Nabarmendu gura dugu jai herrikoiak eta parte-hartzaileak izan direla, bisitari asko izan ditugula jaietako lau egunetan —berezi barikuan eta domekan— eta ez dela nabarmentzeko gertaerarik egon".

Eguenerako kuadrilla kopuru politak gertatu zuen mozorroa jaiei hasiera emateko, eta barikuan kanpoko jendea etorri zen Elgetara Oihan Vegaren DJ saioaz eta Hesian taldearen kontzertuaz gozatzera.

Urtean zehar hamazazpi neska-mutiko jaio dira Elgetan, eta zapatuan ongiatorria egin zieten udaletzeko osoko bilkuren aretoan. Ikusmina sortu zuen, baita ere, udalbatzak lehenengo aldiz egindako soka-dantzak, eta herriko neska-mutikoez egindako euskal dantzen saioak ere oso harrera polita izan zuen.

Herri bazkariko paella jane-



Argazki irabazlea. | ENERITZ LARREA

rako 600 txartel saldu ziren, eta, zezentxoetan ezusteren bat edo beste egon bazen ere, badirudi ez dela ezer larria izan.

Argazki lehiaketa

Eneritz Larreak irabazi du aurtengo Elgetako jaietako argazki lehiaketa. Lehiaketak bost parte-hartzaile izan ditu —guztiak herritarrak—, eta argazkiak 37 izan dira. Udalak atzo goizean eman zuen epaiaren berri; Eneritz Larrea elgetarraren argazki batek —ezkerrean ikusgai— merezi izan du sari nagusia, eta argazki hori izango da hurrengo urteko jaien programako azal nagusia. Larreak, gainera, tableta bat jasoko du opari.

Athletic-zaleen orga

Bolatoki tabernan jarraitzen du Intxortako Lehoiak lagunarteak domekan zozketatu zuen orgak. Urtero moduan, jaki goxoz betetako orga da, eta 302 zerbakiak txartela aurkeztu duenak eramango du etxera.

Ordezko zerbaki saritua ere badago: 720, hain zuzen ere. Sari-tutako txartela edukiz gero, Bolatoki tabernan eman behar da aditzera.

Lehiaketak bost parte-hartzaile izan ditu eta argazkiak 37 izan dira

Udalekuetako haurrek txangoa egingo dute gaur

Astelehen goizean urteroko entzierroa egin zuten



Udalekuetako umeen entzierroa, astelehenean, San Roke kalean. | L.Z.

L.Z. | ELGETA

Atxondon egingo dute goiz-pasa udaleku irekietako neska-mutikoez. Udaleku irekietako programazioaren barruan urtero egiten dute txango bat, eta aurtengoa Atxondoko igerilekura izango da.

Eguraldiak igerilekurako aukerarik ematen ez badu, bide-gorria egingo dute elgetarrek; Arrazolako bide berdera, hain zuzen ere. Eta oso eguraldi txarra bada Atxondoko frontoian jolasak egingo dituztela adierazi dute hezitzaileek.

Astelehenean entzierroa

Urtero moduan, aurtengo ere entzierroa izan da Elgetan. Astelehenean izan zen. 7-12 urte bitartekoak San Roke kalean egin zuten eta txikiek, berriz, frontoian.

Hasi dituzte Ozkarbi elkarte txukuntzeko lanak, eta hilabetez egongo da itxita erabiltzaileendako

Iragarri moduan, astelehenean, herriko jaien ostean, hasi zituzten hobekuntza lanak Ozkarbi elkartearen. Sukia enpresak dihardu horretan, eta, aurreikuspenak betetzen badira, elkarteak lau aste emango ditu itxita. Sukaldea txukuntzeko dute, eraikineko leihoak aldatuko dituzte eta beheko solairuko komunak eta barra ere berrituko dituzte.

Hilaren 22an egingo du hurrengo bisita KZguneko dinamizatzaileak, 09:00etatik 13:00etara

Kultura etxeko hirugarren solairuan dagoen KZgunean izango da hilaren 22an, martitzena, dinamizatzailea. Erabiltzaileen zalantzak eta galderak erantzun ditu, eta interesatuek hainbat ikastaro egiteko aukera izango dute. Ikastaroak mota askotakoak izan daitezke: Google Apps, sare sozialak, software librea, Photoshop... Argibideetarako, deitu 943 02 36 39 telefono zenbakira edo idatzi tutor.elgeta@kzgunea.net helbide elektronikora.

Udalak hezitzaileak eta garbitzaileak behar ditu; lan poltsan izena emateko epea zabalik da

Kasu bietan interesatuek hilaren 17ra arteko epea dute izena emateko, eta ezinbestekoa da Elgetan erroldatuta egotea. Hezitzaile lanposturako eskatzen dituzte, gainera, 18 urtetik gorakoa izatea, euskalduna izatea, eta hezkuntza zein aisialdi lanetan esperientzia frogatua izatea. Hautagaiek azterketa idatzia egin beharko dute. Garbitzaile lanposturako ezinbestekoa da langabezian egotea. Baloratuko dituzte esperientzia, euskara, egoera familiarra...



L.Z.

Lanak Kanpanzarreko bidean

Gipuzkoako Foru Aldundia mantentze-lanak egiten ari da GI-2639 errepidearen 0,8 kilometro-puntuan. Astelehenean hasi ziren lanak, eta euste-horma egiten ari dira errepide tarte horretan segurtasuna bermatzeko. Hori dela eta, semaforo bidez txandakako zirkulazioa dago ezarrita puntu horretan, eta arduradunek aurreikusten dute gaur, barikua, amaituko dituztela lanak.

LEINTZ GATZAGA

Udaleku ibiltarietako gazteak Gatzagan

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Bi egun pasatu dituzte asteen udalerrian 32 gazte eta bi begiralek. *Kosta ala kosta* izeneko udaleku ibiltariko partaideak dira. Eta Garaion eta Gorla arteko ibilbidean egin dute bi eguneko geldialdia Gatzagan: martitzenean eta eguaztenean. Hain

zuzen ere, bertako kultura etxean eman dute gaua (argazkian).

Mendirik mendi, kostaldera

Arrasateko Txatxilipurdi, Bergarako Jardun eta Sorluzeko Pil-Pilean elkarteek antolatutako udalekuak dira horiek, eta uztailaren 5ean hasi eta 16an

bukatuko dira. Bada, bitarte horretan, Arabatik Gipuzkoara mendirik mendi egingo dute bidea gazteok, "itsasoaren lasaitasunean amaitzeko". Garaion hasi dute abentura eta Zarautzen bukatuko dute. Edozelan ere, eguraldiaren eraginez egokitu egin behar izan dute hasierako tarteko ibilbidea; izan ere, Garaionetik Arangurenera ziren joatekoak, baina eguraldi eskasak lagundu ez, ibilbidea egokitu eta horrelaxe pasatu dituzte bi egunok Leintz Gatzagan.



Gazteak kultura etxean eguazten goizean. | JOSEBA GABILONDO

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18
arkaitz.irazabal@gmail.com

GARMENDIA LANDER

PSIKOLOGO KLINIKOA - PSIKOTERAPEUTA

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86 / 669 10 13 93

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

FUTBOLA

Eibar taldea Agorrosinen prestatzen hasiko da denboraldi historikoa

- Astelehenean, hilak 14, jokalariek Bergaran egingo dute lehenengo entrenamendu saioa
- Gaizka Garitanoren mutilak denboraldian zehar astean birritan etorriko dira Bergarara

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Lehenengo mailako Eibar astelehenean, uztailak 14, hasiko da denboraldia prestatzen, nahiz eta entrenatzaile taldeak asteak darmatzan jardunean. Baina Eibar jokalariek ez dituzte lehenengo izerdiak Ipuruan botako, Agorrosinen baizik. Izan ere, Eibarko eta Bergarako klubek akordioa egin dute.

Asmoa, hiru urterako

Hain zuzen ere, hiru urterako hitzarmena egin nahi dute Bergarak eta Eibarrek, baina oraindik ez daukate guztia zehaztuta. Izan ere, Eibarren hasierako asmoa zen Mondra futbol taldearen lehengo futbol zelaia, Gara-gartzako Atxabalpe, egokitzea eta hori erabiltzea entrenamendu-eraketa. Edozelan ere, baztertu egin dute ideia hori, Atxabalpe egokitzeak inbertsio handia eskatzen du-eta.

Horrenbestez, Bergarako aukeratu dute. Baina zergatik? Hasteko, Agorrosin delako belar naturaleko inguruko futbol zelai bakarrenetakoa. Hamar kilometroa dute armaginek, gertu. Eta partidua ofizialak jokatzeke erabiltzen duen Ipuruz gainera,

beste belar naturalekorik ez dautkalako Eibarrek. Ipurua ondokoa belar artifizialekoa da.

Agorrosinen mantentze-lanak

Bergarako klubak ez du dirurik zuzenean jasoko Eibarren partetik, astean bi entrenamendu saio egin dezan uztearren. Baina Agorrosin futbol zelaiaren mantentze-lanez arduratuko dira Eibarko zelai-zaintzaileak. Eta, horretaz gain, aurten zelaia jaso eta hainbat egokitzapen-lan egin dituzte, "euro askotako inbertsioa", Bergara KETik adierazi dutenez.

Ondo ezagutzen duten zeiala

Dena dela, ez da izango berria Eibar Bergaran entrenatzen ikustea, azken urteotan Eibarrek, tarteka-marteka, erabili du-eta Agorrosin entrenatzeko; astean behin ere erabili izan dute. Bada, aurrerantzean, elkarlan hori indartu eta, gutxienez, astean bitan entrenatzeko asmoa agertu dute armaginek, eta hala hitzartuko dute bi klubek.

Udako entrenamendu saioak.

Eibarrek, esan bezala, uztailaren 14an, astelehena, hasiko du denboraldi-aurrea. Uztailaren 14an,



Urko Vera, eibartarren goletako bat ospatzen. | EIBAR

16an, 18an, 22an, 23an eta 24an Bergarako futbol-zelaian entrenatuko dira, 10:30ean hasita. Eta Gaizka Garitanoren mutilak abuztuko hiru astetan ere entrenatuko dira Agorrosinen. Denboraldian barrena, ostera, astean birritan etorriko dira.

Abuztuaren 2an Eibar-Racing

Agorrosin erabiltzearen truke, baita ere, Eibarrek urtero lagunarteko bat Bergaran jokatzeke konpromisoa hartu du (eta sarrekin batutako dirua Bergararendako izango da). Hala, lagunarteko hori denboraldi-aurrean jokatuko dute, eta Santanderko Racing izango da Eibarren kontrarioa. Abuztuaren 2an jokatuko dute, 19:00etan. Kantabriarrek Bigarren Mailan jokatuko dute datorren denboraldian.

ATLETISMOA

Munduko Txapelketarako txartela berretsi du Ruiz de Azuak Castellon

Arrasatearra AEBetara joango da datorren astean, Oregonera

XABIER URZELAI | ARRASATE

Denboraldiko hitzordu nagusien atarian, Malen Ruiz de Azuak sasoiari dagoela berretsi du Castellon egindako Espainiako Txapelketan; izan ere, domekako lan-saioan, Super Amara BAT taldeko ordezkariak 3,95 metroko saltoa egin zuen pertikarekin, eta urrea eman zion horrek.

Arrasatekoak lehenago ere eskuan zuen AEBetan egingo duten junior mailako Munduko Txapelketarako txartela, baina domekako markak berretsi egiten du Eugenien-Oregon-lan txukuna egin dezakeela [4,02 metroko marka du]. Eta, bide batez, iaz Italian egindako [Rietin] Europako Txapelketak utzitako zapore gazi-goza ahazteko aukera izango du. Hala, Arrasateko harrobiko atleta datorren astean abiatuko da AEBetara, uztailaren



Malen Ruiz de Azuak, Mojatetik instalazioetan. | X.U.

22tik 27ra bitartean egingo duten txapelketan parte hartzera.

Ruiz de Azuarekin batera Maialen Axpek ere lan ona egin zuen Durangon egindako prome-

sen mailako Espainiako Txapelketan, urrea jantzita (3,85). Istar Dapenak, berriz, min hartuta hartu zuen parte, eta, hala ere, laugarren sailkatu zen (4,50).

ZIKLISMOA

Antzuola saria domekan, sasoiari dauden ziklistekin

Iñaki Leteren oroimenezko lasterketak Lehendakari ziklista onenak batuko ditu

X.U. | ARRASATE

Amateur mailako ziklista onenak Antzuolan izango dira domekan (10:00), Antzuola sariaren 69. edizioan. Euskaldun Torneoak ez du atsedetik izan joan den astean Gatzagan izan zuten lasterketa, baina Lehendakari Txapelketak atsedetik izan du ekainaren 24a ezker. Eta, hain justu, debagoiendar bat izan zen orduan protagonista, Gipuzkoa taldeko Eneko Lizarralde bergararrak irabazi zuen-eta lasterketa, Tolosan.

Domekan, ikusteko dago talde bakoitzetik ze txirrindulari etorriko diren, baina Gipuzkoako, Ziraunako eta Debabarrenako ordezkari debagoiendar irteera puntuan izango dira, beste ziklista askorekin batera.



Diego Rubio, iaz. | X.U.

130 kilometro aurretik

Ibilbideak ez du aldaketarik: lehenengo 68 kilometroak Antzuola eta Oñati artean egingo dituzte. Deskarga igoko dute gero, baina aukeraketa erabakigarria Asentziok egingo du, 110. kilometroan. Helmuga 12:50 aldera izango da.

MENDI BIZIKLETA

EskoXtrem martxa bihar, bidezidorretan oinarrituta

Urritik uztailera aurreratu dute Eskoriatzako martxa; antolatzaileek lan handia egin dute ibilbide berriaz

XABIER URZELAI | ESKORIATZA

Biziberritu edo hil, pentsatuko zuten Eskoriatzako mendi bizikleta martxa antolatzen ibiltzen diren lagunek. Eta lehenengo aukeraren aldeko apustua egin dute, bihar, zapatua, egingo duten EskoXtrem-en ibilbidea ikusita: "Jendea gauza berri bila dabil, eta Arrasateko, Aretxabaletako edota Oñatiko mendi bizikleta martxek joera berria izan dute azken bolada honetan, bidezidor gehiago, jaitsiera teknikoagoak... Hala, Eskoriatzako martxak 25 urte beteko ditu, eta erabaki dugu guk ere pista zabalak alboratzea eta beste proposamen bat egitea", adierazi du Iban Diaz antolatzaileak.

Emaitzia ikusgarria izango da, seguru, baina horrek lan galanta dakar aurretik: "Irailean hasi ginen bidezidorrak bilatzen, berriak egiten, bata bestearekin lotzen... Emaitzarekin gustura geratu gara, baina ikusteko dago jendeak zapatuan zer esaten digun". Ibilbide motza (21 kilo-



Gatzagako martxa, Arlaban gainean. | GOIENA

ESANAK

"Pista zabalak alboratu eta ibilbide berria egin dugu"

IBAN DIAZ | ANTOLATZAILEA

metro) zorrotza dela aitortu digute eta luzea (37 kilometro), berriz, sasoian daudendako. "Jaitsiera politak daude, teknikoak, baina egingarriak. Eta bai, inguruko jaitsiera eder guztiak egiteko, lehenengo igo egin behar da".

Bihar, zapatua, 09:00etan hasiko dute martxa, eta 08:15etik egongo dira izenak hartzen (15 euro), plazan.



ALPINISMOA

WOPEAK

Hasi dira garaierara egokitzen

Wopeak espedizioko kide Alberto Iñurrategi, Juan Vallejo eta Mikel Zabaltza hasi dira garaierara egokitzen, 5.000 metrora hainbat gau igaro dituzte-eta *vivac* egiten. Hori bakarrik ez, egunok aprobeztatu dituzte kanpaleku nagusitik lehenengo kanpalekura materiala igotzeko. Horrekin batera, konturatu dira Paiju Peak-era igotzeko gaintitu beharreko hormak iaz baino elur gutxiago duela. Hala, egunotan kanpaleku nagusian atsedean hartu ostean, astelehenean ostera ere lehenengo kanpalekurako bidea hartzeko asmoa dute.

ARETO FUTBOLA

Hamahiru taldek eman dute izena bihar goizean hasiko duten Zaldibarko 24 ordukoan

X.U. | ARRASATE

Iaz baino talde bat gutxiagorekin, baina 24 orduko txapelketa txukuna egiteko moduko kopuruaz hasiko dute bihar, zapatua, Zaldibarko 24 ordukoa (10:00etan hasita): "Iaz finala goizaldeko bostak aldera jokatu genuen, baina ordu horretan jende gutxi geratzen da finala ikustera",

adierazi du Ander Arizaleta antolatzaileak. Hala, aurtengo finala 02:30ean hasiko dute.

Ligaxkako partiduek hogeimintu iraungo dute eta kanporaketetakoez, berriz, 25 minutu. Bada, antolatzaileek WhatsApp bidez bidaliko dituzte ordutegiak, eta *Goiena.eus*-en ere badaude.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Arte kale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

KULTURA

Dantzagela: Arizmendi Ikastolaren eta Dantzaz konpainiaren laborategia

Arizmendi Ikastolako 5. mailako 200 ikasle izan dira dantzan oinarritutako ekimenean

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Dantzaren bitartez ikasgelan lantzen diren askotariko ikasgaiak lantzea du helburu Dantzagela laborategiak. Proposamen hori egin zieten Dantzaz konpainiakoei Arizmendi Ikastolakoei iazko ikasturtean, ikastolaren ezaugarriak oinarri hartuta esperientzia pilotua abian jartzeko toki aproposa zelakoan (besteak beste, hainbat herritan eta gunetan banatutako Lehen Hezkuntzako ikasleak izatea).

Hezkuntza formala eta ez-formala txertatzeko aukera paregabea ikusi zuten ikastolakoek eta horrela abiatu ziren dantzarien abenturan Lehen Hezkuntzako 5. mailako bederatzi ikasgeletako 200 ikasle eta horien irakasleak. "Hasieratik erakarri gintuen proiektuak, dantzari profesionalak izateaz gainera, gure ikastolaren helburuekin bat zetorrelako. Firi Fara egitasmotik ezagutzen genuen elkar. Artelekun zuten egoitzako bileretan marraztu genituen, hasteko, egitasmoaren lan ildoak; irakasleekin landu genituen, gero, Dantzazekoen *Naufagoak* ikuskizuneko osagaiak eta horiek ikasgaietan txertatzeko moduak; ondoren, hiru astean dantzariak etorri ziren lau gunetara, Arimazubira, Gazteluondora, Santa Teresara eta Almenara, ikasleekin koreografiak lantzea, eta borobiltzeko, ekainean erakutsi zuten ikaskideen eta irakasleen aurrean *Naufagoak* ikuskizunaren euren bertsioa", azaldu du Gari Ibartzabalek, Arizmendiko hezkuntza ez formaleko arduradunak.



Dantzaz konpainiakoei *Naufagoak* ikuskizunaren erakustaldia egin zieten Arizmendiko ikasleei. | ARIZMENDI IKASTOLA

Kantuak ikasgai bihurtuta

Sarrionandia idazlearen lanetan sakontzeko aukera izan dute Dantzagelan, idazle horretan oinarritutakoa da-eta abiapuntu izan duten *Naufagoak* lana; horrez gainera, askotariko euskal musikariaren abestiak ere ikasgai bilakatu dituzte. "Ruper Ordorikaren *Hiriak* abestiaren aitzakian, munduko hiriak ezagutu zituzten; *Hondamendia* kantua ere, berriz, parean tokatu zitzaigun eta gure ikasle askok ere etxean bizi izan zuten Fagorren krisia lantzeko baliagarria izan zitzaigun; euskara ikasgaien literatura lantzeko beste bide batzuk ere zabaldu zizkigun... egia esan, hor ikusi dugu guk benetako aberastasuna", dio Ibartzabalek, eta zera gaineratu du: "Liburuetakoa ikasgaiez gainera, bestelako formazioa ere jaso dute ikasleek oso *feedback* ona izan duten dantzarekin. Oso dinamikoak izan dira tailerrak eta sormena lantzeko aukera ere izan dute ikasleek, koreografoen paperean bete-betean sartuta".

ESANAK

"Ikasle eta dantzariak *feedback* ona izan dute"

GARI IBARTZABAL | ARIZMENDI

Datorren urtean bigarren

Gustura daude laborategian parte hartu duten bi aldeak jasotako fruituekin; datorren ikasturtean Dantzagela2 egingo dute, seguraski, hirugarren zikloko ikasleekin. "Asmoa izango da datorrenean hamazortzi gelatako ikasleekin gauzatzea, maila bietako ikasleak elkarrekin nahastuz", azaldu dute Arizmenditik.

Asteburu honetan Lekeitioko 25. Antzerki Jaialdiaren barruan hondartzan estreinatuko duten *Itsaslaboa*. *Txoriak zoroen itsasoa* lana izango dute abiapuntu. Hori horrela, besteak beste, eromen, osasun mental eta askatasun kontzeptuak aztertuko dituzte laborategian parte hartuko duten ikasle eta irakasleek.



DANTZAZ KONPAINIA

FERNANDO
SAENZ DE UGARTE
DANTZAZ KONPAINIA

"Beste batzuekin partekatze laborategia da Dantzagela"

Dantzaz konpainiako zuzendari nagusia da Saenz de Ugarte. Dantzagelan buru-belarri ibili da hura ere.

Aurten egin duzun lanik mimatuena dela diozu.

Aspalditik egin gura genuen zerbait da laborategia, Gipuzkoako ikastetxe gehienetan dugun Firin Faran egitasmoaz haratago joateko helburuaz.

Zein zen zuen asmoa?

Proposamena oso sinplea zen; hau da, arlo artistikoaz edo fisikoaz gainera, dantza beste ezagupen arlotan erabilgarria zen frogatzea.

Barrurako lana izan den arren, zeresana sortu du.

Laborategia beste batzuekin konpartitu beharrekoa da. Arlo pedagogikoan zein dantza konpainientzako lan egiteko beste modu baten erakusle moduan. Edozeinek errepikatutako edo bere modura moldatutako erabiltzekoa. Leku askotatik deitu digute.

Bigarren Dantzagela ere badator.

Bai; *Itsaslaboa*. *Txoriak zoroen itsasoa* lanean oinarritutako dugu. Aurten egindakoak zuzendu baino gehiago, proiektua mamitzea da erronka. Ikastolak programa prototipoa eratu gura du eta guk, berriz, Dantzagelari etekin handiagoa atera gura diogu.



Dantzagela proiektuko Arizmendiko ikasle batzuk, landutako koreografiak entseatzen. | ARIZMENDI IKASTOLA

Gaur agurtuko dute '7x7' kultur egitasmoa, The Romanticos-ekin

ANE ELORDI | ESKORIATZA

Aretxabaletak kaleko kultura ekitaldiei agur esango die gaur, denbora batez, The Romanticos taldearen kontzertuarekin. Gipuzkoarrek swing, blues eta funk doinuekin itxiko dute zazpi ekitaldi eta herriko zazpi toki batzen dituen 7x7 kultur egitasmoa. Ekainaren 6an ekin zioten ekimenari eta gaur, uztailak 11, 19:00etan Iralarri plazan eskainiko duten kontzertuarekin bukatuko da aurtengo edizioa. Orain arteko emanaldiak izan duten erantzuna postiboa izan da.

Hirukote gipuzkoar batek ekin zion taldea sortzeari, 2009an. Iker Piris tolosarra izan zen sortzaileetako bat, eta egun, taldearen baitan bi ardura ditu: ahotsa eta gitarra. Jazz musikaren arloan ibilbide oparoa duen musikaria da; Donostiako eta Gasteizko jazzaldietan hartu du parte, esaterako. Taldean lagun ditu Xabier Barrenetxea baxu-jotzailea eta Paul San Martin piano-jotzailea, biak gipuzkoarrak. Kanta gehienak Carlos Sagi laugarren taldekidearenak dira.

Bluesa zainetan

Hasieratik bluesa lantzen du taldeak. Mota horretako kanten moldaketak egin izan dituzte, baita abesti propioak sortu ere, swing, rythm-and-blues, funk eta blues kutsua dutenak. 2012ko ekainean *My Time* izeneko lehen diskoa kaleratu zuten, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen eskutik; ingelesez abestutako hamaika kantek osatzen dute diskoa. Horiek izango dira entzungai Aretxabaletan.



Jon Zabal magoa. | JON ZABAL

Jon Zabal | Magoa

"Pertsona barik ezin dut magiarik egin, haien burutazioak asmatzen baititut"

Jon Zabal magoak ilusionismoa lantzen duen ikuskizuna eskainiko du, Udazabalen baitan

ANE ELORDI | ARRASATE

Jon Zabal mago bilbotarrak emanaldia egingo du Arrasateko Seber Altube plazan gaur, egubakoitza, 20:00etan, Udazabal jaialdiaren baitan. Pertsonekin ilusionismoa lantzen duen magoa da, eta helduei zuzendutako saioak egiten ditu. Urte asko daramatza magiaren munduan, eta ilusionismoa eta karta jokoak ditu gustuko. Arrasaten bere azken lana aurkeztuko du: *El suceso*. Antzokietarako sortutako lana zen, hasiera baten, baina aurten kaleko emanaldietarako moldatu du, eta ikuskizuna aurkezten dihardu.

***El suceso* izeneko ikuskizuna aurkezttera zatoz. Nolakoa da?**

Pertsonen pentsamenduak asmatzean oinarritutako ikuskizuna da. Ordubete inguru irauten du, eta ikusleak dira protagonistak, gehienetan pertsona helduak; hala ere, inoiz haurrek ere hartzen dute parte.

"Ikuskizunean egiten diren zenbait trikimailu ez dira beste inon egiten"

Ez dauka egitura finkorik, partaideen arabera-koa izaten da; beraz, ez daude ikuskizun berdin bi, nahiz eta guztiek *El suceso* izena izan.

Pertsonekin ilusionismoa lantzen duzu; zer dela eta jorratzen duzu magiaren arlo hori?

Duela urte asko aukeratu nuen ilusionismoaren adarra. Egia esan, ez dakit zehazki zergatik aukeratu nuen. Baina egia da asko erakartzen nauen magia mota dela, eta nire izaerarekin bat dator. Gainera, magia munduan ez da askorik jorratu, eta jendearen arreta asko erakartzen du. Hala ere, nire mago ibilbidean karta jokoak ere egin izan ditut; egun, mentalismoan dihardut, kartak alboratuta ditut, orain aisialdira mugatu ditut.

Debagoienean ibilia zara. Duela bi urteko Udazabal jaialdian egon zinen, baita Magia Mostran ere. Gogotsu zatoz bailarara?

Egia da oso gustura aritu nintze-la Arrasaten egon nintzen aurrekoan ere. Orduko oroitzapenak onak dira, beste espektakulu bat egin nuen, eta jendearen erantzuna ona izan zen. Izan ere, berezia da bailaran magiarekiko duten afizioa.

Magia ikuskizunetan eta, batez ere, pertsonen arteko ilusionismoan, ikus-entzuleen partaidetza garrantzitsua da?

Beharrezkoa da publikoaren erantzuna nire espektakuluetan; izan ere, ikus-entzulerik izan ezean saioak ez du zentzurik. Esaterako, aktore batek edo trapezista batek bere emanaldia ikus-entzule gabe egin dezake, baina nik lantzen dudana magia motan ezinezkoa da. Pertsona barik ezin dut magiarik egin, haien burutazioak asmatzen baititut.

Parte-hartzea eta umorea, biak dira ikuskizunaren giltzarriak?

Gerturatzen direnen parte-hartzea umorea bezain garrantzitsua da niretzat. Umoreak askotariko erabilerak izan ditzake magia ikuskizunetan; umorea giltza eta teknika ere bada. Askotariko sentsazioak sortzeko erabiltzen dut nik umorea; esaterako, parte-hartzaileak distraitzeko, lasai-

tzeko edota urduritzeko; oso arma baliagarria da magian.

Garrantzitsua da ikuskizuneko publikoak barre egitea?

Nire ustez, mago baten jardunean ikus-entzuleengan barrea eragitea ez da beharrezkoa. Izan ere, badira mago asko egiten duten lanagatik onak direnak, eta ez dute umorerik erabiltzen. Hala ere, nik gustuko dut publikoari barrea eragitea, nire izaeraren parte ere badelako. Estrategia psikologikoa ere bada, parte hartzen dabilen pertsona nahi dudana eremura eramateko.

Magoen ezaugarrietako bat sortzailea izatea ere bada. Joko eta ikuskizun berriak egiten denbora luzea ematen duzu?

Egia da magiaren arloan etengabe sortzea garrantzitsua dela. Baina, batzuetan, nahi baino denbora laburragoa eskaintzen diogu gauza berriak sortzeari; sarritan, egiteke geratzen den ikasgaia da, niri hori gertatzen zait. Hala ere, *El suceso*-k badauka atal bat oso berritzailea dena, egiten diren trikimailuak ez baitira beste inon egiten.

Ikuskizunez gain, magia liburuak ere argitaratu dituzu. Arlo teorikoa behar bezala lantzen da?

Magiari buruzko bi liburu idatzi ditut, eta, egia esan, ez da oso ohikoa magiari buruzko liburuak argitaratzea. Niretzat, liburuak idaztea magiari zor diodana ematea da; hau da, nik nire kabuz sortu eta ikasi ditudan trikimailuak besteen esku uztea. Magiarekiko maitasunagatik egin ohi dudana gauza da.

Bilbon bada magia eskola bat; baduzu loturarik horrekin?

Ez; nire ustez, magia eskola batek hasiberriei trikimailu guztiak eskura ematen dizkie, eta magiaren oinarria sekretutasuna da. Nork bere joko eta trikimailuak sortu behar ditu, eta ikaskuntza prozesuak pertsonala izan behar duela uste dut, nahiz eta gero magoak elkartu egiten garen eta ezagutzak partekatzen ditugun. Eskola batek sorkuntza mugatu egiten dio ikasleari. Nire ustez, mago baten ardura emanaldiak ematea da, eta ez irakastea.

ANE ELORDI | BERGARA

Aroztegi aretoan ikusgai daude Juan Antonio Palacios argazkilariaren zenbait lan. Erakusketak argazkilari eibartarraren argazkiak biltzen ditu, askotariko estilo eta gaiak biltzen dituztenak; adibidez, herri kirolak, erretratuak eta natura. Gehienak euskal gaiekin lotutakoak dira.

Aroztegi aretoko erakusketak zenbait arlo ditu; alde batetik, ikusgai daude hainbat euskal txokotako paisaiak, askotariko argi eta koloreekin jokatzeko argazkilariak, eta ikusgarriak dira lanak; bestalde, zuri-beltzeko erretratuen bildumatxoak ere badago, eta natura hilekin (bodegoiak) egindako konposaketa bat ere ikus daiteke.

Bergarako Udalak antolatuta, uztailaren 4tik 20ra bitartean ikusgai izango da erakusketa: martitzenetik barikura 18:00eta-

Juan Antonio Palaciosen argazki bilduma erakusgai dago Bergarako Aroztegi aretoan

Erretratuen, paisaien eta natura hilen argazkiekin osatutako bilduma da



Juan Antonio Palaciosen argazki erakusketa Aroztegi aretoan. | ANE ELORDI

tik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeka eta jaieguetan 12:00etatik 14:00etara.

Argazkilari saritua

Sona handiko argazkilaria da Juan Antonio Palacios, eta natura gai hartuta argazkiak ateratzea du gustukoan. Hala ere, bestelako gaiak ere lantzen ditu, eta Bergarako erakusketan argazki horien guztien ale txiki bat dago ikusgai. Ildo zehatzik gabeko erakusketa da, baina argazkilariaren hainbat bildumatako lanak batzen dituena. Palaciosen zenbait sari eta aitorten jaso ditu; esaterako, azkena, Turkiako XI. Adana Rotary Clubeko portafolio onenaren saria, ohorezko aipamena egin zioten, eta Greziako argazkilaritza zirkuituan lau diploma jaso ditu aurten; adibidez, lehenengo postukoa.



Vespa Groove taldea. | VESPA GROOVE

Vespa Groove taldeak lehen lana aurkeztuko du gaur

Jazz, soul, blues, funk eta rock doinuak entzungai izango dira Espoloian gaur

ANE ELORDI | BERGARA

Gaurk, soul eta funk doinuak izango dira protagonista Berumugan. Kantabrietatik etorritako Vespa Groove taldeak eskainiko du kontzertua, 22:00etan, Espoloian. Jazz musikan adituak diren zenbait kidek osatzen dute taldea, eta askotariko doinuen konbinazioa eskainiko dute. Taldeko baxu-jotzailea Toñok adierazi duenez, pozik daude Bergaran kontzertua eskainiko dutelako.

Sei urteko ibilbidea duen taldea da, eta jazz fusioa egiteko bildu zen boskote bat du erroetan. Gaur egun, zortzikotea da: Chisco Villanueva saxofoi-jotzailea, Rafael Santana teklatu-jotzailea, Javier Garcia gitarrista, Rodri Irizabal bateria-jotzailea, Toño Gutierrez baxu-jotzailea, Macarena Soto *Maki* abeslaria, Benjamin Blanes tronpeteta-jotzailea eta Edu Diez tronboi-jotzailea irten- go dira agertokira.

Lehenengoz etxetik kanpo

Vespa Groove lana ezagutzera emango dute Espoloian; udaberrian kaleratu dute. Orain arte Kantabrian ibili dira lana aurkezten, eta lehenengoz lana aurkeztera kanpora irtengo dira. Askotariko doinuak joko dituzte; esaterako, 60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetakako musikari ezagunen bertsoak; dantza zein kanturako aukera izango dute Espoloira bertaratzen diren musikazaleek.

Ikusgai daude Oñatin San Torcuatoren grabatu eta lumak

ANE ELORDI | OÑATI

Josean San Torcuato Imaz bergararrak bere lanak ikusgai jarri ditu Oñatin. Erakusketak hamasei lan biltzen ditu, horietako hamar grabatuak dira eta beste sei lumatxoak. Denek lantzen dituzte Oñatiko gai, toki eta ekitaldi esanguratsuak.

Askotariko artelanak egiten ditu artista bergararrak; besteak beste, grabatuak, lumatxoak, olioak eta akuarelak. Horietako batzuk aukeratuta antolatu du erakusketa. Oñatin ikusgai dauden grabatuetan herriko toki eta ekintza esanguratsuak irudikatzen dira; besteak beste, Aizkorriko tontorra, Arantzazuko apostoluak, Oñatiko plaza, Oñatiko buruhandien konpartsa eta San Martin, Santa Luzia eta Santxolopetegi ermitak. Guztiak San Torcuatok berak

eginak dira, eta bi teknika erabiltzaile egindako grabatuak dira, batzuk zizelarekin eginak daude eta besteak azidoarekin. Lumatxoetan, aldiz, ermitak eta elizak dira nagusi: San Juan, Urruxulo eta Olabarrietako ermitak eta Arantzazu eta San Migueleko elizak.

Artelanak taberna giroan

Zenbait erakusketa egin ditu, Oñatin bertan zein beste herri batzuetan; horietako batzuk Debagoienan. Adibidez, Bergaran, Arrasaten eta Eskoriatzan. Egilearen ustez, "obra txikiak direnez, ondo egokitzen dira tabernetara; erakusketa geletan, akaso, lan gehiegi beharko nituzke aretoa bete ahal izateko". Uztail osoan ikusgai egongo dira Oñatiko Zurrust tabernan.



Josean San Torcuatoren grabatua. | JOSEAN SAN TORCUATO

Goretti Abaunz abeslari gazte oñatiarra EITBren 'Stars.Izarrak kalean' saioan izan da

Abesti kuttun batekin ekin zion lehiari, Hesian talde nafarraren kanta batekin

ANE ELORDI | OÑATI

Goretti Abaunz abeslari gazteak Euskal Telebistako *Stars.Izarrak kalean* hartu du parte. Atzo iluntzean estreinatu zen saioa, eta oñatiarrak Hesian taldearen *Noiz itzuliko zara?* kanta abestu zuen. Egindako lanarekin gustura dagoe-la adierazi du.

Oñatiko abesbatzari loturiko musika ibilbidea izan du gazteak; izan ere, Ganbararen parte izan da. Hain zuzen ere, aurtan, Ganbara Txiki, Gazte zein helduen taldearekin aritu da. Bertako irakasleak eman zion telebista saioaren berri, eta, etxekoekin hitz egin ondoren, bere burua aurkeztea erabaki zuen. 80 partaideren artean, hamasei aukeratu zituen epaimahaiak; horietako bat da Goretti Abaunz.

Saio berritzailea da; izan ere, parte-hartzaileek ez dakite noiz abestu beharko duten. Sorpresaz,



Goretti Abaunz abeslari oñatiarra. | TXOMIN MADINA

saioko aurkezleak agertzen dira, jantzi eta kalean abestu behar dute; ondoren, kaleko jendeak erabakitzen du zein den irabazlea. Abeslari oñatiarraren ustez, formatua oso egokia da, berritzailea. Kalean abestea diberti-

garria dela dio. Gainera, ahotsaz gain, beste elementu batzuk ere hartzen direla kontuan eta esperientzia oso aberasgarria izan dela adierazi du. Telecinco kateko *La Voz Kids* saiora ere aurkeztu zen Abaunz.

Gaztetxeko 'Parrillada musikatuak' indartsu hasi dira, poesia musikatuaz

Pobresiak taldeak egin zuen lehen saioa eta datozen eguaztenetan gehiago izango dira

ANE ELORDI | ARRASATE

Martxan dira *Parrillada musikatuak* Arrasateko gaztetxean. Lehendabiziko saioa eguaztenean izan zen, eta esperotakoa baino harrera hobe izan zuela adierazi dute antolatzaileek. Oñatiko Uribealzo anaien ireki zuten egitasmoa; Pobresiak taldeak *Burgesaren gauerdiko eztula* izeneko lanean bildutako poesia musikatuaren emanaldia egin zuen.

Jendartean harrera ona izan zuen ekitaldiak, 30 lagunetik gora bildu ziren Arrasateko gaztetxean; afalostean poesia musikatuarekin gozatu zuten bertaratutakoek. Saioa alaia eta berritzailea izan zen, poesiaz

gozatzeko modu alternatiboa izan baitzen. Kultura eta gizarte arazoak izan zituzten kantugai oñatiarrek. Egitasmoaren arrakasta ikusita, datorren eguaztenerako ere jendetza espero dute gaztetxean.

Hurrengoa Mery May

Datorren eguaztenean *Parrillada musikatuak* bigarren saioa egingo da. Mery May abeslari arrasatearraren txanda izango da; uztailaren 16an kontzertua eskainiko du, 22:00etan. Hirukote formatuan arituko da, bateria eta baxua lagun dituela. Folk, pop zein rock doinuak izango dira entzungai Arrasateko gaztetxean.

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. San Andres auzoan etxebizitza ematen da errentan. Pisu argitsua, guztiz altzariztatu, kanpoaldera ematen duena, hiru logela, bainugela, sukalde independentea, egongelaeta balkoi zabala. Hirugarren solairua. Igogailurik gabe. Interesatuok deitu 634 70 98 01 edo 943 04 49 74 telefono zenbakietara.

Donibane Garazi. Apartamentua errentan ematen da uztailen, abuztuan eta iraillean. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Etxe inguruan baratza eta barbakoa. Asteko 330 eutotik 390 eurora artean. Kontaktua: 0033 559 37 16 66 edo mendizangoan@yahoo.fr

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Bergara. Etxea edo estudioa hartuko nuke errentan Arrasate edo Bergaran. Hilean 300 euro ordaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: 637 18 07 23

Bergara. Etxebizitza txikia edo estudioa hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu telefono honetara: 616 39 49 91

Oñati. Bikote euskalduna errentan hartzeko etxebizitza biladabil Oñatin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 79 73 00

105. ETXEA OSATU

Bergara. Logela ematen da errentan, sukaldea eta komuna erabiltzeko aukerarekin. Leku lasaia da. Kontratua egiteko aukerarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

Donostia. Antigua auzoan, Ondarreta hondartzatik 50 metrora eta EHU-tik 8 minutuira oinez, beste bi ikaslerekin 2014-2015 ikasturtean etxebizitza osatzeko kide bila gabiltza. Etxebizitzak hiru logela (armairu eta ikas-mahaiekin), bi komun, guztiz hornituriko sukaldea, jangela, egongela, terraza eta trastelekua ditu. Hilean 350 euro, gastuak barne (komunitatea, zabor tasa, ura eta berokuntza). Interesa izanez gero, deitu zenbaki hauetara: 630 11 53 02 (Maialen), 638 33 29 37 (Ane) edo 646 34 75 49 (Eduarne).

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuolan umeak zaindu. Antzuolan bi ume, 8 eta 2 urtekoak, zaintzeko pertsona bat behar da. Irailaren 1ean hasteko. Deitu 61579 27 35 edo 943 78 62 25 telefono zenbakietara.

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Neska arduratsua lanerako gertu Arrasate edo Bergaran: nagusi eta umeak zaindu, bulego, atari zein elkarteak garbitu edo dendari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 08 14 33

Arrasate. Emakume euskalduna plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu Arrasaten. 699 54 17 27

Arrasate. Emakumea, geriatra laguntzaile titulua duena, gertu nagusiak zaindu edo ospitalean gauak egiteko. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

